

DURANGO
Udala • Ayuntamiento
.....

DURANGOKO UDALAREN ANTOLAKETA, FUNTZIONAMENDU ETA GOBERNANTZAKO ARAUDIA

Hasierako onarpena: 2023/12/20ko ohiko Osoko Bilkura

BAOn argitalpena: 248 zk., 2023/12/29


Jendaurreko epearen amaiera: 2024/02/12

Alegazioak: EZ


BEhin-betiko onarpenaren argitalpena BAOn: 42zk., 2024/02/28

Indarrean: 2024/03/21


*Salbuespena: Arauen ebaluazioari eta administrazio onaren printzipioetara egokitzeari buruzko xedapenek, izapideen eta prozeduren eskuliburua eguneratu eta sinplifikatzeari buruzkoek eta zerbitzu-kartek 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak (Azken Xedapena).




ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK	9
1. artikulua.- Xedea.	9
2. artikulua.- Aplikazio-eremua.	9
3. artikulua.- Arauen lehentasuna, interpretazioa eta garapena.	9
 I.LIBURUA. UDAL-ORDEZKARIEN ESTATUTUA, ANTOLAMENDUA, FUNTZIONAMENDUA ETA ZERBITZUEN KUDEAKETA	 9
 I.TITULUA. UDAL-ORDEZKARIEN ESTATUTUA	 9
I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.	9
4. artikulua.- Araubide juridikoa.	9
II. KAPITULUA.- ZINEGOTZI-IZAERA HARTZEA ETA GALTZEA.	10
5. artikulua.- Zinegotzi-izaera hartzea eta galtzea.	10
III. KAPITULUA.- ZINEGOTZIEN ESKUBIDEAK.	10
6. artikulua.- Zinegotzien eskubideak.	10
7. artikulua.- Laguntza juridikoa.	11
8. artikulua.- Arduraldi-araubidea eta ordainsariak.	11
9. artikulua.- Kalte-ordainak.	13
10. artikulua.- Bertaratze-sariak.	13
11. artikulua.- Aseguruak eta konpentsazioak.	13
12. artikulua.- Arduraldi, ordainsari eta bertaratze-sarien mugak.	13
13. artikulua.- Informazioa jasotzeko eskubidea oro har erabiltzea.	13
14. artikulua.- Informazioa zuzenean eskuratzea.	14
15. artikulua.- Informazioa jasotzeko eskubidea erabiltzeko arauak.	14
IV KAPITULUA.- ZINEGOTZIEN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK.	15
16. artikulua.- Zinegotzien betebeharrak.	15
17. artikulua.- Interesen erregistroak.	16
18. artikulua.- Bateriaezintasunak.	17
19. artikulua.- Abstenitzea eta errekusatzea.	17
20. artikulua.- Erantzukizuna.	18
V. KAPITULUA.- TALDE POLITIKOAK.	18
21. artikulua.- Talde politikoak eratzea.	18
22. artikulua.- Talde politikoei atxikitzea.	19
23. artikulua.- Talde politikoen diru-esleipenak.	19
24. artikulua.- Udal-talde baliabide materialak.	20
25. artikulua.- Atxiki gabeko zinegotziak.	20
 II. TITULUA. UDALERRIAREN ERAKUNDE- ANTOLAMENDUA	 21
I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK	21
26. artikulua.- Araubide juridikoa eta gobernu irekia.	21
II. KAPITULUA.- UDAL-ORGANOAK.	21
27. artikulua.- Administrazio-organoak.	21
28. artikulua.- Kide anitzeko organoak.	21
29. artikulua.- Gobernu-organoak.	22




30. artikulua.- Organo osagarriak.	22
30 bis artikulua.- Agintaldia eta Udala eratzea	22
III. KAPITULUA.- GOBERNU-ORGANOAK.	23
31. artikulua.- Alkatea.	23
32. artikulua.- Alkateordetzak.	23
33. artikulua.- Alkatetzak eskumenak eskuordetzan ematea.	24
34. artikulua.- Tokiko Gobernu Batzarra.	25
35. artikulua.- Udalbatza	25
IV KAPITULUA.- ANTOLAMENDU OSAGARRIA.	25
36. artikulua.- Informazio-batzordeak.	25
37. artikulua.- Kontuen Batzorde Berezia.	26
38. artikulua.- Bozera maileen Batzarra.	27
39. artikulua.- Kontseilu sektorialak.	27
40. artikulua.- Lantaldeak.	28
 III. TITULUA KIDE ANITZEKO ORGANOEN FUNTZIONAMENDUA.	 28
I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.	28
41. artikulua.- Araubide juridikoa eta gobernu irekia.	28
42. artikulua.- Urrutiko bilkurak.	28
43. artikulua.- Euskararen erabilera.	29
II. KAPITULUA.- OSOKO BILKURAREN FUNTZIONAMENDUA.	29
44. artikulua.- Bilkurak egiteko tokia.	29
45. artikulua.- Bilkura-motak.	29
46. artikulua.- Deialdia.	30
47. artikulua.- Gai-zerrenda.	30
48. artikulua.- Osoko Bilkura eratzea.	31
49. artikulua.- Egintza-batasunaren printzipioa.	31
50. artikulua.- Bilkura gauzatzea.	31
51. artikulua.- Agirien eta esku-hartzeen definizioak.	32
52. artikulua.- Eztabaidak.	34
53. artikulua.- Bilkuretako ordena.	35
54. artikulua.- Bozketak.	36
55. artikulua.- Erabakiak hartzea.	36
56. artikulua.- Mozioak eta galde-eskeak.	37
56 bis artikulua.- Zuzenketak aurkezteko eskubidearen bermea eta onartzeko baldintzak	38
57. artikulua.- Agerraldiak.	38
58. artikulua.- Bilkuren publizitatea.	39
59. artikulua.- Aktak / Ikus-entzunezko aktak.	39
III. KAPITULUA.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN FUNTZIONAMENDUA.	40
60. artikulua.- Xedapen orokorrak.	40
61. artikulua.- Bilkura-motak.	40
62. artikulua.- Eztabaidatze-bilkurak eta erabakitze-bilkurak.	41
63. artikulua.- Deialdia.	41
64. artikulua.- Gobernu-batzarra eratzea.	41
65. artikulua.- Erabakiak hartzea.	41
66. artikulua.- Bilkuren publizitatea.	41
67. artikulua.- Gobernu-batzarraren aktak.	42



IV KAPITULUA.- INFORMAZIO-BATZORDEEN FUNTZIONAMENDUA	42
68. artikulua.- Xedapen orokorrak.	42
69. artikulua.- Bilkura-motak.	43
70. artikulua.- Deialdia.	43
71. artikulua.- Informazio-batzordea eratzea.	43
72. artikulua.- Erabakiak hartzea.	44
73. artikulua.- Bozketak.	44
74. artikulua.- Bilkuren publizitatea.	44
75. artikulua.- Informazio-batzordeen aktak.	44
IV. TITULUA. UDAL POLITIKA PUBLIKOEN EZARTZE TEKNIKOA	45
I. KAPITULUA.- GOBERNUAREN JARDUN- EREMU EDO -ARLOAK.	45
76. artikulua.- Zedarritzea.	45
77. artikulua.- Administrazio-antolamenduaren eta zuzendaritza-egituren arloko eskumenak.	45
78. artikulua.- Zuzendaritza publikoa.	46
79. artikulua.- Gobernu-plana.	46
80. artikulua.- Udal gobernu-plana prestatzea eta onartzea.	47
81. artikulua.- Erakunde-eskumenen eta kudeaketaren arloko prestakuntza.	47
82. artikulua.- Zuzendaritza Kontseilua.	47
83. artikulua.- Zuzendaritza Kontseiluaren xedeak eta helburuak.	47
84. artikulua.- Zuzendaritza Kontseiluaren osaera.	48
V. TITULUA . UDALAREN ARAU-SISTEMA ETA XEDAPEN OROKORRAK PRESTATZEA	48
I. KAPITULUA.- UDALAREN ARAU-SISTEMA.	48
85. artikulua.- Udalaren arau-sistema.	48
86. artikulua.- Udalaren arau-xedapenen tipologia.	48
87. artikulua.- Erregelamendu organikoak eta izaera organikoko arauak.	48
88. artikulua.- Erregelamenduak.	49
89. artikulua.- Ordenantzak.	49
90. artikulua.- Alkatetzaren arau-izaerako dekretoak eta jarraibideak.	49
91. artikulua.- Alkatetzaren bandoak.	49
92. artikulua.- Ordenantza eta erregelamenduetan aldaketa puntualak egiteko gaitasuna ematea.	50
II KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK PRESTATZEA.	50
93. artikulua.- Xedea.	50
94. artikulua.- Urteko araugintza-plana.	50
95. artikulua.- Arauketa egokiaren printzipioak.	51
96. artikulua.- Arauen publizitatea eta gardentasuna.	52
97. artikulua.- Araudiaren ebaluazioa eta indarrean den araudia arauketa egokiaren printzipioetara egokitzea.	52
98. artikulua.- Araudia arauketa egokiaren printzipioetara egokitzeari buruzko ebaluazio-txostena.	52
III. KAPITULUA.- PROZEDURAK.	53
99. artikulua.- Proiektu prestatu aurreko prozedura.	53
100. artikulua.- Izapidetzeko, proiektuarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.	54
101. artikulua.- Proiektua izapidetzea.	54



102. artikulua.- Alkatetzaren arautze-ahalarekin lotutako galdeketa publikoa.	55
103. artikulua.- Entzunaldia emateko eta jendaurrean jartzeko izapideak.	55
104. artikuluan.- Legez aitortutako erakunde eta elkarteak.	55
105. artikulua.- Galdeketa publikoa udal-aurrekontuetan.	55
106. artikulua.- Aurrekontuak prestatzeko eta onartzeko prozedura.	55
107. artikulua.- Aldez aurreko galdeketa eta ordenantza fiskalak prestatzeko eta onartzeko prozedura.	57
108. artikulua.- Hiri-plangintza eta -antolamenduari buruzko araudia prestatzeko eta onartzeko prozedura.	57
109. artikulua.- Plangintza sektorialeko edo giza baliabideen arloko planak edo beste tresna batzuk prestatzeko eta onartzeko prozedura.	57
110. artikulua.- Arauak prestatzeko prozedura eta genero-inpaktuari buruzko ebaluazioa.	57
111. artikulua.- Arauak prestatzeko prozedura eta euskararen normalizazioaren gaineko inpaktuari buruzko ebaluazioa.	58
VI. TITULUA. UDAL-ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETA, EKIMEN EKONOMIKOA ETA ZERBITZU-KARTAK	58
I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.	58
112. artikulua.- Araubide juridikoa.	58
113. artikulua.- Aplikazio-eremua.	58
II. KAPITULUA.- UDAL-ZERBITZU PUBLIKOAK.	58
114. artikulua.-Printzipio orokorrak.	58
115. artikulua.- Kudeaketa-erak.	59
116. artikulua.- Kudeaketa-era hautatzea.	59
117. artikulua.- Baliabide propioa eta zerbitzu teknikoa.	60
118. artikulua.- Administrazio-barneko hitzarmenak.	60
119. artikulua.- Zeharkako kudeaketa eta hizkuntza-eskubideak.	60
120. artikulua.- monopolio-araubidea.	60
121. artikulua.- Nahitaez jasotzea edo erabiltzea.	61
122. artikulua.- Sozietate interlokalak.	61
III KAPITULUA.- UDALAREN EKIMEN EKONOMIKOA.	61
123. artikulua. Kontzeptua eta mugak.	61
124. artikulua.- Espedientea.	61
IV KAPITULUA.- KUDEAKETA PARTEKATUA: BITARTEKO ERAKUNDEAK ETA LANKIDETZA-TRESNAK.	61
125. artikulua.- Mankomunitateak eta beste elkarte-formula batzuk.	61
126. artikulua.- Partzuergoak.	62
127. artikulua.- Lankidetza-hitzarmenak.	63
128. artikulua.- Lurralde-lankidetzako sareak.	64
V. KAPITULUA: ZERBITZU-KARTAK.	64
129. artikulua.- Zerbitzu-kartak.	64
130. artikulua.- Zerbitzu-kartak onartzea.	64
131. artikulua.- Zerbitzu-kartak eta adierazle objektiboak.	65
132. artikulua.- Tokiko zerbitzu publikoen kalitatea.	65
133. artikulua.- Zerbitzu-karten edukia.	65
134. artikulua.- Zerbitzu-karten publizitatea.	65



II. LIBURUA. UDAL-GOBERNANTZA. ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ETA KONTU EMATEKO SISTEMA, ADMINISTRAZIO DIGITAL EDO ELEKTRONIKOA, GARDENTASUNA, ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA. 66

I. TITULUA. ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ETA KONTU EMATEKO SISTEMA 66


135. artikulua.- Udal-jardunaren balioak eta printzipioak.	66
136. artikulua.- Zuzentasun instituzionaleko sistema.	68
137. artikulua.- Jokabide-kodea.	68
138. artikulua.- Gobernu ona.	69
139. artikulua.- Beste Jokabide-Kode batzuei atxikipena.	69
140. artikulua.- Kodeari banaka atxikitzea.	69
141. artikulua.- Jokabide-kodea zuzendaritza- kideengana, Udaleko goi-kargudunengana eta behin-behineko langileengana hedatzea.	69
142. artikulua.- Etika- eta jokabide-kodea: udal-enplegu publikoa eta sektore publiko instituzionala osatzen duten Udalaren mendeko edo hari lotutako edo atxikitako erakundeen enplegua.	70
143. artikulua.- Legeetan ezarritako jarduera- eta jokabide-printzipioak.	70

II. TITULUA. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA 70


144. artikulua.- Xedapen orokorrak.	70
145. artikulua.- Printzipioak.	71
146. artikulua.- Organo eskudunak.	72
147. artikulua.- Izapide eta prozedurei buruzko eskuliburua.	72
148. artikulua.- Bitarteko elektronikoen erabilerarako laguntza.	73
149. artikulua.- Enplegatu publikoen komunikazioak eta prestakuntza.	73
150. artikulua.- Egoitza elektronikoa.	73
151. artikulua.- Erregistro elektronikoa.	73
152. artikulua.- Udal-administrazioaren identifikazioa eta izenpe elektronikoa.	74
153. artikulua.- Herritarren identifikazioa eta izenpe elektronikoa.	74
154. artikulua.- Agirien artxibo elektronikoa.	74
155. artikulua.- Administrazio-prozedura elektronikoa.	75
156. artikulua.- Kontratazio elektronikoa.	75

III. TITULUA. UDAL-JARDUERA PUBLIKOAREN GARDENTASUNA. 75


157. artikulua.- Gardentasun-printzipioa.	75
158. artikulua.- Gardentasunaren xedea.	75
159. artikulua.- Gardentasunaren arauketa.	76
160. artikulua.- Udal-gardentasunaren alderdiak.	76
161. artikulua.- Gardentasuna-publizitate aktiboa.	76
162. artikulua.- Informazioa publikoa eskuratzeko eskubidea.	76
163. artikulua.- Datu irekiak.	77
164. artikulua.- Elkarlaneko gardentasuna.	77
165. artikulua.- Antolamendu barneko gardentasuna.	77
166. artikulua.- Gardentasun-arloko erantzukizun politikoak.	77
167. artikulua.- Gardentasunaren antolamendua Udalean.	77
168. artikulua.- Erantzukizuna sektore publiko instituzionalean.	78
169. artikulua.- Udal-gardentasunaren jarraipena.	78
170. artikulua.- Gardentasun-ataria.	79



IV TITULUA. HERRITARREN PARTE-HARTZEA	79
I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.	79
171. artikulua.- Xedea.	79
172. artikulua.- Aplikazio-eremua.	79
173. artikulua.- Helburuak.	80
174. artikulua.- Parte hartzeko erak aukeratzeko askatasuna.	81
175. artikulua.- Arrazoitze betebeharra.	81
176. artikulua.- Herritarren proposamenak eta ekimenak.	81
177. artikulua.- Herritarrek parte hartzeko prozesuen programazioa, jarraipena eta ebaluazioa.	82
178. artikulua.- Parte hartzeko bide, tresna eta prozesuak.	82
II KAPITULUA.- UDALAREN ERABAKI ETA ARAU-XEDAPENAK PRESTATZEKO PROZESUETAN PARTE-HARTZEA.	83
179. artikulua.- Udalaren arau-xedapenak prestatzeko prozesuan parte hartzeko sustapen-ekimena.	83
180. artikulua.- Erabaki, ordenantza eta erregelamenduen proiektuak aurkezteko herri-ekimena.	84
181. artikulua.- Herritarrek Udalaren arau- xedapenak prestatzen parte hartzeko beste era batzuk.	84
182. artikulua.- Herritarrek udal- aurrekontuetan gastu publikoko konpromisoak identifikatzen parte hartzea.	84
III KAPITULUA.- PARTE HARTZEKO EZTABAIDA-PROZESUAK.	85
183. artikulua.- Herritarrek parte hartzeko eztabaida-prozesuak.	85
184. artikulua.- Herritarrek parte hartzeko eztabaida-prozesuen deialdia eta sustapena.	85
IV. KAPITULUA.- HERRITAR-GALDEKETAK.	86
1. ATALA.- ARAU OROKORRAK.	86
185. artikulua.- Herritar-galdeketa.	86
186. artikulua.- Herritar-galdeketa motak.	86
187. artikulua.- Herritar-galdeketa modalitateen eremua eta izaera.	87
188. artikulua.- Herritar-galdeketa araubide juridikoa.	87
189. artikulua.- Galdeketa deitzea eta galdeketa egiteko aldi baliogabeak.	87
190. artikulua.- Herritar-galdeketa deialdia.	87
191. artikulua.- Mugapenak.	88
2. ATALA.- GALDEKETA-MODALITATE BAKOITZAREN ARAUBIDE JURIDIKO OROKORRA.	88
192. artikulua.- Herri-galdeketa.	88
193. artikulua.- Sektoreko edo lurralde-eremu mugatueta galdeketa.	88
194. artikulua.- Politika edo erabaki publikoei buruzko galdeketa irekiak.	89
195. artikulua.- Galdeketa sustatzeko ekimen instituzionala.	90
196. artikulua.- Galdeketa-ekimen instituzionala erabiltzeko baldintza formalak.	90
197. artikulua.- Ekimen instituzionala onartzea.	91
198. artikulua.- Galdeketa sustatzeko herritar-ekimena.	91
199. artikulua.- Prozedurazko beste arau batzuk herritar-galdeketa ekimenak izapidetzeko.	91
3. ATALA.- GALDEKETA-PROZESUA ETA BOZKETA-SISTEMA.	91
200. artikulua.- Galdeketa deialdia.	91
4. ATALA.- BOTO-SISTEMA ETA BERMEAK.	92



201. artikulua.- Informazio-kanpaina, espazioak eta baliabide materialak. Bozkatzeko sistemak eta erak.	92
202. artikulua.- Berme-sistemaren kontzeptua.	92
203. artikulua.- Kontrol-batzordea.	92
204. artikulua.- Kontrol-batzordearen eginkizunak.	93
V. KAPITULUA- HERRITARREN PARTE- HARTZEAREN ARLOKO BESTE XEDAPEN BATZUK.	93
205. artikulua.- Parte-hartze organoak.	93
206. artikulua.- Gardentasun-ataria edo webgunea eta herritarren parte-hartzea.	93
LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.	93
AZKEN XEDAPENA	93
XEDAPEN INDARGABETZAILEA	94
I. ERANSKINA	94



ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.

Erregelamendu organiko honen xedea da hauek arautzea:

- a) Udal-ordezkarien estatutua, udal-organoen antolamendu eta funtzionamenduko araubidea, udal arau-sistema, eta udal-zerbitzu publikoen kudeaketa.
- b) Udal-gobernantza, honako arlo hauek barnean hartuta, besteak beste: zuzentasun instituzionaleko eta kontu-emateko sistema, administrazio digital edo elektronikoaren araubide aplikagarria, eta gardentasuna zein herritarren parte-hartzea.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua.

- 1.- Erregelamendu organiko hau, udal eta haren sektore publiko instituzionalak eraturiko udal-administrazio honi izango zaio aplikagarria; erregelamendu honetako I eranskinean daude zerrendaturik sektore publiko instituzional hori osatzen duten lotutako, mendeko zein atxikitako erakundeak.
- 2.- Berariaz hala xedatzen den tituluetan aplikatuko zaio erregelamendu hau sektore publiko instituzionalari eta, betiere, eragozpena izan gabe dagozkien erakundeetako organo eskudunek –horren ondoretarako– hartu beharko dituzten erabakietarako.
- 3.- Udal-sektore publiko instituzionala osatzen duen edozein erakunde sortzea, eraldatzea, fusionatzea edo azkentzea Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Inbentarioan, inskribatuko da, sektore publikoaren araubidea arautzen duen legedian xedaturik dagoen moduan, eta horretarako garatutako erregelamenduen arabera.
- 4.- I. Eranskinean zerrendaturiko datuak Alkatetzaren ebazpen bidez eguneratuko dira, hura osatzen duen edozein erakunde sortu, eraldatu, fusionatu edo azkendu delako eguneratu behar direnean.

3. artikulua.- Arauen lehentasuna, interpretazioa eta garapena.


- 1.- Lehentasunez aplikatuko dira erregelamendu honetako manuak, baldin nahitaez bete beharreko lege-mailako beste xedapen batzuen kontrakoak ez badira.
- 2.- Alkateari dagokio, Bozeramaileen Batzarrari aurretiagaz entzun eta gero, erregelamendu hau interpretatzeko ahalmena.
- 3.- Erregelamendu hau garatu ahalgo da Udaleko Osoko Bilkurak onartutako berariazko xedapenen bidez zein Alkatetza-Udalburutzak emandako jarraibideen bidez, dagokion organoaren eskumen-eremuaren arabera.

I.LIBURUA. UDAL-ORDEZKARIEN ESTATUTUA, ANTOLAMENDUA, FUNTZIONAMENDUA ETA ZERBITZUEN KUDEAKETA

I.TITULUA. UDAL-ORDEZKARIEN ESTATUTUA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.

4. artikulua.- Araubide juridikoa.



EAEko udal-ordezkarien araubide juridikoa toki- araubideari buruzko oinarrizko legedian, hauteskunde-legedian, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean, erregelamendu organiko honetan nahiz berau garatzeko ematen diren erabaki eta ebazpenetan ezarritakoa da.

II. KAPITULUA.- ZINEGOTZI-IZAERA HARTZEA ETA GALTZEA.

5. artikulua.- Zinegotzi-izaera hartzea eta galtzea.

1.- Udaleko kide-kopurua, haiek hautatzeko prozedura, agintaldiaren iraupena, eta hautsezintasuneko eta bateraezintasuneko kasuak hauteskunde-legedian nahiz aplikagarria den gainerako legedian xedaturik dagoenaren arabera arautuko dira.

2.- Honako hauek izango dira zinegotzi-izaera galtzeko kausak:

a) Erabaki judizial irmo bat, zinegotzi hautatzea edo aldarrikatzea deuseztatzen duena.

b) Heriotza edo erabaki judizial irmo baten bidez deklaraturako ezgaitasuna.

c) Agintaldia azkentzea, hori eragozpena izan gabe jardunean jarraitzeko, administrazio arrunterako soilik, ondorengoek kargua hartu arte.

d) Karguari uko egitea, Udaleko Udaltzari zuzendu beharreko idazki baten bidez, Udaltzariak haren berri izan eta aintzat hartu arte ondorerik izan gabe.

e) Bateraezintasuna, hauteskunde-legedian ezarritako kasu eta baldintzetan.

f) Kargu publikoa izateko ezgaitasun zigorra dakarren lotutako edozein sententzia judizialean kondenatua izatea.

g) Legeetan aurreikusitako gainerako kausak.

3.- Zinegotzi-izaera hartzeko, alde aurreko baldintza izango da dagokion hauteskunde- batzordearen egiaztagutuna eskuratzea; Udaleko Idazkaritzan aurkeztu beharko da.

4.- Ez da izango kargua galtzeko kausa, ez bilkuretara ez joatea, ez auzotasuna galtzea, ez zinegotzia atxikita dagokion alderdiko, hauteskunde-koalizioko edo hautesle-elkarteko kide izateari uztea.

III. KAPITULUA.- ZINEGOTZIEN ESKUBIDEAK.


6. artikulua.- Zinegotzien eskubideak.

1.-Zinegotziek eskubide hauek dituzte, besteak beste:

a) Osoko Bilkurara eta dauden kide anitzeko organoen bilkuretara joatea.

b) Udal-aurrekontuaren kontura, ordainsariak, bertaratze-sariak eta kalte-ordainak jasotzea, erregelamendu honetan nahiz berau garatzeko hartzen diren erabakietan xedaturikoaren arabera.

c) Laguntza juridikoa jasotzea, erregelamendu honetan xedaturik dagoen moduan.



d) Udal-zerbitzuen esku dauden eta beren eginkizunak betetzeko datu eta informazio guztiak eskuratzea, erregelamendu honetan nahiz datuen babesari buruzko araudian xedaturik dagoenaren arabera.

e) Elkarrekin eta Udaleko organoekin bitarteko elektronikoak baliatuz komunikatzea. Horretarako, udal-zerbitzuek beharrezko laguntza tekniko eta prestakuntza eman beharko dute, eskubide hori ongi gauzatu ahal izateko.

f) Araudiak zehaztutako moduan udalean nahi adina ekimen tarteratu, izapidetu eta eztabaidara eramateko izateko eskubidea.

g) Zinegotzi izaeragatik dagokion trataera eta ordezkaritza jasotzeko eskubidea.

h) Indarrean den legediak aitortutako beste eskubide oro.

2.- Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko, zinegotziek amatasun- edo aitatasun-atsedenaldi bat izango dute. Atsedenaldi horrek araudi orokorrean baimen horietarako ezarritako iraupena izango du, eta adierazitako denboran udalbatzako organoen bilkuretarantz ez joateko eskubidea izango dute. Beren botoa beren udal-talde politikoaren bozeramailearen edo, hala badagokio, beste zinegotzi baten esku utzi ahal izango dute.

3.- Botoa osoko bilkuretan soilik eskuordetu ahal izango da, osoko bilkuraren erabakipean jarri behar diren gaiak aztertzeko, horiei buruzko txostenak edo kontsultak egiteko batzordeetan, eta Tokiko Gobernu Batzarraren eta erakunde autonomoetako kontseilu errektoreen bilkuretan.

4.- Eskuordetza idatziz eta bilkura bakoitzerako egin beharko da.

7. artikulua.- Laguntza juridikoa.

1.- Udalak beharrezko laguntza juridikoa eta ordezkaritza emango dizkie hala eskatzen duten zinegotziei, beren defentsarako akzio judizialak egikaritzeko, kargua betetzearekin zuzenean lotutako jardueraren batzuegatik auzia jartzen dietenean.

2.- Alkateak erabakiko ditu laguntza horren nondik norakoak ebazpen arrazoitu batean, txosten juridikoaren ondorenderrigorrezko idazkariaren txostenaren ondoren.


3.- Zigor-epai irmo baten bidez kondenaturiko zinegotziek beren defentsa eta ordezkaritzarako eragindako gastuak ordaindu beharko dituzte, eta Udalak aurreraturiko zenbatekoak itzuli, halakorik aurreratu denean. Inola ere ez du Udalak bere gain hartuko ezein prozesuren kostuak ordaintzea, epaia zinegotziaren aurkakoa denean.

8. artikulua.- Arduraldi-araubidea eta ordainsariak.

1.- Artikulu honetan ezarrita dagoenaren ondoretarako, gobernu-taldetzat jotzen da alkatea kide den udal-taldeak eta alkateordetzak eta/edo zinegotzi-ordezkaritzak dituzten udal-taldeek osaturikoa. Ondorioz, gainerako udal-taldeek oposizioa eratzten dute.

2. Udalbatzari dagokio erabakitzea, alkatearen proposamenez, Udaleko zein kargu bete ahalko dira arduraldi eskusiboko edo partzialeko araubidean eta zer ordainsari izango dituzten, honako arau hauen arabera:

a) Alkateak badu eskubidea, berariaz uko egin ezean, kargu hori arduraldi eskusiboko araubidean betetzeko, dagokion ordainsaria jasotzeko eta, hori dela eta, Gizarte Segurantzaren inskribaturik egoteko. Eskubide hori ezin zaio eskualdatu ezein zinegotziri.



b) Nolanahi ere, bermatu egingo da udal talde guztietako zinegotzien arduraldi eskusiboaren eskubidea.

Eskubide hori aitortzeko eskubidea idatziz egingo zaio Alkatetzari, dagokion proposamena presta dezan eta egitekoa den hurren-hurrengo osoko bilkuran edo horretarako berariaz antolatutako osoko bilkura batean azter dadin.

c) Arduraldi partzialeko kasuetan, halako karguei esleituriko ordainsariak jasotzeko behar den gutxieneko arduraldia ezarri beharko da.

d) Inola ere ezingo dira izan txikiagoak gobernu-taldearen arduraldi eskusibo eta partzialen guztizko ehunekoa eta dagozkien ordainsariak, oposizioko zinegotzienak baino.

e) Dedikazioak urtero eguneratuko dira udaleko langileei aplikatzen zaizkien soldata- hobekuntzak aintzat hartuta.

3.- Udal-hauteskundeen ondoriozko agintaldia bukatzen denean, kargua hartu berri duen alkateak, berariaz uko egin ezean, aurreko alkatearen arduraldi eskusiboko araubidea eta dagozkion ordainsariak izango ditu, osoko bilkuran horri dagokion geroagoko erabakia hartu bitartean.

Halakoetan, araubide bera aplikatu ahalko da Alkatetzaren dekretu bidez ezarritako zinegotzi-ordezkaritzei dagokienez, agintaldia bukatu arte arduraldi eskusibo edo partzialeko araubidean bete direnean.

4.- Arduraldi eskusiboa aitortzeak eskatuko du karguaren berezko zereginez bete-betean arduratzeko, hori eragozpena izan gabe dagokion legedian ezarritako bateraezintasun- araubidetik salbuetsirik dauden jardueretarako.

5.- Arduraldi partzialak eskatuko du Udalbatzak berariaz deklara dezala beste jarduera batzuekiko bateragarritasuna, beti ere Kode Etikoaren arabera, eta norberaren lanpostuan, lanbide-jardueran edo enpresa- jardueran ohikoa eta arrunta den lanalditik kanpo beteko da arduraldi hori.


6.- Arduraldi eskusibo edo partzialeko araubidea duten udal-ordezkariek lanerako ezintasun iragankorreko egoeran daudenean, dauden kide anitzeko organoen bilkuretan noizbehinka, ohikotasunik gabe, parte hartu ahalko dute, baldin parte-hartze hori bateragarria bada ezintasun-egoera hori sortzen duen kausarekin eta horri buruz emandako mediku-aginduekin.

7.- Agintaldi bakoitzaren hasieran egiten den ezohiko bilkuran, arduraldi-erregimena eskatzen duten karguen kopurua eta dagozkien ordainsariak onartzeko, honako prozedura honi jarraituko zaio:

Bozera maileen Batzorderako deialdi formala eta proposamena udal-taldeei aurkeztea osoko bilkura egin baino 5 egun baliodun lehenago egingo da. Bilkura horretan gaia eztabaidatu eta erabakiko da. Proposamenean zenbateko absolutuak adierazi beharko dira, hargatik eragotzi gabe zenbateko bakoitza proposatzeko erabili den kalkulu-formula gehitu nahi izatea.

Udal-taldeen 3 egun balioduneko epea izango dute proposamenak aurkezteko, Bozera maileen Batzordea bildu eta hurrengo egunetik hasita. Zenbateko absolutuak adierazi beharko dira (ordainsaria eurotan, eta ez beste ordainsari bati dagokion ehuneko gisa), hargatik eragotzi gabe zenbateko bakoitza proposatzeko erabili den kalkulu-formula gehitu nahi izatea. Horrela, gobernu-taldearen proposamena eta proposamen alternatiboak teknikoki eta ekonomikoki baloratu ahal izango dira, diru-unitateei dagokienez. Paragrafo honetan xedatutakoa errespetatzen ez duten proposamenak ez dira onartuko.

Proposamenak teknikoki baloratu beharko dira dagokion osoko bilkuraren deialdia bidali aurretik, eta, horretarako, gutxienez 3 egun balioduneko epea izango dute.



Osoko bilkurarako deialdia Bozeramaileen Batzordea egiten denetik gutxienez hiru egun balioduneko epean bidali beharko da.

9. artikulua.- Kalte-ordainak.

Udal-ordezkarik guztiek kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango dute, beren kargua betetzean benetan eragindako gastuengatik, administrazio publikoetan orokorrean aplikatzekoak diren arauen arabera, gastu horiek aldeztu aurretik agiri bidez justifikaturik, Udaleko Osoko Bilkurak ezarritako moduan eta mugekin.

10. artikulua.- Bertaratze-sariak.

1.- Arduraldi eskusiboa edo partziala ez duten zinegotzietatik soilik izango dute eskubidea bertaratzeengatik ordainketak jasotzeko.

2.- Osoko Bilkurak ezarriko du bertaratze- sariaren zenbatekoa. Osagai berbera izango da zinegotzi guztientzat. Horrekin, osoko bilkuretarik zein zinegotzietatik dauden kide anitzeko organoen bileretara, Bozeramaileen Batzarra barne, benetan joateagatik ordainduko da.

3.- Osoko Bilkurak zehaztu ahalko du zinegotzi bakoitzak urtean gehienez ere zenbat jaso ahalko duen bertaratzeengatik, eta bertaratze- sari horiek eguneratu edo aldatzeko irizpideak ezarri, hala dagokionean.

4.- Bilkura eta bileretara benetan bertaratzea egiaztatzeko modua Alkatetzaren ebazpen bidez arautuko da.

11. artikulua.- Aseguruak eta konpentsazioak.

1.- Udalak bizi- eta istripu-aseguru baten poliza hitzartu ahalko du udal ordezkariak-karguak betetzen dituztenentzat, udal- administrazioaren zerbitzura diharduen pertsonalarentzat ezarritakoaren antzeko estaldurarekin.

2.- Lanerako ezintasun iragankorreko kasuetan, kargu arduraldi eskusibo edo partzialeko araubidean betetzen duten udal- ordezkarietatik eskubidea izango dute konpentsazio ekonomiko bat jasotzeko, beren ordainsariaren ehuneko 100a osatu arte, erakundeko pertsonalaren baldintza beretan.


12. artikulua.- Arduraldi, ordainsari eta bertaratze-sariaren mugak.

1.- Arduraldi eskusiboa izango duten kargu publikodunen gehieneko kopurua izango da toki-araubideari buruzko oinarritzko legedian edo aplikagarria den araudian ezarritako dagoena, halakorik ezartzen bada.

2.- Udal ordezkariak-karguak betetzen dituztenek jaso ditzaketan ordainsariaren eta bertaratze-sariaren guztizko gehieneko muga Estatuko oinarritzko legeria garatzen duen foru-araudian zehaztutakoa izango da.

13. artikulua.- Informazioa jasotzeko eskubidea oro har erabiltzea.

1.- Zinegotzietatik eskubidea dute alkatearengandik udal-zerbitzuen esku dauden eta zinegotzien eginkizunak aurrera eramateko beharrezkoak diren datu eta informazio guztiak jasotzeko.



2.- Informazioa eskuratzeko eskabidea administrazio-isiltasunez baietsitzat emango da, baldin Alkatetzak ez badu ematen berariazko ebazpen bat bost egun naturaleko epean, eskabidearen egunetik hasita.

3.- Informazioa ukatzea eta informaziora sartzea mugatzea arrazoitu egin beharko da beti, eta idatziz.

14. artikulua.- Informazioa zuzenean eskuratzeko.

1.- Udal-zerbitzuek, aldez aurretik idatzizko eskabidea eginik, beren esku duten informazioa zuzenean eman behar diete zinegotziei, azken horiek baimena dutela egiaztatu beharrik gabe, honako kasu hauetan:

a) Ordezkaritzak edo kudeaketako ardurak dituzten zinegotziek halakoen berezko informazioa eskuratzen dutenean.

b) Zinegotzi horiek dauden kide anitzeko organoetan aztertzeakoak diren gaiei lotutako informazioa eta dokumentazioa nahiz edozein udal-organok emandako ebazpen eta hartutako erabakiak eskuratzen direnean.

c) Herritarrek libreki eskura dezaketen Udalaren informazioa eta dokumentazioa eskuratzen denean.

2.- Udal-webgunean edo, gardentasunari buruzko legedian ezarritako betebeharrak direla eta, udal-informazioa jaso behar duen webgune instituzional batean argitaraturiko informazioa denean, informazioa eskuratzeko eskabidea beteko da egoera horren berri emanez eta udal-administrazioak zehaztuz zein den berariazko bidea edo esteka egokia eskaturiko informazio edo dokumentazio hori eskuratzeko.

15. artikulua.- Informazioa jasotzeko eskubidea erabiltzeko arauak.

1.- Zinegotziek elkarrekin eta Udaleko organoekin bitarteko elektronikoak baliatuz komunikatzeko eskubidea eta betebeharra dute. Horretarako, udal-zerbitzuek beharrezko laguntza teknikoa eta prestakuntza eman beharko dute, eskubide eta betebeharrak horiek ongi gauzatu ahal izateko.


2.- Zinegotzi bakoitzak posta elektronikoko kontu korporatibo bat izango du.

3.- Komunikazio eta argitalpen elektronikoen barne-sistema bat egongo da, kide anitzeko organoen aktak eta bilkura bakoitzaren gai-zerrenda eta haren espedienteak eskuratzeko errazteko, bai eta partekatzea erabaki den edo zinegotzi edo udal-talde politiko batek hala eskaturik, ematea baimendu den beste edozein informazio eskuratzeko ere. Informazioa eskuratzeko mugaturik egongo da agiri horiek irakurtzera eta inprimatzera, inola ere aukerarik egon gabe halako bakoitzaren testuaren edukia aldatzeko.

4.- Espedienteen karpeta orokor bat edo antzeko tresna bat egongo da, eta halakoan, inolako mugapenik gabe, udal-talde guztiak eta, orobat, atxiki gabeko zinegotziak sartu ahalko dira; hala, haiek guztiek ikusi ahalko dute han sartzen den espedientei lotutako informazioa.

5.- Espedienteen karpeta partikular bat edo antzeko tresna bat egongo da, eta halakoaren bidez udal-talde politiko eta atxiki gabeko zinegotzi bakoitzari eskuratu zaio aldez aurretik eskatu duen informazioa. Informazio hori konfidentziala izango da, eta informazioa isilean edukitzeko betebeharra aintzat hartuz erabiliko da. Hertsiki eginkizunak eta zereginak betetzeko soil-soilik erabili ahalko da, eta informazio hori aipatutako karpeta titularra den talde politikoak edo, bestela, atxiki gabeko zinegotziak baino ezingo du eskuratu.

6.- Talde politikoentzako barneko iragarki-ohol bat egongo da, eta han emango dira argitara haien intereseko zirkular, abisu edo iragarki guztiak. Kide bakoitza sartu ahalko da bertan, esleitu zaion gakoaren bidez.



7.- Zinegotziek bitarteko elektronikoen bidez ezin aurki daitekeen informazioa eta dokumentazioa eskuratu nahi dutenean, arau hauei jarraituko zaie:

a) Edozein espediente edo aurrekari dokumentalen kontsulta orokorra egin ahalko da edo artxibo orokorrean edo halakoak dauden lokaletan, zinegotziari haiek berak edo kopia bat eskuratzuz, bulegoan edo udalkideei erreserbatutako aretoetan aztertu ahal izan ditzan.

b) Espediente, liburu edo agiriak inola ere ezingo dira atera udaletxetik edo dagozkien udal-lokal eta -bulegoetatik.

c) Bilkura batean eztabaidatzekoak diren espedienteak deialdiaz geroztik ikusgai dauden tokian soilik aztertu ahalko dira.

d) Zinegotziak kopiak emateko eskubidea izango dute herritarrek informazioa libreki eskura dezaketen lehen aipaturiko kasuetan eta Alkatetzak idatziz eta modu justifikatuan debekatzen ez badu.

e) Informazioa jasotzeko eskubidea erabiltzeak ezingo du berekin ekarri administrazioaren eraginkortasunaren printzipioa kaltetzea; hala, bada, eskubide hori udal-zerbitzuen lan- araubidearekin harmonizatu beharko da. Bereiziki, ezingo da egin informazio-eskabide generikorik eta bereizkuntzarik gabekorik, eta eskabide hori jaso duen udal-arloak bereizkuntzarik gabekoa dela edo beraren funtzionamendu normala oztopatzeko moduko konplexutasuna duela irizten badio, hala jasota utzi beharko du ebazpen arrazoitu baten bidez, bost egun naturaleko epean, gehienez, eskabidea idatziz egiten denetik hasita.

8.- Informazioa eskuratzeko eskubidea gauzatzeko -eginkizun publikoak betetzeko oinarritzko eskubidearen eraginkortasunaren alderdi substantibo gisa- zinegotziek duten bide hori erabiltzeak eragotzi egingo du xede edo helburu bererako eta pertsona berak gardentasunari buruz indarrean den legedian ezarritako informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzea.

9.- Betiere, apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB), Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege organikoan eta hura garatzeko araudian ezarritako bermeen arabera jokatu beharko da.

IV KAPITULUA.- ZINEGOTZIEN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK.


16. artikulua.- Zinegotzien betebeharrak.

1.- Zinegotziek osoko bilkuretara eta dauden kide anitzeko organoen bilkuretara joateko betebeharra dute, hori eragozten duen arrazoi zuzenen bat egon ezean. Arrazoi hori behar bezalako aurrerapenez jakinarazi beharko zaio dena delako organoaren buruari. Osoko Bilkuraren erabaki bidez eta aldeztu aurretik dagokion diziplinazko espedienteak izapidetuta, Alkatetzak dagozkion zehapenak ezartzea erabaki ahalko du, betebehar hori ez betetzeagatik.

2.- Zinegotziek ezingo dute beren izaera aldarrikatu edo erabili merkataritzako, industriako edo lanbideko ezein jarduera gauzatzeko.

3.- Zinegotziek bateraezintasunen eta ondasunen aitorpenak -erregelamendu honetako 18. artikuluan arautuak- egiteko betebeharra dute, eta bateraezintasunei nahiz interes-gatazkei buruz indarrean diren arauak betetzeko betebeharra; hala, aplikagarria den legedian ezarritako kausetako bat gertatzen denean, abstenitu egin beharko dute.

4.- Zinegotziek konfidentzialtasuna errespetatu beharko dute beren kargua betetzean eskuratzen duten informazioari dagokionez, eta isilpean gorde beharko dituzte argudiaketak, eztabaidak edo bozketak, edo beren



karguagatik ezaguturiko edozein informazio, bereziki pertsonen oinarrizko eskubideei doazkienean. Zuzeneko erantzuleak izango dute, hori betetzen ez badute.

5.- Udalak onarturiko jokabide-kodean arautzen diren balio edo printzipioak eta jokabide- edo jardute-arauak betetzeko betebeharra dute zinegotziek.

6.- Zinegotziek une oro gorde beharko dute jendetasun egokia, eta udal-organoen ordenari eta funtzionamenduari buruzko arauak errespetatu.

7.- Zinegotziek enplegatu publikoen jarduerari dagozkion inpartzialtasuna eta objektibitatea errespetatu behar dituzte eta, bereziki, udal espedienteen instrukzioari dagokionean. Hortaz, aipatutako instrukzio- eta aholkularitza-lanak egiten dituztenean, ez dute partzialtasuna iradoki dezaketen juizio-iritzirik edo adierazpenik egingo, hargatik eragotzi gabe, enplegatu publikoek, egitez edo ez-egitez, egin ditzaketen balizko delituen aurrean salaketa jartzeko duten eskubide/betebeharra egileen aurrean zein beharrezko laguntzaileen aurrean.

17. artikulua.- Interesen erregistroak.

1.- Zinegotzi guztiek aitorpenak egin behar dituzte balizko bateraezintasun-kausei eta diru- sarrera ematen dizkieten edo eman diezazkieketen jarduerari buruz, bai eta beren ondare-ondasunen aitorpena ere.

2.- Aitorpen horiek kargua hartu aurretik egingo dira, eta, orobat, ondasunen, jardueren eta bateraezintasun-kausen aldetik garrantzizko aldaketa bat gertatzen denean. Azken kasu horretan, hilabeteko epean egin beharko da aitorpena, egoera-aldaketa hori gertatu den egunetik hasita. Halaber, aitorpen horiek egin beharko dira zinegotzi-kargua uztean, agintaldiaren bukaera edo beste edozein kausa dela eta.

Era berean, erregelamendu organiko honetako 19.5 artikuluan xedaturik dagoenaren ondoretarako, udal-gobernuko arloetan erantzukizun exekutiboak izan dituzten zinegotziek agintaldia bukatu ondorengo bi urteetan aurkeztu beharko dute bateraezintasunei buruzko aitorpena.


3.- Udal-ordezkarien ondasun eta jarduerari buruzko aitorpenak Udalaren webgunean edo gardentasun-atarian argitaratuko dira, aplikagarria den gardentasunari buruzko araudiaren arabera Osoko Bilkurak hartutako erabakiek ezarritako edukiarekin eta moduan.

4.- Aitorpen horiek zaintzea eta kudeatzea Udaleko Idazkaritzari dagokio, eta interesen izaera publikoko erregistro hauetan inskribatuko dira:

a) Jardueren Erregistroa. Erregistro honetara gehitzen diren aitorpenek bateraezintasuna sor dezaketen kausak jasotzen dituzte, eta diru- sarrerak ematen dituzten edo eman ditzaketen jarduerak, edo ordezkartzeko edo eremu exekutiboko kargudunaren jardura pribatu edo publikoen eta Udalean bertan dituen erantzukizunen artean interes-gatazka nabari edo latente bat ekar dezaketenak.

b) Ondare Ondasunen Erregistroa. Erregistro honetara ondarezko ondasun eta eskubideei buruzko aitorpenak gehitzen dira, edotariko sozietateetako partaidetzak barne, halakoek partaidetza duten sozietateei buruzko informazioarekin nahiz errentaren, ondarearen eta, hala badagokio, sozietateen gaineko zergen likidazioei buruzko informazioarekin.

5.- Bi erregistroak publikoak dira. Zinegotziek erregistroan jasoriko dokumentazioa eskuratu ahalko dute, beren kargua betetzeko behar dutenean.



6.- Alkatetzak ebatziko ditu erregistroetako informazioa eskuratzeko eskabideak, bai eta Udaleko Idazkaritzak ziurtagiriak edo kopiak ematea ere, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko legedian nahiz aplikagarria den gainerako araudian xedaturik dagoenaren arabera.

7.- Alkatetzaren baimena ez da beharrezkoa izango, Udaleko bertako gobernu-organoen, udal-talde politikoen, organo judizialen edo fiskaltzaren eskabideak direnean. Halakoetan, dena delako aitorten-egileari eskabidearen berri emango zaio, jakinaren gainean egon dadin.

8.- Erregistro horietako informazioa eskuratzeko eskabideak kontsultaturiko datuen titularrari jakinaraziko zaizkio.

Erregistrora gehitzen diren aitorten edukia, bai eta, gardentasunari buruz indarrean den legediaren ildotik argitaratzen den edukia ere, Udaleko Osoko Bilkurak onartutako ereduaren arabera osatuko dira, kasu batean zein bestean.

18. artikulua.- Bateriaezintasunak.

1.- Zinegotziek une oro gorde beharko dituzte bateraezintasunari buruz indarrean diren arauak, bereziki, administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunei buruzko 53/1984 Legean ezarritakoak. Halaber, bateraezintasun-kausa izan litekeen edozein gertaera edo egoeraren berri emango diete organo eskudunei. Gerora sortutako kausei dagokienez, halakoak gehienez 15 laneguneko epean jakinarazi beharko dira, sortzen direnetik hasita.

2.- Alkateak edo, bestela, Bateriaezintasun Batzordeak, halakorik dagoenean, dena delako zinegotziari entzunaldia eman eta gero, zinegotzi bakoitzaren bateraezintasun-egoerari buruzko proposamenak aurkeztuko dizkio Udaleko Osoko Bilkurari, hamabost egun baliodunen epe batean, gehienez, zinegotzi- izaera erabat hartzen den egunaren biharamunetik edo bateraezintasunen ondoretarako eginiko aitorpenean edozein aldaketa gertatzean nahitaez egin beharreko jakinarazpenaren egunaren biharamunetik hasita.

3.- Bateriaezintasun-kausa gertatu eta Udaleko Osoko Bilkurak hura halakotzat deklaratu eta gero, kausa horretan erori den zinegotziak hamabost egun baliodunen epea izango du, bateraezintasuna jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, bateraezintasun-kausa eragin duen egoera formalki eta materialki uztea ala zinegotzia izateari uko egitea hautatzeko.


Epe horretan zehar, dagokion hautua egin arte, delako zinegotziak ezingo du ez jarduerarik egin, ez erabakirik hartu, zinegotzia izaten jarraitzea hautatu duela aurresuposatzen duenik.

4.- Aurreko zenbakian aipaturiko epea hauturik egin gabe igarotzen baldin bada, delako pertsonak zinegotzi izateari uko egin diola interpretatuko da, eta Osoko Bilkurak dagokion kargua hutsik geratu dela deklaratu beharko du. Halaber, horren berri eman beharko zaio hauteskunde-administrazioari, Hauteskunde Araubide Orokorriari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 182. Artikuluan xedaturik dagoenaren ondoretarako.

5.- Udal-gobernuko arloetan erantzukizun exekutiboak izan dituzten udal ordezkariak- kargudunei, haien agintaldia bukatu ondorengo bi urteetan TAOLEko 75.8 artikuluan. ezarritako jarduera pribatuak gauatzeko mugapenak aplikatuko zaizkio.

19. artikulua.- Abstenitzea eta errekusetzea.

1.- Legez ezarritako bateraezintasun-kausez gain, zinegotziek gai orotan abstenitu egin beharko dute argudiatzetik, bozkatzetik, erabakitzetik eta gauzatzetik, administrazio- prozedurari buruz, sektore publikoaren



arabide juridikoari buruz, kontratazio publikoari buruz edo berariazko arau aplikagarriak dituzten gainerako arloei buruz indarrean den legedian jasotako kausetako bat gertatzen denean.

2.- Abstenitzeko kausak dituzten zinegotziek jardun izanak ez du halabeharrez eta kasu guztietan eragingo halakoek esku hartu duten egintzen baliogabetasuna, baizik haien esku- hartzea erabakigarria izan denean soilik.

3.- Kausa horiek dituzten udalkideek abstenitzeko edo errekusatzeko kausetako bati lotutako gai oro argudiatzen, bozkatzeko, erabakitzen eta gauzatzen ari den lokaletik joan beharko dute.

4.- Interesdunek zinegotziak errekusatzeko sustatu ahalko dute, abstenitzeko kausetako bat modu arrazoituan gertatzen dela deritzotenean, eta legedian ezarritakoaren arabeko organo eskudunak ebatzi beharko du horren gainean.

5.- Halaber, zinegotziak abstenitzea egokituko da, Udalak onarturiko jokabide-kodea aplikatzearen ondorioz, interes-gatazka nabariak edo latenteak gertatzen diren kasuetan.

20. artikulua.- Erantzukizuna.

1.- Zinegotziek erantzukizun penal, zibil eta administratiboa dute, bai eta kontabilitate- erantzukizuna, ere, beren kargua betetzean gauzaturiko egite eta omisioengatik. Erantzukizunak auzitegi eskudunen aurrean eskatuko dira, eta aplikagarria den prozedura arruntaren bidez izapidetuko dira.

2.- Udalaren erabakien erantzuleak dira halakoak hartzearen aldeko botoa eman duten ordezkari- kargudunak.

Udalak, kaltetuei kalte-ordaina eman dienean, ofizioz eskatuko du, administrazio-bidean, bere agintari politikoen erantzukizuna, halakorik izan baldin badute, dolo, edo erruz edo zabarkeria larri, alde aurretik dagokion prozeduraren instrukzioa eginda. Era berean eskatuko da Udalaren ondasun edo eskubideetan eraginiko kalte eta galerengatik.

3.- Aurreko zenbakietan ezarritakoa ez da eragozpena izango erantzukizun zibila, ahal den neurrian, dagokion aseguru-polizaren bidez estaltzeko, Udalaren kontura.

Edozein kasutan, Udalak kontraturiko polizak estali ez duen zenbatekoa eskatuko dio pertsona arduradunari.


V. KAPITULUA.- TALDE POLITIKOAK.

21. artikulua.- Talde politikoak eratzea.

1.- Udalbatzako kideak, beren jardura korporatiboaren ondorioetarako, udaleko talde politikoetan eratuko dira, atxikita ez dauden kideak izan ezik.

2.- Talde politikoak eratzeko, Alkatetzari idazki bat zuzenduko zaio, taldea osatzen duten zinegotziek izenpetua, udal berria eratu ondorengo hamar egun baliadunen barruan eta, betiere, udalaren antolamendua eta funtzionamendua zehazteko osoko bilkuraren aurretik.

Idazki horretan jasoko dira taldearen izena, taldekideen izenak, bozeramailearen izena eta, bozeramailearen absentsian haren ordezkari den/ten zinegotzien izenak.



Bozera maile ardura, talde bereko zinegotzi bat edo gehiagoren artean konpartitua izan ahalko da.

3.- Zinegotzi-izaera Udala eratze bako bileraren ondoren hartzen dutenak edo, salbuespenez, arrazoitutako kausa batengatik, dagokion unean hartu ezin izan dutenak hamar egun balioduneko epean sartuko dira aurkeztu diren zerrendari loturiko talde politikoa, kargua erabat hartu duten egunaren ondoren edo kargua hartze bako ezintasuna eragin zuen kausa bukatu den egunaren ondoren, hurrenez hurren.

4.- Izenaren, osaeraren edo bozera maile- karguaren aldetik egiten diren aldaketek Alkatetzari idatziz jakinarazten direnetik izango dituzte ondoreak. Alkatetzak, era berean, horren berri emango dio Udaleko Osoko Bilkurari jakinarazpen hori aurkeztu ondoren egiten den lehen bilkuran.

5.- Talde politikoe bako, bozera mailearen idazki baten bidez, kide anitzeko organo osagarrietan sartuko diren kideak izendatuko dituzte, eta, orobat, eginiko izendapenen aldaketak jakinaraziko dituzte, agintaldi berrian zehar halakorik gertatuz gero.

22. artikulua.- Talde politikoei atxikitzea.

1.- Talde politikoa bat eratuko da Udalean ordezkaritza lortu duen hauteskunde-zerrenda bakoitzeko. Horrenbestez:

- Talde propioa osatzeko, gutxienez zinegotzi bat beharko da.
- Ez da talde mistorik egongo.

2.- Ezein zinegotzi ezingo da egon talde politikoa bati baino gehiagori atxikita, eta ezingo da izan berak parte hartutako hauteskunde- zerrendari ez dagokion beste talde politikoa baten kide, talde mistoa salbuespena dela. Koalizio bat diren hauteskunde-zerrenden kasuan, koalizioa osatzen duten antolakunde politikoe bako batek hura uztea erabakitzen badu, haren zinegotziak ez dira joko atxiki gabeko kide zat.

3.- Alderdi edo koalizio bereko zinegotziek ezingo dituzte eratu talde politikoa bereiziak.


23. artikulua.- Talde politikoen diru-esleipenak.

1.- Udalbatzak, Udalaren urteko aurrekontuen kontura, eta Alkatetzaren proposamenez, talde politikoei diru- zuzkidura bat esleitu die, osagai finko bat izango duena, berbera talde guztientzat, bai eta osagai aldakor bat ere, talde bakoitzeko kide-kopuruaren arabera.

2.- Udal-taldeentzako diru-esleipenak ezingo dira inola ere erabili Udalbatzaren zerbitzura diharduen ezein motako pertsonalaren ordainsariak ordaintzeko, edo ondareko aktibo finkoak izan daitezkeen ondasunak eskuratzeko edo udal-taldeko kidea den ezein zinegotziren aldeko ordainketak egiteko.

3.- Zehazki, Udalak egokitutako azpiegituraz gain, hauetarako bai erabili ahalko direla:

- Udal-taldeak erabiltzeko lokalaren errenta- gastuak, halako taldea den aldetik errentan hartuta eta helburu horretarako soil-soilik diren lokalaren kasuan.
- Bulego-materialaren gastuak, informatikako eta elektronikako gastuak barne. Ordenagailuei eta antzeko beste gailu batzuei dagokienez, ekipamendua berritzeko xedez eskuratu ahalko dira, dena delako gailuaren bizitza erabilgarria gaunditu eta gero; hori legegintzaldiarekin bat etorri ohi da, konpondu ezineko matxurarik gertatu ezean.
- Telefoniako, Interneteko eta antzekoetako gastuak.
- Udal-taldearen publizitatea sartzeko gastuak.



- Udal-taldearen informazio-buletina editatzeko gastuak, inprimatzeko eta banatzeko gastuak barne.
- Udal taldearentzako laguntza juridiko edo teknikoko zerbitzuen gastuak.
- Aldizkarien, egunkarien edo onlineko datu-baseen harpidetzen gastuak.
- Behar bezala justifikaturiko ordezkari-tza- gastuak.
- Dagozkien alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteek emandako zerbitzuen gastuak.

4.- Jasotako esleipenen kontabilitate berezi bat eraman beharko dute udal-taldeek, eta dagozkion gastuak Udaleko Kontu- hartzaileak fiskalizatuko ditu beti. Udaleko Osoko Bilkuraren eskura jarriko dira, hark hala eskatzen dituen guztietan.

5.- Udal-taldeei dagokien diru-esleipena jaso ahal izateko, taldeek udal talde politiko gisa eratu beharko dute, eta identifikazio fiskaleko kodea lortu (IFK).

24. artikulua.- Udal-talde baliabide materialak.

Talde politiko bakoitzak behar bezala hornituriko bulego edo lokal bat edukiko dute esleituta, kide-kopuruarekiko proportzioan, bilerak eta harrerak egiteko.

25. artikulua.- Atxiki gabeko zinegotziak.


1.- Atxiki gabeko zinegotzitzat joko dira hautatuak izan zirenean zeuden hauteskunde- antolakundeak eraturiko udal-taldean sartzen ez direnak, edo beren jatorrizko taldea uzten dutenak edo hauteskundeetara aurkeztean kide ziren alderditik eta/edo antolakunde politikotik kanporatu dituztenak. Zinegotzi horiek ezingo dira izan beste ezein talde politikoko kide izan.

2.- Udal-talde politiko bateko zinegotzi gehienek hauteskundeetako haien hautagai- zerrenda aurkeztu zuen antolakunde politikoa uzten dutenean edo antolakunde politiko horretatik kanporatzen dituztenean, dena delako antolakunde politikoan jarraitzen dutenak izango dira talde horretako kide izateko legitimaturik egongo diren pertsonak, ondore guztietarako, salbu eta erregelamendu honetan taldean antolatze eskatzen den gutxieneko kopuruaren azpitik murriztuta geldituko balira, orduan talde horretako kideak talde mistora igaroko baitira.

Nolanahi ere, Udaleko idazkariak dagokion hautagai-zerrenda aurkeztu zuen antolakunde politikoaren legezko ordezkariarengana jo ahalko du, aipaturiko egoera egiazta diezaion.

3.- Atxiki gabeko pertsonen eskubide ekonomiko eta politikoak ezingo dira handiagoak izan, jatorrizko taldean geratuz gero zegozkiekeenak baino. Eskubide politikoen norainokoa eta eskubide ekonomikoen zenbatekoa Udaleko Osoko Bilkurak ezarriko ditu, honako hauek aintzat hartuz:

- a) Ezingo dute jaso talde politikoei dagozkien diru-esleipena.
- b) Bertaratzeagatik, ezingo dute jaso lehenago talde politiko kide gisa jasotzen zuten baino zenbateko handiagorik.
- c) Ezingo dira izan Bozeramaileen Batzarreko kide.
- d) Osoko bilkuran parte hartzeko duten eskubidea errespetatu beharko da, eta gutxienez informazio-batzorde batean parte hartzeko eskubidea; gehienez, udal-taldeko kide gisa parte hartzen zituenetan parte hartu ahalko dute.
- e) Ezingo dira ordezkari izendatu Udalaren erakundeetan edo Udala kide den erakundeetan.



II. TITULUA. UDALERRIAREN ERAKUNDE- ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

26. artikulua.- Araubide juridikoa eta gobernu irekia.

1.- Udalaren antolamendua eraenduko da aintzat hartuz toki-araubideari buruzko oinarritzko legedia, sektore publikoa eta administrazio-prozedura arautzen dituen legedia, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, erregelamendu organiko hau, eta berau garatzeko ematen diren erabaki eta ebazpenak.

2.- Gobernu irekia eratzen duten printzipioak, alegia, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari, kontu emateari eta administrazio elektronikoari dagozkion printzipioak, kontuan hartu beharko dira titulu honetan jasotako antolamendu-arauak interpretatzeko garaian.

3.- Udaleko kide anitzeko organoetan, ordezkaritza politikoak parekidetasunerantz jo beharko du, bi sexuen ehunekoen aldetik, Udaleko Osoko Bilkuraren zein udal-taldearen osaerak hori posible egiten duen neurrian.

II. KAPITULUA.- UDAL-ORGANOAK.

27. artikulua.- Administrazio-organismoak.

1.- Administrazio-unitateak administrazio- organotzat joko dira haiei esleituriko eginkizunek hirugarren batzuen aurrean ondoreak dituztenean, edo haien jardunak nahitaezko izaera duenean.

2.- Halaber, antolamenduari begira soil-soilik, udal-administrazio- organoak izango dira Udalaren antolamenduaren egituraren, sortu, bultzatu, kudeatu, txostenak egin edo proposatzeko eginkizunekin, ezartzen diren beste egitura batzuk.

3.- Edozein administrazio-organo sortzeko, beharrezkoa izango da, gutxienez, sektore publikoaren araubide juridikoa arautzen duen legedian ezarritako baldintzak betetzea, eta horrek ezingo du ekarri lehendik dauden beste batzuk bikoiztea.


4.- Aurreko zenbakian ezarritako ondoretarako, bikoiztea dagoela iritziko zaio udal-administrazioak edo sektore publiko instituzionaleko haren erakundeek bi organo edo gehiago sortzen dituztenean, eginkizun berak betetzen dituztenak, lurralde beraren gainean eta biztanleria berarentzat.

28. artikulua.- Kide anitzeko organismoak.

1.- Kide anitzetako organismoak dira formalki sortu, eta hiru pertsonak edo gehiagok osatzen dituztenak, pertsona horiek erabakitzeke, proposatzeko, aholku emateko, jarraipena egiteko edo kontrolatzeko administrazio-eginkizunak esleiturik dauzkatela, udalean edo haren erakunde publikoetako batean txertaturik.

2.- Kide anitzeko organo sortzeko arauak edo, bestela, halako organo bat beste administrazio batzuekin eratzeke hitzarmenak honako hauek xedatu beharko ditu:

- a) Organoaren xedeak edo helburuak
- b) Administrazioan beteko duen lekua edo mendeotasun hierarkikoa.
- c) Organoaren osaera eta organoko burua nahiz gainerako kideak izendatzeko oinarri hartutako irizpideak.
- d) Esleitzen zaizkion eginkizunak.
- e) Horren funtzionamendurako kreditu- zuzkidura, halakorik behar denean.



3.- Sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko oinarritzko legedian xedaturik dagoenaren ildotik, kide anitzeko organoetarako aipatu den arauketa ez zaie aplikagarria izango Udalbatzari eta Tokiko Gobernu Batzarrari; organo horiei tokiko legedian ezartzen dena eta erregelamendu honetan jasotzen dena baino ez zaie aplikatuko.

29. artikulua.- Gobernu-organoak.

Hauek dira udal gobernu-organoak:

- a) Alkatea.
- b) Udaleko Osoko Bilkura.
- c) Gobernu Batzarra.
- d) Alkateordeak.
- e) Gobernu-erantzukizunak dituzten zinegotziak.

30. artikulua.- Organo osagarriak.

Hauek dira organo osagarriak:

- a) Informazio-batzorde iraunkorrak.
- b) Informazio-batzordeberezia; ez- iraunkorrak izango dira.
- c) Kontuen Batzorde Berezia.
- d) Bozeramaileen Batzarra.
- e) Auzo-zinegotziak.
- f) Kontseilu sektorialak

30 bis artikulua.- Agintaldia eta Udala eratzea


1. Udala saio publiko bidez eratuko da, hauteskunde-legedian xedatutako epean eta moduan.

2.- Eratze-saioa egiteko hauteskunde-legediak zehaztutako egunaren aurreko hirugarren egunean, kargua utziko duten zinegotziak, hala Udalbatzakoak nola Gobernu Kontseilukoak eta Batzordeetakoak, batzarrean bilduko dira deialdia egin eta gero, onesteko dagoen akta edo aktak onesteko helburu bakarrarekin.

3.- Udal berria eratzen den egunean, diru- kontaketa bat egingo da eta udal kutxan edo finantza-erakundeetan utzitako esku-diruaren edo balioen frogagiriak aurkeztuko dira, baita ondare-inbentarioari dagokion dokumentazioa ere. Idazkaritza eta Kontu-hartzailetza atalari dagokio ekintza horiek gauzatu daitezen beharrezkoak diren neurriak hartzea.

4.- Eratze-saioa egin eta 30 egun igaro baino lehen, alkateak Udalbatzaren osoko bilkurarako edo bilkuretarako deialdia egingo du, besteak beste, gai hauek aztertu eta horien inguruan erabakiak hartzeko xedearekin

- a) Udalbatzaren eta Gobernu Batzordearen ohiko batzarren maiztasuna.
- b) Informazio batzorde iraunkorren eraketa, osaera eta lehendakaritza.
- c) Arduraldi eskusiboko eta partzialeko araubideko hautetsiak eta horien ordainsariak zehaztea.
- d) Ordainketen araubidea, asistentzia eta kalte-ordain gisa.
- e) Udal taldeentzako diru-esleipenak.
- f) Behin-behineko langileen lanpostuen zuzkidurak eta horien ordainsariak, eta, bidezkoa bada, dagozkien zerbitzu edo sailetara atxikitzea.



- g) Udalaren ordezkariak izendatzea elkargoetan, Udalbatzaren eskumenekoak badira.
- h) Alkatetzaren dekretuen berri ematea, alkateordeen, Gobernu Batzordeko kideen eta Alkatetzaren ordezkartzen izendapenen inguruan.

5.- 4. atalean adierazitako gaietakoren batzuk jorratu ez badira edo mahai gainean utzi badira, ohiko edo ezohiko saioan jorratu ahal izango dira aurrerago.

6. Udaleko kideen agintaldia lau urtekoa izango da, hautatzen diren egunetik hasita, hauteskunde araubide orokorraren legedian jasotako baldintzetan.

7. Agintaldia amaitu ondoren, kargua utziko duten Udalbatzako kideek euren funtzioak betetzen jarraituko dute, soilik ohiko administrazioarako, ondorengoek kargua hartu arte; ezingo da inola ere akordiorik hartu, legez gehiengo kualifikatua eskatzen duten kasuetarako.

III. KAPITULUA.- GOBERNU-ORGANOAK.

31. artikulua.- Alkatea.

1.- Alkatea Udalbatzako burua da, eta, halaber, udal-administrazioa zuzentzen du. Alkatea hautatzea zinegotziei dagokie, hauteskunde-legediaren arabera.

2.- Alkateak kausa hauetako bat gertatzen denean utziko du kargua:

- a) Agintaldia bukatzea, hori eragozpena izan gabe jardunean jarrai dezan, alkate berriak kargua hartu arte, hauteskunde-legedi orokorrean ezarritako moduan.
- b) Karguari uko egitea, horregatik zinegotzi izateari utzi gabe. Uko-egitea Udaleko Osoko Bilkurari zuzendutako idazki baten bidez prestatuko da, eta hark jakinaren gainean geratzeko erabakia hartzen duenean izango ditu ondoreak. Horretarako osoko bilkurara, gehienez, hurrengo hamar egunen barruan deituko da.
- c) Heriotza.
- d) Zentsura-mozio bat onartzea, hauteskunde- legedi orokorrean ezarritako moduan.
- e) Karguan jarduteko desgaitzen duen epai judizial irmo bat ematea.
- f) Toki-araubideari buruzko legedian edo hauteskunde-legedi orokorrean xedaturik dauden gainerako kausak.


3.- Alkateak estatuko nahiz autonomia- erkidegoko legediak eta foru-araudiak berariaz esleitzen dizkion eskumenak izango ditu, bai eta udalaren esku utzi, eta beste udal-organo batzuei esleitzen ez zaizkionak ere.

32. artikulua.- Alkateordetzak.

1.- Alkatetzak askatasun osoa izango du, Tokiko Gobernu Batzarreko kideen artean aukeratuta, alkateordeak izendatzeko eta kargutik kentzeko, eta haien kopurua ezingo da izan 3 baino handiagoa.

2.- Alkatetzaren dekretu baten bidez izendatuko dira, eta kenduko dira kargutik, eta haren berri emango zaio Udaleko Osoko Bilkurari egiten den lehen bilkuran, izendatutakoei jakinaraziko zaie, eta Bizkaiko aldizkari ofizialean argitaratuko da. Horrek ez du eragotziko dekretua izenpetzen den egunaren biharamunean indarrean sar dadin, dekretuan bertan bestela xedatu ezean.

3.- Kargutik kentzen dituzten kasuez gain, alkateorde-izaera galtzen da idatziz berariaz uko egiten denean eta Tokiko Gobernu Batzarreko kidea izateari uzten zaionean.



4.- Alkateak ordezkatzeko beste ordena bat jarri ahal izateko eragozpena izan gabe, alkateordeei dagokie alkatea ordezkatzeko haren eskudantzia guztietan, izendatze- ordenan, alkatea absente edo gaixorik dagoenean, edo alkateari bere eskudantziak gauzatzea galarazten dion eragozpenen bat gertatzen denean. Halaber, alkateordeek alkate-eginkizunak beteko dituzte alkate- kargua hutsik geratzen denean, alkate berriak kargua hartu arte.

5.- Era berean, bilkura batean, gai jakin baten inguruan alkateak esku hartzetik abstenitu behar duenean edo, edozein arrazoi dela eta, batzar-aretotik joan behar duenean, dagokion alkateordeak automatikoki hartuko du bere gain bilkurako burutza.

6.- Absente edo gaixo dagoelako edo eragozpenen bat gertatzen delako, alkatea ordeztu egin behar denean, haren eginkizunak hartzen dituen alkateordeak ezingo ditu ezeztatu Alkatetzaren tituluak emandako eskuordetzak.

33. artikulua.- Alkatetzak eskumenak eskuordetzan ematea.

1.- Alkatetzak eskumenak eta eskudantziak eskuordetzan ematea, halakoak bereganatzea, izenpea eskuordetzan ematea, ordezkoak izendatzea, eta gainerakoak eraenduko dira sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko legedian gai horren inguruan jasotzen diren arauen bidez.

2.- Udal-eskumeneko gai orokor bati dagozkion eskudantziak –legez eskuordetzan ezin emanezkoak direnak izan ezik– eman ahalko dizkie eskuordetzan alkateak Tokiko Gobernu Batzarrari, kide anitzeko organo gisa, zein batzar horretako kideei.

3.- Halaber, alkateak eskuordetza bereziak eman ahalko dizkie edozein zinegotziri, azken hori gobernu-batzarrekoa ez izan arren, gai edo proiektu jakin baterako. Kasu horretan, eskuordetza orokor bat duen zinegotziak ahalmena izango du beraren arloaren barruko zeregin jakin batzuetarako eskuordetza bereziak dituzten zinegotzien jarduerara gainbegiratzeko, dekretuan bestela xedatu ezean.


4.- Alkateak, oinarritzko legedian ezarritakoaren esparruan, edozein zuzendaritza-kide, zerbitzuburu edo funtzionario eskuordetu ahalko du, behar besteko eskumena duen organo edo administrazio-unitate baten titularrak denean, ordezkariak ez diren eskumenak edo ordezkariak kargu publikoei berez dagozkien eskudantziak gauzatzea ez dakarten eskumenak betetzeko.

5.- Alkateak behar besteko eskumena duen organo edo administrazio-unitatearen titularrak eskuordetu ahalko ditu beraren ebazpen eta administrazio-egintzak izenpetzeko. Alkatetzaren eskumenak eskuordetzan hartzen dituzten organoek, halaber, beren mendeko beste organo batzuk eskuordetu ahalko dituzte beraien ebazpen eta administrazio-egintzak izenpetzeko, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko legedian ezarritakoaren arabera.

6.- Alkatetzaren dekretu bidez emango eta kenduko dira eskuordetzak, eta halako dekretuetan jasoko da eskuordetza zer gairi dagokien, zer ahalmen ematen diren eskuordetzan, eta ahalmen horiek gauzatzeko zer baldintza berezi jartzen diren.

7.- Eskuordetzak ematen eta kentzen diren guztietan, haren berri emango zaio Udaleko Osoko Bilkurari, horren ondoren egiten den lehen bilkuran, baina, hala ere, dekretuaren egunaren biharamunetik izango ditu ondoreak eskuordetza emate edo kentze horrek, dekretuan bestela xedatu ezean; nolahi ere, azken hori nahitaez argitaratu beharko da lurralde historikoko aldizkari ofizialean zein udal-webgunean.

8.- Eskuordetza baten bidez ematen diren ebazpenek berariaz adierazi beharko dute egoera hori, eta organo eskuordetza-emateak emandakotzat joko dira.



34. artikulua.- Tokiko Gobernu Batzarra.

1.- Tokiko Gobernu Batzarra osatuko dute alkateak, bera buru dela, eta Alkatetzak askatasun osoz izendaturiko zinegotziek, azken horien kopuruak Udalbatza legeaz osatzen duen zinegotzi-kopuruaren herena gainditu gabe.

2.- Tokiko Gobernu Batzarreko kideak izendatzerakoan, parekidetasun-irizpideak kontuan hartuko dira, bi sexuen ehunekoen aldetik, Udalaren zein gobernu-batzarra osatzen duten taldeen osaerak hori posible egiten duen neurrian.

3. Tokiko Gobernu Batzarrek eskudantzia hauek ditu:

- a) Alkatetzari laguntzea, bere eskudantziak gauzatzean.
- b) Udaleko Udalbatzak, erabakiz, eskuordetzan ematen dizkionak.
- c) Alkatetzak, dekretuz, eskuordetzan ematen dizkionak.
- d) Legeek eta foru-arauek esleitzen dizkieten beste eskumen batzuk, halakorik esleitzen baldin badizkie.

4.- Aurreko zenbakiko b) eta c) letretan aipatzen diren eskudantzia-eskuordetzak ondorerik gabe utzi ahalko dira Udaleko Osoko Bilkuraren erabakiz eta Alkatetzaren dekretuz, hurrenez hurren. Erabaki horrek hartu den egunaren biharamunetik izango ditu ondoreak, berariaz beste epe bat ezarri ezean.

5.- Orokorrean ematen dituen eskuordetzetarako eragozpena izan gabe, Alkatetzak berari esleituriko eskumenen arloko gai zehatzen bat Tokiko Gobernu Batzarraren esku utzi ahalko du, hartaz arduratzeko eta ebazpena emateko.

35. artikulua.- Udalbatza

1.- Udaleko Udalbatza zinegotzi guztiek eta alkateak osatuko dute, azken hori buru dela.

2.- Udaleko Udalbatzari dagozkion eskudantziak legedi orokorrak, legedia sektorialak eta foru-araudiak ezarritakoak dira.


3.- Udaleko Osoko Bilkurak erabaki ahalko du, bere eskudantzien artean, legeaz eskuordetzan ezin emanezkoak ez direnak Tokiko Gobernu Batzarrari edo alkateari eskuordetzan ematea. Eskuordetza-ematea eta hura aldatzea erabaki bidez gauzatuko dira, eta erabaki horren egunaren biharamunetik izango dituzte ondoreak, erabakian bertan bestela xedatu ezean.

IV KAPITULUA.- ANTOLAMENDU OSAGARRIA.

36. artikulua.- Informazio-batzordeak.

1.- Informazio-batzordeak kide anitzeko udal- organo batzuk dira, erabakitzaileak ez direnak; udal gobernu- organoen osagarri, haien eginkizuna da osoko bilkurak erabakitzeak diren gaiak aztertzea eta haien gainean txostenak eta irizpenak ematea, nahitaezkoak eta ez-lotesleak, bai eta kontrola egitea ere. Eginkizun bera dute, halaber, Tokiko Gobernu Batzarrek edo Alkatetzak erabakitzeak diren gaiei dagokienez, osoko bilkurak organo horiei eskuordetzan emandako eskumenen arloan dihardutenean edo organoak berariaz hala eskatzen dutenean.

2.- Informazio-batzorde iraunkorrak orokorrean eratzen dira, eta haien xede nagusia da, udal- eskumeneko sektore, arlo edo jarduera jakin baten esparruan, osoko bilkuran erabakia har dezan aztertuko diren gaiei buruz



irizpena ematea, bai eta alkatearen, Tokiko Gobernu Batzarraren eta ordezkariak dituzten zinegotzien kudeaketaren jarraipena egitea ere.

3.- Informazio-batzorde bereziak eratzen dira udal-eskumeneko gai zehatz bati buruz txostena edo irizpen bat taxutu edo onartzeko xedez. Halako batzordeak automatikoki azkenduko dira, haiek eratzea eragin zuen gaiari buruz irizpena edo txostena eman eta gero, batzordea sortu zuen dekretuan bestela xedatu ezean; dena dela, legegintzaldia bukatzean azkenduko dira betiere.

4.- Informazio-batzorde berezien osaera, antolamendua eta funtzionamendua haiek eratzeko erabakian xedaturik dagoenaren arabera eraenduko dira, eta, osagarri gisa, erregelamendu honetan informazio-batzorde orokorrak arautzen dituzten manuen arabera.

5.- Udaleko Osoko Bilkurak erabakiko ditu, Alkatetzaren proposamenez, informazio- batzorde iraunkorren kopurua, izena, kopuruzko osaera eta kideak, ordezkoak barne, bera eratzeko bilkuren ondoren egiten den lehen bilkuran, hori eragozpena izan gabe geroagoko edozein unetan aldaketak egiteko.

6.- Udalbatzan ordezkariak duten talde politiko guztiek, berariaz uko egin ezean, izango dute eskubidea informazio- batzordeetan parte hartzeko. Informazio- batzorde bakoitzean talde bakoitzak izango duen kide-kopurua ezartzeko, proportzionaltasuna errespetatzeko irizpide batzuk hartuko dira kontuan, osoko bilkuran daukaten partaidetzaren arabera. Udalaren osaera dela eta, halako proportzionaltasuna ezinezkoa denean, Udaleko Osoko Bilkurak, Alkatetzaren proposamenez, aukeran izango du gehiengoak osoko bilkuran bezala eratzeko moduan postuak banatzea edo organoak talde bakoitzari kide-kopuru bera emanez osatu eta, erabakiak hartzeko, boto haztatuaren sistema erabiltzea.

7.- Talde bakoitza ordezkatzuz, batzorde bakoitzari zehazki atxikiko zaizkionak taldeko bozeramaileak alkateari zuzendutako idazki baten bidez ezarriko dira, eta idazki horren berri emango da osoko bilkuran. Halaber, ordezkari bat izendatu ahalko da titular bakoitzeko.

8.- Alkateak informazio-batzorde iraunkorretako lehendakariak izendatuko ditu, batzordeko bertako kideen artean, udal-talde politikoen ordezkagarritasuna irizpidetzat harturik.

Era berean, lehendakaria ordeztuko duen batzordekidea izendatu ahal izango du, bertaratu ezin bada edo gaixotu bada.


9.- Atxiki gabeko zinegotziak ezingo dira izan informazio-batzordeetako buru.

10.- Informazio-batzordeek lantaldeak sortzea erabaki ahalko dute, gairen bat zehazki aztertzeko, eta lantalde horiek haien gain utzitako lana bukatutzat ematen denean desegingo dira. Halako taldeei ez zaizkie aplikagarriak izango kide anitzeko organoen inguruko arau orokorrak, eta haien funtzionamendua beraiek sortzeko erabakian xedaturikoaren arabera eraenduta egongo da. Bilera informalak egin ahalko dituzte, aldez aurretik deialdirik egin gabe, bertaratuen quorum bat ezarri gabe, eta haien aktarik jaso gabe.

37. artikulua.- Kontuen Batzorde Berezia.

1.- Nahitaezkoa izango da Kontuen Batzorde Berezia egotea, eta haren osaera, antolamendua eta funtzionamendua erregelamendu honetan gainerako informazio- batzordeei aplikagarriak zaizkien manuen arabera eraenduko dira. Hala eta guztiz ere, Udaleko Osoko Bilkurak erabaki ahalko du ogasun-gaietarako informazio-batzorde iraunkorrak bere gain har ditzan Kontuen Batzorde Bereziaren eginkizunak. Kasu horretan, deialdietan eta egintzetan berariaz jaso beharko da noiz diharduen Kontuen Batzorde Berezi gisa.

2.- Kontuen Batzorde Bereziari toki- erakundeetako kontabilitatea arautzen duen araudiak esleitzen dizkion eginkizunak dagozkie.



3.- Kontuen Batzorde Bereziaren bilkuretara kontu-hartzailetzako arduraduna den funtzionario batek joan beharko du.

38. artikulua.- Bozeramaileen Batzarra.

1.- Bozeramaileen Batzarra eztabaida- eta aholku-organo bat da, Udalean ordezkaritza daukan talde politiko bakoitzeko bozeramaileek osatzen dute, eta alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia du buru.

2.- Bozeramaileen Batzarra Alkatetzaren ebazpenez eratuko da, kideen izendapena – titularrena zein ordezkarena– formalizatu orduko. Haren osaera aldatzeko, izapide berari jarraituko zaio.

3.- Atxiki gabeko zinegotziak ezingo dira izan Bozeramaileen Batzarreko kide.

4.- Bozeramaileen Batzarreko idazkaritza Udaleko idazkariaren gain egongo da, edo, bestela, berak eskuordetutako funtzionarioaren gain.

5.- Alkateak deialdia eginik bilduko da batzarra, bere ekimenez edo premiagatik edozein udal-taldek hala eskaturik.

6.- Deialdia posta elektronikoz egitea lehenetsiko egingo da, presa bereziko arrazoiak egon ezean, bilkura egiteko ezarritako ordua baino gutxienez 24 ordu lehenago, eta aztertuko diren gaietarako behar besteko informazioa eduki beharko du. Deialdia bozeramaile batek eskaturik egiten denean, batzarburuak, bi egun balioduneko gehieneko epe batean egingo du deialdi hori, idazki bidez eskatzen denetik hasita. Idazki horretan, aztertuko diren gaiak eta haien inguruko informazioa jaso beharko dira.

7.- Hauek dira Bozeramaileen Batzarren eginkizunak:

- a) Osoko bilkuren gai ordenean jasotako gaien inguruan edo jaso nahi diren gaietan, prozedura argitzea eta adostuna bilatzea.
- b) Udallerriarentzat interes edo garrantzi berezia duten gaietara buruz iritzia ematea, presako kasuetan bereziki, bai eta interes orokorreko gaietara buruz ere.
- c) Alkatetzak batzarren eginkizuntzat jotzen duen beste edozein.


8.- Bozeramaileen Batzarrek erabakigarriak ez diren adierazpenak, txostenak edo gomendioak emango ditu, eta ez dute inola ere indarrik izango hirugarren batzuk behartzeko.

9.- Bozketa eginez gero, talde politiko bakoitzak bere zinegotzi-kopuruaren arabera dagokion boto haztatua izango du.

10.- Bozeramaileen Batzarren bilkura guztien akta jasoko da. Bozeramaileen Batzarren hurrengo bilkuran onartuko da akta, gai- zerrendako lehen puntuan aurreko bilkuraren akta onartzea jasota. Horrez gain, akta bidali egin beharko da hurrengo bilkuraren deialdiarekin eta gai-zerrendarekin batera.

39. artikulua.- Kontseilu sektorialak.

1.- Parte hartzeko organo egonkor eta iraunkorrak dira. Izaera aholku-emailea dute, baina ez dute erabakirik hartzen. Eztabaida- dinamikak garatzeko sortuak dira. Lege sektorial baten aginduz sor daitezke (Hirigintza, Hezkuntza) edo Udalbatzaren borondateak hala aginduta.



2.- Organo horiek auzotarren eta haien elkarten lankidetzaz bideratzen dute udalaren sektore edo jardun-arlo handietan.

3.- Ez dituzte aipatutako sektorearen interes ekonomikoak bideratzen, eta parte-hartze pribatua irabazi-asmorik gabeko erakundeena izango da beti.

4.- Bere eginkizunen azpimarragarrienak dira:

- Udaleko organoei aholkularitza eta kontsulta ematea, beren eskumeneko gaietan.
- Inplikaturako sektoreen bizi- kalitatearen babesa eta sustapena sustatzea.
- Asoziazionismoa eta banakako lankidetzaz sustatzea bere jardura- sektorearen barruan.
- Kontseiluaren xede den eremuan jarduten duten erakunde edo entitateen arteko koordinazioa sustatzea, publikoak zein pribatuak izan.
- Pertsonen eskubideak defendatzera bideratutako politika integralen aplikazioa sustatzea.

5.- Osoko Bilkurak sortzeko erabakian, bere eremua, helburuak, osaera, funtzionamendua eta bere lanak dagokion eremuan izango duen eragina ebaluatzeko modua zehaztuko dira. Osoko bilkuraren osakeran, udaleko talde guztiek egon behar dute ordezkatuta.

Indarrean dauden kontseilu sektorialen zerrenda udal webguneko gardentasun atarian jasoko da.

40. artikulua.- Lantaldeak.

1.- Batzorde bakoitzean osaera tekniko-politikoko lantaldeak sortzea gehiengo osoz erabaki ahal izango da, gai jakin bat aztertzeko. Izaera ez-iraunkorra izango dute, zeregin jakin baterako, eta agindutako lana amaitzean desegino dira.

2.- Lantalde horiei ez zaizkie aplikatuko kide anitzeko organoei buruzko arau orokorrak, eta horiek sortzeko erabakian xedatutakoaren arabera jardungo dute. Arau horiek gehiengo osoz onartu beharko dira.

III. TITULUA KIDE ANITZEKO ORGANOEN FUNTZIONAMENDUA.

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.


41. artikulua.- Araubide juridikoa eta gobernu irekia.

1.- Kide anitzeko organoen funtzionamendua eraenduko da aintzat hartuz toki-araubideari buruzko oinarritzko legedia, sektore publikoa eta administrazio-prozedura arautzen dituen legedia, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, erregelamendu organiko hau, eta berau garatzeko ematen diren erabaki eta ebazpenak.

2.- Gobernu irekia eratzen duten printzipioak, alegia, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari, kontu emateari eta administrazio elektronikoari dagozkion printzipioak, kontuan hartu beharko dira titulu honetan jasotako funtzionamendu-arauak interpretatzeko garaian.

42. artikulua.- Urrutiko bilkurak.

1.- Toki-erakundeetako kide anitzeko organoen bilkuren araubide presentzialaren funtzionamendu normala neurrigabe eragozten edo zailtzen duten salbuespenezko egoerak, ezinbesteko egoerak, arrisku kolektibo larriko egoerak edo hondamendi publikoak gertatzen direnean, alkateak edo lehendakariak, edo indarreko araudiaren arabera deialdiaren ondorioetarako baliozkotasunez ordezkatzen duenak, deskribatutako egoera



hautematen denean, bilkurak egin eta urrutiko akordioak egin ahal izango dituzte bitarteko elektroniko eta telematikoen bidez, betiere parte hartzen duten kideak Espainiako lurraldean badaude eta haien nortasuna egiaztatzen bada.

2.- Urrutiko bilkuretan bitarteko elektronikoz ziurtatu beharko dira –tartean telefoniako eta ikus-entzunezko bitartekoak daudela– kideen edo ordezkioen nortasuna, adierazpenen edukia, halakoak egiten diren unea, eta haien arteko denbora errealeko interakzioa eta interkomunikazioa, bai eta bilkuran bitartekoak eskuragarri egotea ere. Besteak beste, bitarteko elektroniko onargarritzat hartzen dira posta elektronikoa, audiokonferentziak, eta bideokonferentziak.

43. artikulua.- Euskararen erabilera.

1.- Herritarrak jakinaren gainean egon daitezen edozein bitartekoren bidez argitaratzen den dokumentazio guztia bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko da.

Ebazpenen, akten eta erabakien kopiak edo laburpenak bi hizkuntza ofizialetan bidaliko zaizkio Autonomia Erkidegoko Administrazioari, eta gaztelaniaz Estatuko Administrazioari.

2.- Zinegotziek, beren udal-jarduera gauzatzean, eta herritarrek, Udaleko organoen bilkura publikoetan, euskara zein gaztelania erabili ahaliko dute, eta ezingo zaie eskatu itzulpenik edo azalpenik eman dezatela adierazteko aukeratu ez duten hizkuntzan.

3.- Udalak zinegotziek euskara jakitea eta erabiltzea sustatuko du, udal-jarduerak hizkuntza horretan aurrera eramatea ahalbidetze aldera.

Horretarako, Udalak prestakuntza-plan bat taxutuko du, bere hautetsiak ahoz zein idatziz gaitzeko helburuz, haien udal-jarduerari dagokionez.

4.- Osoko bilkurako eztabaidetan, udalbatzako kideek autonomia-erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili ahal izango dituzte, bata zein bestea. Bertaratutako guztiek errazago uler dezaten, aldibereko eta/edo ondoz ondoko interpretazio-sistema bat egongo da.

II. KAPITULUA.- OSOKO BILKURAREN FUNTZIONAMENDUA.


44. artikulua.- Bilkurak egiteko tokia.

1.- Osoko bilkurak udaletxean egingo dira, edo, ezinbesteko kasuetan, ohiz kanpoko egoeretan edo tradizio-arrazoiengatik, horretarako egokitutako lokal batean. Egoera hori aktan jasoko da. Azken kasu horretan, alkateak ahalmena izango du bilkura udaletxea ez den beste lokal batean egitea erabakitzeke, aldez aurretik Bozeramaileen Batzarra jakinaren gainean jarrita, eta ahalik eta gehien zabalduko du egoera hori, salbu eta ordena publikoko arrazoiak egongo balira, herritarrak joan daitezen errazteko helburuz.

2.- Urrutiko bilkurei dagokienez, halakoak udaletxean egintzat jotzen dira.

45. artikulua.- Bilkura-motak.

1.- Osoko bilkurak izan ahaliko dira ohikoak, bereziak, edo presako osoko bilkura bereziak, eta lehen edo bigarren deialdian egin ahaliko dira.



2.- Ohiko osoko bilkurek alde zurretik ezarritako maiztasun bat izango dute, eta osoko bilkura berezi batean hartutako erabakian jasotzen den maiztasunarekin egin beharko dira. Udalbatza eratzeko bilkuraren ondorengo hogeita hamar egunen barruan deitu beharko du alkateak azken osoko bilkura berezi horretara, edo geroago, erabaki hori aldatzen bada. Salbuespenezko kasuetan izan ezik, abuztuan ez da bilkurarik egingo.

3.- Ez ohiko Osoko Bilkurak aurreko 2 zenbakian aurrez ezarritako maiztasunetik kanpo egiten dira, eta haien deialdia hurrengo artikuluko 3 eta 6 zenbakietan xedaturikoaren arabera egiten da.

4.- Presako ez ohiko osoko bilkurak egiten dira, aztertu beharreko gaiaren edo gaien premiazko arrazoiak direla eta, haien deialdia erregelamendu honetako 46. artikuluko 6. zenbakian ezarritako gutxienezko aurrerapenaz ezin egin daitekeenean. Kasu horretan, gai- zerrendako lehen puntua deialdiaren presazko izaerari buruz erabakitzea izango da, eta Udaleko Osoko Bilkurak hori berresten ez badu, bilkura berehala bukatutzat emango da.

5.- Bilkura ez ohikotasuna izateko nahiz presakoa eta ez ohikoa izateko justifikazioa emango da deialdiarekin.

46. artikulua.- Deialdia.

1.- Ohiko osoko bilkuretara, osoko bilkura berezietara nahiz presako osoko bilkuretara formatu elektronikoan deituko du alkateak.

2.- Alkateak deituko du osoko bilkura berezietara, bere ekimenez edo zinegotzi- kopuruaren laurdenak hala eskaturik, urtean gehienez halako hiru eskabide egin ahalko direla, urte berean tokiko agintea aldatzen denean izan ezik, orduan ez baitira zenbatuko beste agintaldi bateko eskabideak.

3.- Deialdia egiten baldin bada aurreko zenbakian aipatutako zinegotzi-kopuruak eskaturik, osoko bilkura berezia ezingo da atzeratu hamabost egun baliodun baino gehiago, hura egiteko eskatu denetik hasita. Hortaz, epe horretan haren deialdia egiten ez bada, automatikoki deituko da bilkurara epe hori bukatzen den egunaren ondorengo hamargarren egun baliodunerako, 12:00etan, eta hala jakinaraziko die Idazkaritzak udal-ordezkariei, arestian aipaturiko epea bukatu eta biharamunean.


4.- Osoko bilkura berezirako eskabidea idatziz egin beharko da, eta eskatzaile guztiek izenpetu beharko dute; Udaleko erregistroaren bidez izapidetuko da, eta gai-zerrendan sartu beharreko puntuak aditzera eman beharko ditu, bai eta dagokien dokumentazioa ere. Ezingo da gaia sartu beste gai batzuk badituen ohiko osoko bilkura baten edo osoko bilkura berezi baten gai-zerrendan, izenpetzaile guztiek berariazko baimena eman gabe. Ezingo da iadanik eztabaidatutakoa eta erabakitakoa berriro proposatu.

5.- Osoko bilkura berezia egiteko eskabidea ezetsi egin ahalko du alkateak, era arrazoituan, Idazkaritzak txostena egin eta gero, Udaleko Osoko Bilkuraren eskumenetik kanpoko gaiak izanez gero.

6.- Alkateak gutxienez bilkurok egin baino bi egun baliodun lehenago deituko du ohiko osoko bilkuretara nahiz osoko bilkura berezietara –presakoetara salbu–, eta adierazitako lokaletan jarri beharko du eskuragarri bilkuran aztertuko den dokumentazioa; dena dela, betiere erabaki- proposamenak eta proposamen horien oinarri diren txostenak jarri beharko ditu eskuragarri, deialdia egiten den egunetik bertatik.

47. artikulua.- Gai-zerrenda.

1.- Alkateak ezarriko du gai-zerrenda, Idazkaritzaren laguntzarekin.



2.- Ohiko osoko bilkuren gai-zerrendan, dagokien informazio-batzordean irizpena edo txostena jaso duten edo kontsulta egiteko aztertu diren gaiak soilik sartu ahalko dira, presako gaiak izan ezean; orduan, Udaleko Osoko Bilkurak berretsi egin beharko du gai-zerrendan sartzea.

3.- Ohiko osoko bilkuren gai-zerrendak, erabakien zatitik bereizita, berezko substantibotasuna duen atal bat izan beharko du, gobernu-organoen kontrolerako, bai eta berariazko atal bat ere, udal-taldeek galde- eskeak egin eta mozioa arruntak aurkezteko.

4.- Gai-zerrendan sarturiko gaien inguruko dokumentazio guztia eskuragarri izan beharko dute zinegotziek deialdia egiten den egunetik bertatik.

48. artikulua.- Osoko Bilkura eratzea.

1.- Udaleko Osoko Bilkura balio osoz eratu ahalko da hura legez osatzen dutenen herenak bertaratuz gero; dena dela, bertaratuak inoiz ere ezingo dira izan hiru baino gutxiago. Quorum horri bilkura guztian zehar eutsi beharko zaio. Nolanahi ere, alkate-udalburuak nahiz Udaleko idazkariak egon beharko dute, edo haiek legez ordezkatzen dituztenek.

2.- Ezin bada bilkura bat egin, quorumik ez dagoelako edo alkatea edo Udaleko idazkaria edo haien ordezkariek bertaratu ez direlako, osoko bilkura bat egiteko beste deialdi bat egingo da bi egun balioduneko gehienezko epean, bigarren deialdi bat egitea aurreikusi denean izan ezik; orduan, bigarren deialdiaren arabera egingo da.

3.- Osoko bilkura berezien deialdia zinegotzi- kopuruaren laurden batek eskaturik egiten denean, udalburua edo hura legez ordezkatzekoa dena falta bada, Udaleko Osoko Bilkura balio osoz eratuta geratuko da, baldin udal-ordezkarien legeko kopuruaren herenak osaturiko gutxieneko quoruma bertarutzen bada; dena dela, hura inoiz ere ezingo da izan hiru baino gutxiagokoa. Halakoetan, bertaratuen arteko adinez nagusienak jardungo du buru.

4.- Osoko bilkurara bertarutzen direnak beren taldearekin eseriko dira batzar-aretoan. Alkateak ezarriko du taldeak kokatzeko ordena, bozeramaileei entzun eta gero; lehentasuna izango du gobernu taldea osatzen duten talde politikoei, gero boto gehien lortu duen zerrendako kideek eraturiko taldeak, eta horrela hurrenez hurren.


49. artikulua.- Egintza-batasunaren printzipioa.

Bilkura guztiek egintza-batasunaren printzipioa errespetatuko dute, eta haien iraupena ezingo da izan bilkura hasi den eguneko 23:59 baino gehiagokoa.

Dagokion ordua bukatzean, aztertu gabeko gaiak badaude, osoko bilkura berezi batean sartuko dira, eta haren deialdia ahoz egin ahalko du alkateak, bilkuraren bukaeran hurbileko egun bat nahiz ordu bat ezarritik horretarako. Bestela, gai horiek hurrengo ohiko osoko bilkura batean sartu ahalko dira.

50. artikulua.- Bilkura gauzatzea.

1.- Quorum dagoela egiaztatu ondoren, alkate-udalburuak bilkurari hasiera eman, eta galdetuko du ea oharren bat dagoen aurreko bilkuraren aktari buruz; akta hori, hain zuzen, alde aurretik banatuko da, edo deialdiarekin batera. Oharrak badaude, zuzenketa egokiak eztabaidatu eta erabakiko dira; ez bada eragozpenik jartzen, akta aho batez onartutzat joko da. Inola ere ezingo da aldatu erabakien funtsa, eta huts materialak edo egitatezko



hutsak konpondu baino ezingo da egin. Akta bakoitzean aurreko bilkura irakurri eta onartu izana jasotzean, eginiko oharrak eta zuzenketak aipatuko dira.

2.- Gai-zerrendako puntuak zerrenda horretan jasota dauden ordenan eztabaidatu eta bozkatuko dira; dena dela, alkate-udalburuak gaien hurrenkera aldatu ahalko du, edo gai-zerrendako gai bat kendu, bere ekimenez edo udal-talderen batek edo atxiki gabeko zinegotziren batek hala eskaturik.

3.- Osoko bilkura berezietan, gai-zerrenkakoak beste gairik ez da aztertuko, dena delako gaia presakoa izan, Udaleko Osoko Bilkurako kide guztiak bertaraturik egon, eta aho batez hala erabaki ezean.

4.- Osoko bilkuran gai-zerrendako puntuen berri emango da, eta, printzipioz, ez dira irakurriko, zinegotziren batek erabaki- proposamena irakur dadila eskatu ezean, hura hobeki ulertze aldera.

5.- Zenbait gai elkarri lotuta daudenean, batera eztabaidatu ahalko dira, alkate-udalburuak hala erabakitzen baldin badu, talde politikoei entzun eta gero; dena dela, gai bakoitzaren bozketa bereiz egin beharko da.

6.- Edozein zinegotzik eska dezake eztabaidan zehar eguneko aztergaien zerrendan jasotako espedienteren bat kentzeko, espediente horretara derrigorrezko dokumentuak eta txostenak gehitzeko helburuarekin, edo espedientea mahai gainean uzteko, gaia aztertzea hurrengo saiorako uzteko xedearekin. Kasu bietan, eskaria bozkatu beharko da, eta, gehiengo sinplearen eskariz egiten bada, ez da bozketarik egingo gaiaren funtsari buruz.

7.- Eguneko aztergaien zerrendaren barruan ez dauden gaien kasuan, momentuan igorri ezin daitezkeen idazkaritzako edo Kontu- hartzailetzako derrigorrezko txostena eskatzen badute, organo horien titularrek gai horiek aurrerago beste saio batean aztertzeko eska diezaioketen lehendakariari, gaia mahai gainean utzita, eta dagokion aktan gertakaria jasota.

51. artikulua.- Agirien eta esku-hartzeen definizioak.

1.- Bilkurak gauzatzeari nahiz agiri eta idazkien deskribapenezko identifikazioari dagokienez, eta zinegotzien eztabaidetako ahozko esku- hartzeak definitzeko, terminologia hau erabiliko da:


a) IRIZPENA. Informazio-batzorde baten proposamena da, eta azalpen-atal bat eta hartzekoak diren erabaki batzuk jasotzen ditu, bai eta, halakorik dagoenean, boto partikularrak ere, eranskin gisa.

Batzordearen irizpena haren xedea den proposamenarekin ados dagoen edo ez adieraztera mugatu ahal izango da.

Informazio-batzordeen irizpenak nahitaezkoak dira, eta ez lotesleak.

b) PROPOSAMENA. Alkatetzak Udaleko Osoko Bilkurari aurkezten dion ekimen bat da, gai-zerrendan sarturiko gai baten inguruan, administrazio-espediente osoa edukita ere, informazio-batzorde eskudunak hari buruzko irizpenik egin ez duenean. Azalpen-atal edo justifikazio bat eta hartzekoa den erabaki bat jasotzen ditu. Ez da proiektu proposamen bat ez eztabaidatuko ez bozkatuko, baldin aldez aurretik bilkuraren gai-zerrendan sartzea berretsi ez bada.

c) MOZIO, atxikipenik gabeko udal-taldearen edo zinegotzien ekimenez gai-zerrendan sartutako proposamena da, 56 artikuluan araututako moduan.



d) PRESAKO GAIA. Presako arrazoiak direla eta, Udaleko Osoko Bilkurari, azter dezan, aurkezten zaion mozio bat da, gai-zerrendan ez dagoen eta galde-eskeen atalean sartzetik ez duen gai bat aztertzeko. Aztertu baino lehen, presakoa dela berretsi egin behar da, gehiengo osoz.

e) GALDEKETA-PROIEKTUA. Alkatetzak edo Gobernu Batzarrak formulatzen dituen galdeketa-ekimenak dira.

f) GALDEKETA-PROPOSAMENA. Udal-talde politikoek formulatzen dituzten galdeketa- ekimenak dira.

g) BOTO PARTIKULARRA. Informazio- batzordearen irizpen bat aldatzeko, batzorde horretako kide batek egiten duen proposamena da.

Boto partikularrak irizpenarekin batera aurkeztu beharko dira, idatziz, Batzordeak onartu eta hurrengo egunetik aurrera. Nolanahi ere, irizpenarekin batera aurkeztuko dira, gai-zerrendan sartzeko. Boto partikularra bilkurako deia egin ondoren aurkezten bada, gai-zerrendan ez dagoela ulertuko da, eta ez da eztabaidatu eta bozkatuko.

h) ZUZENKETA. Arau-proiektu, irizpen, proposamen baten edo edozein udal-taldek edo atxiki gabeko zinegotzik formulaturiko mozio baten testua aldatzeko proposamen bat da.

Zuzenketak osoak edo partzialak izan daitezke; era berean, lehenengoak itzulgarriak eta alternatiboak izan daitezke, eta bigarrenak, berriz, ezabatu, aldatu edo gehitzekoak.

Izaera itzultzailea duten osoko zuzenketak dira erabaki-proiektuaren edo akordio-proposamenaren eduki osoa ezabatzea eta jatorrizko udal-arlo edo –zerbitzura osorik itzultzea proposatzen dutenak.

Osoko zuzenketa alternatiboak dira kasuan kasuko proiektua edo proposamena funtsean aldatzen duen edukia duen testu bat onartzea proposatzen dutenak.

Ezabatzekoa izango da proiektuaren edo erabaki-proposamenaren testuko punturen bat edo batzuk ezabatzera mugatzen den zuzenketa partziala.

Aldatzekoa izango da proiektuaren edo akordio-proposamenaren punturen bat edo batzuk eraldatzen edo aldatzen dituen zuzenketa partziala.


Gehitzekoa izango da, irizpenaren edo akordio-proposamenaren testua osorik errespetatuz, hura zabaltzeko baino ez den zuzenketa partziala.

Zuzenketen edukiak mota bat baino gehiagoko ezaugarriak izan ditzake. Kasu horretan, zuzenketa misto gisa kalifikatuko dira, eta bozketa unerik egokienean egingo da, bakoitzaren ezaugarrien arabera, lehendakariaren iritziz.

i) ESKEA. Udaleko Osoko Bilkurako edozein kidek alkateari edo gobernu-taldeko kideei formulatzen dien eskaera bat edo jarduteko proposamen bat da.

j) GALDERA. Udaleko Osoko Bilkurako edozein kidek, kontrol-eginkizuna betez edo informazioa biltzeko helburuz, egiten duen galde edo itaun bat da, gertaera bati, egoera bati edo informazio bati buruzkoa, edo gairen baten inguruan neurriren bat hartuko ote den.

2.- Talde politikoek eta, halakorik dagoenean, atxiki gabeko zinegotziek beren esku-hartzeak edo aurkezten dituzten agiriak artikulu honetan ezarritakoaren arabera kalifikatu behar dituzte.



3.- Presako mozioak, halakorik dagoenean, ohiko osoko bilkuraren gai-zerrendako puntuak aztertzen bukatu eta gero eztabaidatuko dira. Horretarako, galde-eskeen txandara igaro baino lehen, alkateak galdetu egingo du ea udal-talde batek edo atxiki gabeko zinegotzi batek Osoko Bilkurari, azter dezan, gai-zerrendan ez zegoen eta galde-eskeen txandan sartzerik ez zuen gairen bat aurkeztu nahi dion, presako arrazoiak direla eta. Baiezkoan, proposamen-egileak presakotasuna justifikatu beharko du, eta Udaleko Osoko Bilkurak eztabaidatzea egokia den hala ez bozkatuko du jarraian, gehiengo osoz. Emaizta positiboa ateratzen bada, erregelamendu honetan eztabaidetarako xedaturiko prozedurari jarraituko zaio.

52. artikulua.- Eztabaidak.

1.- Erregelamendu honetako 50. artikuluko 4 zenbakian ezarritakorako eragozpena izan gabe, alkate-udalburuak gaiaren enuntziatua irakurriko du, eta, erabaki-proposamena irakurri ondoren, gaia onartzen den galdetuko du.

2.- Bertaratutako pertsona guztiek zeinu konbentzionalak erabiliz baiezkoa adierazten badute, gaiak aho batez onartuta geratuko dira, bozketarik egin gabe, eta alkateak espresuki adieraziko du hala.

3.- Udalbatzako pertsonaren batek ahoz esku hartzeko asmoa agertzen badu, alkateak eztabaida eta/edo egokia den ondorengo bozketa egiteko aginduko du.

4.- Eztabaida sustatzen bada, alkate-udalburuak alde zuzenetik baimenduko ditu esku-hartzeak, eta azken horiek honako arau hauek beteko dituzte:

a) Eztabaida hasteko, proposamena azalduko du hura egiten duen udal-arloko zinegotzi ordezkariak, irizpena eman duen batzordeko kideren batek edo, gainerako kasuetan, proposamena edo mozioa izenpetzen duten zinegotzietako batek.


b) Ekimena aldezturik, esku hartzeko ordena normala ordezkariak txikieneko taldetik ordezkariak handienekora joango da. Nolanahi ere, ordezkariak handiena duen gobernu-taldeak itxiko du esku-hartzeen txanda, zuzenketarik egon ezean.

c) Zuzenketak daudenean, halakoak aurkezturiko proposamenarekin batera eztabaidatu beharko dira. Kasu horretan, proposamen-egileak hitz egin ondoren, zuzenketak formulatu dituenak, oposizioko taldeek –ordezkariak txikienetik handienekora ordenan– eta, azkenik eta irizpide berari jarraituz, udal-gobernua osatzen duten taldeek esku hartuko dute.

d) Lehenik eta behin, boto partikularrak eta zuzenketak eztabaidatu eta bozkatuko dira, eta gero erabaki-proposamena eztabaidatu eta bozkatzea igaroko da.

e) Zuzenketak ordena honetan bozkatuko dira, hurrenez hurren: itzultzeko zuzenketak, ordezkariak osoko zuzenketak, ezabatzeko partzialak, aldatzeko partzialak, eta gehitzekoak. Itzultzeko osoko zuzenketek aurrera egiten badute, irizpena edo proposamena baztertutzat joko da. Ordezko osoko zuzenketa bat onartzen bada, puntua amaitutzat emango da, eta aurkeztu diren gainerakoak ezetsitatzat joko dira, bai eta irizpena edo proposamena ere. Zuzenketa partzial batek edo batzuek aurrera egiten badute, irizpenaren bozketa egingo da amaieran, ukitutako puntuak sartu edo kentzearen ondoriozko edukiarekin, aurrera egin duen zuzenketa partzial motaren arabera.

f) Esku-hartzeen iraupena taldeen ordezkagarritasunaren arabera izango da; horregatik, ordezkariak handiena duten bi taldeen esku-hartzeak gehienez 15 minutuko iraupena izango du lehen itzulian eta 10 minutuko bigarren itzulian, eta gainerako udal-taldeek gehienez hamar minutu izango dituzte lehen itzulian eta bost minutu bigarrenarekin. Alkatetzak zainduko du hori guztia betetzen dela.



g) Esku hartzeko denbora guztiak, aipamenei erantzuteko txanda izan ezik, udal-talde politikoaren ordezkari bakarrak erabili ahalko ditu, edo ordezkari biren edo gehiagoren artean banatu ahalko dira.

h) Interbentzio baten baitan norbait aipatua izan dela uste badu, alkateari eskatu diezaiokete aipamenei txanda eman diezaiola, eta alkatea izango da eskaria onartzea edo ez onartzea erabakiko duena, betiere, dena delako aipamen horretan zinegotziaren begirune, duintasun edo jokabideari kaltea eragin diezazkioketen balio-iritziak edo zehaztasun-faltak jaso izan diren aztertu eta gero. Era honetako aipamen bat egiten bada, aipatua izan den zinegotziari hitz egiteko aukera emango zaio, gehienez hiru minutuz, eztabaidagaiaren mamian sartu gabe, egin zaizkion aipamenei espreski erantzun ditzan.

i) Betiere, gaiaren garrantzia edo konplexutasuna edo beste arrazoi justifikatu batzuk kontuan hartuz, alkateak denbora luzeago bat baimendu ahalko du esku- hartzeetarako zein txanda gehigarrietarako.

j) Alkateak ordenara itzul dadin edo eztabaidagaiari lot dakion ohartaraztekoak beste etenaldirik ez da onartuko hitz egiten ari denari egitea.

k) Esku hartzean, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan hitz egin ahalko da.

5.- Idazkaritza eta Kontu-hartzailatza bere gain duten funtzionarioek alkateak aholkularitza teknikoa emateko edo kontzeptuak argitzeko hala eskatzen dienean esku hartu ahalko dute. Halakoetan, alkateak planteatutako gaiari buruz beren eskumeneko esparruko informazioa ematera mugatuko dira.

53. artikulua.- Bilkuretako ordena.

1.- Alkateak hitza erabiltzen ari den zinegotziari deitu ahal izango dio honako arrazoi hauengatik: urgentzia justifikatzeko zeukan txanda laburra erabili duelako gaiaren mamian sartzeko, eztabaidatik nabarmen alden du delako, dagoeneko eztabaidatu edo bozkatu dena mintzagai hartu duelako berriro, edota parte-hartzeko denbora gainditu duelako galdera edo eskakizun bat egiteko unean.

Esku-hartze berean, zinegotzi bati bigarren aldiz horrela ohartarazi eta gero, Udalburutzak hitza kendu ahalko dio, hori eragozpena izan gabe taldeko beste kide batek esku har dezan bere txandan dagokion denboraren gainerakoan.

2.- Kasu hauetan alkateak ordenara itzul dadin ohartarazi ahalko dio edozein udalkideri:


a) Udalbatzaren edo bertako kideen omena iraintzen duten hitzak edo kontzeptuak adierazten dituenean.

b) Etenaldiak eragiten dituenean edo, beste edozein eratan, bilkuren ordena nahasten duenean.

c) Hitz egin nahi duenean, hitza eman ez zaionean edo hitza kendu ondorenean.

Bilkura berean (hiru) aldiz ordenara itzul dadin ohartarazi eta gero, (bigarren) gaztigatu zaiola (hirugarren) ohartarazpenak zer ondorio izango zituen, alkateak osoko bilkuratik joan dadila agindu ahalko dio, eta egoki iruditzen zaizkion neurriak hartu ahalko ditu kanporatzea gauzatzeko.

3.- Alkateak etenaldiak egitea erabaki ahalko du, udal-taldeek gaiak aztertzea ahalbidetzeko, edo beste arrazoi batzuegatik; eta bilkurak jarraitzea era larrian galarazten edo zailtzen duen egoera bat gertatuz gero, bilkura eten egin ahalko du, eta erabaki –taldeetako bozeramaileekin kontsulta egin eta gero– egiten ari zen egun berean berriz noiz hasi, edo, bestela, aztertzeke geratu diren gaiak osoko bilkura berezi batean edo hurrengo ohiko bilkura batean sartzeko.



4.- Ordena-arazo gisa, eztabaidaren edozein unetan, zinegotziek alkateari erregelamendu hau bete dadila eskatu ahalko diote alkateari, aplikatzeko eskatzen duten manua aipatuz horretarako. Udalburuak dagokiona erabakiko du, horren inguruan inolako eztabaidari ekiteko aukerarik gabe. Ordena-arazoez ez dute txandarik agortuko.

54. artikulua.- Bozketak.

1.- Zinegotzien botoa pertsonala eta besteren esku ezin utzizkoa da, hori eragozpena izan gabe Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeko 25.6 artikuluan xedaturikoa aplikatzeko; hain zuzen, artikulua horren arabera, amatasunagatik edo aitatasunagatik atsedenaldia hartzen duenean, zinegotziak bere botoa atxikita dagoen udal-talde politikoko bozeramailearen esku utz dezake, edo, bestela, beste zinegotzi baten esku.

Botoa besteren esku uzteko, Udaleko alkate- udalburuari idazki bat zuzendu beharko zaio, botoa uzten duen pertsonaren nahiz botoa bere esku hartzen duenaren izenak jasota, eta boto hori zein bozketatan erabili ahalko den eta beste pertsonaren esku noiztik noizera uzten den adierazita; azken aldi hori ezingo da izan, jaiotza gertatzen denetik, araudi orokorrean halako baimenetarako ezarrita dagoen iraupena baino luzeagoa. Zinegotziek ezingo dute beren esku hartu besteren boto bat baino gehiago.

2.- Bozketak izan daitezke ohiko bozketak, izenezko bozketak edo ezkutuko bozketak.

3.- Ohiko bozketetan, baiezkoa, ezezkoa edo abstentzioa zeinu konbentzionalen bidez adierazten dira.

4.- Izenezko bozketetan, deituren bidez deitzen da, eta zinegotzi bakoitzak “bai”, “ez” edo “abstentzioa” erantzuten du ozen.

5.- Ezkutuko bozketetan, udal-ordezkarik bakoitzak boto-papera sartzen du boto-ontzi batean; azken hori toki-araubideari buruzko legedian aurreikusitako kasuetan baino ez da erabiliko.

6.- Ohiko bozketa izango da botoa emateko sistema arrunta, Udaleko Osoko Bilkurak, ohiko bozketa batean eta gehiengo soilez, izenezko bozketa egitea erabaki ezean, kasu jakin batean.

7.- Ezkutuko bozketa kasu hauetan soilik erabili ahalko da:

a) Konstituzioko 18.1 artikuluan aipatzen diren oinarritzko eskubideetako bati eragin diezaioketen gaiak direla eta, gehiengo osoz hala erabakitzen denean.

b) Pertsonak hautatzen edo kargugabetzen direnean, alkatearen hautapena eta zentsura- mozioa barne, bertan dauden kideen gehiengo sinple bidez horrela adosten bada.


c) Zehapen-espedienteak hasten direnean edo zehapenak ezartzen direnean, gardentasunari eta gobernu onari buruzko legedia aplikatuz.

d) Hauteskunde-legedian eta toki-araubideari buruzko legedian xedaturiko beste kasu batzuetan, halakorik xedatzen baldin bada.

8.- Bertaratutako pertsona guztiek zeinu konbentzionalak erabiliz baiezkoa adierazten badute, gaiak aho batez onartuta geratuko dira, bozketarik egin gabe, eta alkateak hala aldarrikatuko du espresuki.

55. artikulua.- Erabakiak hartzea.

1.- Aplikagarria den legediak gehiengo kalifikatua eskatzen duen kasuetan izan ezik, Udaleko Osoko Bilkuraren erabakiak, oro har, bertaratutako kideen gehiengo soilaren bidez hartuko dira.



Gehiengo soila gertatzen da aldeko botoak kontrakoak baino gehiago direnean.

Gai bati buruzko eztabaida hasita dagoela, bilkuratik joatea abstentziotzat jotzen da. Berdinketa gertatuz gero, beste bozketa bat egingo da, eta berdinketak badirau, udalburuaren kalitateko botoak ebatziko du.

2.- Deusezak izango dira deialdian jaso gabeko gaiei buruz bilkura berezietan hartutako erabakiak, bai eta gai-zerrendan ez dauden gaiei buruz ohiko osoko bilkuretan hartutakoa ere, presakotasuna bereziki eta alde aurretik deklaratu ezean.

56. artikulua.- Mozioak eta galde-eskeak.

1.- Izapidetzeari begira, mozioa erabakitzaileak bi kategoriatan sailkatzen dira:

a) Udalaren Osoko Bilkuraren eskumeneko erabaki batzuk har daitezela proposatu, eta alde aurretik izapide batzuk egin daitezela eta udal-zerbitzu batek edo batzuek txostenak eman ditzatela eskatzen duten mozioak, berekin gastu bat egitea dakartelako, edo konpromiso batzuk hartzea eragiten dutelako, edo azterlanak egitea edo aurrekariak aurkeztea behar dutelako.

b) Erabaki-proposamen ideologiko, programatiko, instituzional edo protokolario bat egiten duten mozioak, edo gai jakin baten inguruko jardura batzuk abian jartzeko edo presakotzat hartzeko erabakia proposatzen dutenak.

2.- Aurreko zenbakiko a) letran jasotako mozioak zerbitzu eskudunari bidaliko zaizkio, egindako proposamenaren arabera izapidetzeko, dagozkion txostenak egin ditzan. Dagokion Informazio Batzordeak irizpena eman ondoren, dagokion organoaren gai-zerrendan sartuko da.


3.- b) kategoriako mozioak ohiko bilkurak egin baino gutxienez hiru egun baliodun lehenago erregistratuko dira, eta gai-zerrendan sartuko dira, osoko bilkuraren eskumena halakotzat kalifikatu eta egiaztatu ondoren. Mozioak alderdi politiko guztiei bidaliko zaizkie erregistratu ondoren.

4.- Mozio bat a) edo b) motari dagokion kalifikatzeko ahalmena Alkatetzarena da, eta, egoki iritzitako aholkularitza teknikoak eman ondoren, aurretik xedatutakoaren arabera ebatziko du, baita izapidea ezestea ere, bere ustez, proposamenak Udalbatzaren osoko bilkuraren eskumenak gaingiditzen baditu.

5.- Galde-eskeen txanda baino lehen, eta presazko arrazoiak direla medio, Osoko Bilkuraren ohiko bilkuretan zinegotziek beren iritzia eman ahal izango dute. Idatziz egingo dira, bitarteko elektronikoen bidez, eta osoko bilkura hasteko adierazitako ordura arte aurkeztu ahal izango dira. Proposamena egin duen taldeak gehienez hiru minutu izango ditu premia justifikatzeko. Ondoren, Osoko Bilkurak premiazko eztabaidaren bidez kototasunari buruz bozkatuko du. Bozketaren emaitza baiezkota bada gehiengo osoz, proposamena eztabaidatu eta bozkatuko da, ohiko mozioetan aurreikusitako garapenaren arabera. Ezin izango da aurkeztu gai berari buruzko premiazko moziorik, Osoko Bilkurak alde aurretik atzera botatuko mozio arrunt bati buruzkorik.

6.- Eskerak idatziz egin beharko dira. Ohiko bilkura hasi baino bost egun baliodun lehenago aurkeztu beharko dira Alkatetzan. Bilkura berean edo hurrengoan eztabaidatu ahal izango dira, alkatetzaren irizpidearen arabera, baina ezingo dira inolaz ere bozkatu.

7.- Galdera idatziz egin ahal da, ohiko bilkura egin baino gutxienez bost egun baliodun lehenago eta hartzaileak bilkura berean erantzungo die, behar bezala arrazoitutako arrazoiengatik erantzuna hurrengo bilerara arte atzeratzen ez bada.



Edonola ere, ahozko galderak egin ahal izango dira osoko bilkuran bertan.

8.- Esku-hartzeak mugatuko dira halakoak formulatzera eta hartzaileek aintzat hartzera edo erantzutera. Alkateak ezarriko du, kasu bakoitzean, galde-eskeen txandako esku- hartzeen gehieneko iraupen-denbora.

9.- Biztanleen interes orokor edo sektorialak ordezkatzeko dituzten elkarte edo erakundeetako batek Udaleko Osoko Bilkuraren aurrean azalpena eman nahi duenean gai-zerrendako punturen baten inguruan, halakoaren administrazio- izapideetan interesdun gisa parte hartu duelarik, egin ahalko du eta Alkatetzatik hitzartze tartea eskainiko zaio. Hitza hartzeko asmoa Alkatetzari bilkura hasi baino lehen jakinaraziko zaio.

10.- Osoko bilkura bukatutik, Alkatetzak txanda bat ezar dezake, bertaratutako herritarrek udal- intereseko gai zehatzen gainean galde-eskeak egin ditzaten. Alkatetzari dagokio txanda horri ordena eta amaiera ematea.

56 bis artikulua.- Zuzenketak aurkezteko eskubidearen bermea eta onartzeko baldintzak

1.- Aurrekontu orokorraren espedientea izapidetzeko 106. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, ordenantza fiskalak, ordenantza orokorrak edo erregelamenduak izapidetzeko prozeduretan eta udalbatzak onartzeko erabateko gehiengoa behar duten hirigintza-gaietan, udal-taldeek 15 egun balioduneko epea izango dute proposamenaren testu osoa bidaltzen denetik, gaiari buruzko irizpena eman behar duen informazio-batzordea egiten den egunera arte.

2.- Gai bat ohiko osoko bilkurako gai-zerrendan sartzen bada, eta aldez aurretik ez bada irizpenik eman, zuzenketak aurkeztu ahal izango dira, idatziz, osoko bilkurarako deialdia egiten den egunetik hasi eta bilkura egin baino 48 ordu lehenagora arte.

3.- 56.1.b artikuluan aipatzen diren gai-zerrendan jasotako mozioen kasuan, horien erabaki-proposamena ideologikoa, programatikoa, instituzionala edo protokolozkoa bada, edo agintari eta erakunde publikoei eskatzeko bada, aldez aurretik irizpenik eman ez bada, zuzenketak aurkeztu ahal izango dira osoko bilkura egin baino 24 ordu lehenago.

Aldez aurretik Informazio Batzordea egiten bada, ahozko zuzenketak aurkeztu ahal izango dira bilkura horretan.


4.- Akordio-proposamenaren eta aurkeztutako zuzenketa artean hartzen diren erabakien ondorioz, transakzioan egindako zuzenketek jatorrizko proposamena eta guztiz edo partzialki onartutako zuzenketa lekuz aldatuko dituzte, eta azken hori kendu egingo dute.

5.- Zuzenketak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira.

Salbuespen gisa, 3. paragrafoan jasotako kasuaz gain, ahozko zuzenketak soilik onartuko dira eztabaidan zehar, akats edo akats tekniko, terminologiko edo gramatikalak zuzentzeko.

57. artikulua.- Agerraldiak.

1.- Alkateak eskuordeturik, kudeaketa-arlo baten erantzukizuna duen zinegotziak Udaleko Osoko Bilkuraren aurrean agertu beharko du, azken horrek hala erabakitzen duenean. Alkateak zehaztuko du zein ohiko osoko bilkuratan edo osoko bilkura berezitan agertu beharko du, eta horren berri emango zaio interesdunari.



2.- Udalbatzak, alkatearen proposamenez edo gutxienez legezko zinegotzi-kopuruaren laurdenak hala eskaturik, osoko bilkura berezia egitea erabaki ahalko du, Tokiko Gobernu Batzarraren kudeaketa eztabaidatzeko xedez.

58. artikulua.- Bilkuren publizitatea.

1.- Udaleko osoko bilkurak publikoak dira. Hala ere, eztabaida eta bozketa ezkutukoak izan ahalko dira, Konstituzioko 18.1 artikuluan aipatzen diren oinarritzko eskubideetako bati eragin diezaioketen gaien kasuan, toki- erakundeko Osoko Bilkurak gehiago osoz hala erabakitzen duenean.

2.- Komunikabideek osoko bilkurak grabatu ahalko dituzte. Betiere, bertaratzen diren herritarrei alde aurretik jakinarazi beharko zaie bilkura grabatu eta zabaldu egingo dela, eta ahal den neurrian saihestu beharko da herritarrok grabatzea, datu-kalitatearen printzipioa aplikatuz, datuak babesteari buruzko legediaren ildotik; printzipio horrek, hain zuzen, lortu nahi den xedearen arabera egokiak, bidezkoak eta ez-gehiegizkoak diren datuak soilik tratatzera behartzen du.

3.- Aztertzen ari diren gaiek pertsonaren edo familiaren intimitateari, ohoreari edo irudiari eragin diezaioketenean, alkateak aginduko du, bere ekimenez edo edozein udal-talde politikok hala eskaturik, aipaturiko grabazioa eten dadila gai horiek aztertzen diren denbora-tartean, herritarren oinarritzko eskubideak nahiz datu pertsonalei buruzko legedia gordetze aldera.

Bilkuraren izaera publikoa eteteko erabakiak ezarri ahalko du bilkura hori zati batean edo osorik gauza dadin edo gauzatzen jarrai dadin eta eztabaida eta bozketa egin daitezen bertaratutako herritarrik egon gabe.

4.- Udaleko Osoko Bilkuraren erabakien laburpen bat webgunean eta gardentasun- atarian argitaratuko da, betiere gardentasunari buruzko eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudiak aintzat hartuz.

5.- Udalak sustatu egingo du osoko bilkura guztiak grabatzea eta gero grabazioak herritarrentzat eskuragarriak diren plataformetan zabaltzea. Halaber, osoko bilkurak bitarteko telematikoak erabiliz istantean erreproduzitzea sustatuko da, hori posible denean. Horretarako, sistema elektronikoa, telematikoak, megafonia- sistemak, telebista-zirkuituak, komunikazio- sareak nahiz beste bitarteko teknologiko batzuk erabili ahalko dira, bilkuren nondik norakoen zabalkundea handiagoa izan dadin.

6.- Desgaitasuna duten pertsonen kasuan, bilkuren informazioa eta publizitate-araubidea bitarteko eta formatu irisgarriak erabiliz eman beharko dira.


59. artikulua.- Aktak / Ikus-entzunezko aktak.

1.- Bilkurak grabatzea edo euskarri elektronikoko agiriak erabiltzea hautatzen denean, dagozkien fitxategi elektronikoen osotasuna eta egiazkotasuna nahiz zinegotzien sarbidea bermatzeko moduan gorde beharko dira.

2.- Bai grabazioaren ondoriozko fitxategia, bai haren egiazkotasunari eta osotasunari buruz Idazkaritzak emandako ziurtagiria nahiz bilkuren agiritzat erabilitako euskarri elektronikoko agiri oro, bilkuren aktarekin batera joan ahalko dira, akta horretan argudiaketen puntu nagusiak jasotzeko beharrik gabe.

3.- Udalak lehentasunez ikus-entzunezko akten sistema erabiliko du osoko bilkuretan.

4.- Ikus-entzunezko aktek elementu hauek izango dituzte, gutxienez:



- Akta laburra: agiri elektronikoa honek bilkura baten gai-zerrendako puntuak eta gai-zerrenda horretako puntu bakoitzean hartutako erabakiak jasotzen ditu.
- Ikus-entzunezko agiria edo bideoa: bideoan eginiko grabazio honetan, bilkuran edo bileran gertaturiko guztia jasotzen da, eta audioa zein irudiak dauzka. Agiri honetan, esku hartzen duen pertsona bakoitzaren esku-hartzeak hitzez hitz jasotzen dira, eta agiri elektronikoan esteka bidez txertatzen da.
- Izenpe elektronikoa: Bilkurako Idazkaritza bere gain duen pertsonaren erabilera legaleko izenpe elektronikoak agiria fede-emaila bihurtzen du, eta zuzenbide-ondoreak ematen dizkio. Alkateak ere izenpetuko du ikus-entzunezko akta.

5.- Ikus-entzunezko akta agiri publiko eta ofiziala da, Idazkaritzaren titularrak izenpetua eta baliozkotua, fede publikoko bere eginkizuna betez. Ondorioz, zuhurtasun osoz jokatu da bera erabili eta tratatzean; hala, gomendatzen da saihesten dadila osorik edo zati batean deskargatzea eta berriz argitaratzea, kontuan harturik gardentasunaren eta publizitatearen eskubideak berdin gordetzen direla ikus-entzunezko atala ikuste hutsarekin, azken hori pertsona guztientzat eskuragarri egonik webgune ofizialean, erreproduzio- mugarik gabe. Artikulu honetan xedaturiko zuhurtasun-betebeharra ez betetzeak erantzukizuna sortuko du, ikus-entzunezko aktaren trafikoak edo birzabaltzeak irudi edo interes korporatiboak kaltetzen dituenean edo datuen babesari eragiten dionean.

6.- Xedapen honetan xedaturik ez dagoen guztian, aktei buruz indarrean den araubide juridikoa aplikatuko zaie ikus-entzunezko aktei.

III. KAPITULUA.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN FUNTZIONAMENDUA.

60. artikulua.- Xedapen orokorrak.

Tokiko Gobernu Batzarraren funtzionamendua kapitulu honetan ezarritakoaren arabera eraenduko da, eta, bertan xedaturik ez dagoen guztian, erregelamendu honetan osoko bilkuretarako ezartzen diren arauak jarraituko zaie, aplikagarriak diren heinean.

61. artikulua.- Bilkura-motak.


1.- Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurak izan ahalko dira ohikoak eta bereziak, eta lehen edo bigarren deialdian egin ahalko dira. Lehen deialdian erregelamendu honetako 64. artikuluan adierazitako quoruma lortzen ez bada, bilkura automatikoki 30 minutu geroago egitekotzat joko da, bigarren deialdian.

2.- Ohiko bilkurak egingo dira Tokiko Gobernu Batzarrak alde aurretik horretarako hartutako erabakian ezartzen den maiztasunarekin. Salbuespenezko kasuetan izan ezik, abuztuan ez da bilkurarik egingo.

3.- Bilkura bereziak alde aurretik ezarritako maiztasunak gabe egiten dira, alkateak halakoetara izaera horrekin deituta.

4.- Presako bilkura bereziak egiten dira, aztertu beharreko gaiaren edo gaien premiazko arrazoiak direla eta, haien deialdia erregelamendu honetako 63. artikuluan ezarritako gutxienezko aurrerapenaz ezin egin daitekeenean. Kasu horretan, gai-zerrendako lehen puntua deialdiaren presazko izaerari buruz erabakitzeak izango da, eta Tokiko Gobernu Batzarrak hori berresten ez badu, bilkura berehala bukatutzat emango da.

5.- Tokiko Gobernu Batzarra eratzeko saioa Alkateak deialdia igorrita egingo da, hori osatzen duten kideak izendatu diren egunetik hasita hamar eguneko epean.



62. artikulua.- Eztabaidatze-bilkurak eta erabakitze-bilkurak.

1.- Eztabaidatze-bilkurak egiten dira gai bat edo batzuk aztertzeko eta, hala badagokio, txostena edo irizpena emateko helburu bakarrekin.

2.- Erabakitze-bilkurak egiten dira bai eztabaidatzeko, bai erabakitzeko, gobernu- batzarrak erabakitzeko eskuordetzan dituen eskumenetako gaien inguruan. Deialdian bestela adierazi ezean, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurak erabakitzekoak izango dira.

63. artikulua.- Deialdia.

1.- Alkateari dagokio Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuren gai-zerrenda ezartzea eta deialdia egitea. Hori bitarteko elektronikoak erabiliz egingo da, hogeita lau ordu lehenago gutxienez, deialdia epe horren barruan egitea eragozten duten presako kasuetan izan ezik; orduan, gai-zerrendako puntuez arduratu baino lehen, gehiengo osoaren erabakia eskatuko da, presakotasuna berresteko.

2.- Nolanahi ere, Tokiko Gobernu Batzarra balio osoz eratuta geratuko da, deialdiaren baldintza guztiak bete ez badira ere, kide guztiak edo haiek legez ordezkatzten dituzten pertsona guztiak aurrez aurre edo, bestela, urrutitik bildurik egon, eta aho batez hala erabakitzen dutenean.

3.- Bilkuran aztertzekoa den dokumentazioa eta, betiere, erabaki-proposamenak eta proposamen horien oinarri diren txostenak deialdia egiten den egunetik bertatik izan beharko dituzte eskuragarri batzarkideek, arrazoi justifikaturen bat edo presako arrazoiak direla eta, hori ezinezkoa izan ezean.

64. artikulua.- Gobernu-batzarra eratzea.

1.- Tokiko Gobernu Batzarra balio osoz eratuta geratuko da, baldin batzarkideen herenak bertaratzen badira; dena dela, bertaratuen inoiz ere ezingo dira izan hiru baino gutxiago. Nolanahi ere, alkateak nahiz Udaleko idazkariak egon beharko dute, edo haiek ordezkatzten dituztenek. Quorum horri bilkura guztian zehar eutsi beharko zaio.

2.- Ez da nahitaezkoa izango Udaleko idazkaria edo hura ordezkatzten duena bertaratzea, eztabaidatze-bilkurak egiten direnean. Halakoetan, edozein batzarkidek bete ahalko ditu eginkizun horiek, beharrezkoa izanez gero.


65. artikulua.- Erabakiak hartzea.

1.- Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiak bertaratuen gehiengo soilez hartzen dira, hau da, aldeko botoak kontrakoak baino gehiago direnean. Berdinketa gertatuz gero, alkatearen kalitateko botoak ebatziko du, eta alkateak, halaber, puntu bat gai-zerrendatik kentzeko ahalmena izango du, neurri horrekin geroago erabakia hartzeko kontsentsu handiagoa lortze aldera.

2.- Udaleko Udalbatzak eskuordetzan emandako eskumenen kasuan, gaiek dagokien informazio-batzordearen irizpena izan beharko dute.

66. artikulua.- Bilkuren publizitatea.

1.- Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurak ez dira publikoak izango, ordenamendu juridikoan hala xedaturik baldin badago; kasu horretan, Udaleko Osoko Bilkurak, legezko kide- kopuruaren gehiengo osoz, izaera publiko



horrekin egin daitezela ezarri ahalko du. Aurrekoa hala izanik ere, betiere ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta nork bere irudia izateko herritarren oinarritzko eskubidearekiko errespetua kaltetu gabe izango dira publikoak gobernu-batzarraren bilkurak, organo horrek Udaleko Osoko Bilkurak eskuordetzan emandako eskudantziak gauzatzen diharduela egiten direnean.

2.- Nolanahi ere, eragozpena izan gabe aurreko zenbakian ezarrita dagoenerako, alkateak eskatu ahalko du gai jakin batean bertara daitezela edo parte har dezatela udal- administrazioko zuzendaritza-kide edo enplegatu publiko batzuek nahiz beste pertsona batzuek, banako gisa edo herritarren elkarte edo erakundeen ordezkari gisa, gai horren inguruko erabakia hobeki hartzen lagun dezaketenean, beren irizpide teknikoa edo gaiari buruz duten ikuspegia agertuz.

3.- Tokiko Gobernu Batzarraren erabakien laburpen bat udal-taldeei helaraziko zaie eta webgunean argitaratuko da, betiere gardentasunari buruzko eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudiak aintzat hartuz.

4.- 66. artikulua honetan xedaturik ez dagoen guztian, erregelamendu honetan osoko bilkuretarako ezartzen dena izango zaie aplikagarria Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura publikoei.

67. artikulua.- Gobernu-batzarraren aktak.

1.- Gobernu-batzarraren erabakiak aktan jaso beharko dira; akta hori idazkariak egin eta izenpetuko du, hori eragozpena izan gabe erregelamendu honetako 64. artikuluan eztabaidatze-bilkuretarako ezarrita dagoenerako.

2.- Bilkura bakoitzaren aktan honako datu hauek jasoko dira: data eta hasieraren eta bukaeraren orduak; bertaratutakoen izenak; aztertutako gaiak; eta hartutako erabakiak.

3.- Hurrengo bilkuran edo bilkuretan aztertuko du gobernu-batzarrak akta hori, onartzeko; haren kopia bana bidaliko zaie zinegotziei.

4.- Gobernu-batzarrak hartzen dituen erabakiak alkateak eta, fede-emaile publikoa den aldetik, idazkariak izenpetuko dute.


5.- Udalak ikus-entzunezko akten sistema erabili ahalko du gobernu-batzarraren bilkura publikoetan; kasu horretan, erregelamendu honetan, horretarako, osoko bilkuretarako ezartzen diren arauak izango zaizkie aplikagarriak.

IV KAPITULUA.- INFORMAZIO-BATZORDEEN FUNTZIONAMENDUA

68. artikulua.- Xedapen orokorrak.

1.- Informazio-batzordeen funtzionamendua kapitulu honetan ezarritakoaren arabera eraenduko da, eta, bertan xedaturik ez dagoen guztian, erregelamendu honetan osoko bilkuretarako ezartzen diren arauak jarraituko zaie, aplikagarriak diren heinean.

2.- Informazio-batzorde berezien funtzionamendua halakoak eratzeko erabakian ezarritakoaren arabera eraenduko da, eta, bertan xedaturik ez dagoen guztian, erregelamendu honetan informazio-batzorde iraunkorretarako ezartzen diren arau orokorrei jarraituko zaie.



69. artikulua.- Bilkura-motak.


- 1.- Informazio-batzordeen bilkurak izan ahalko dira ohikoak, bereziak eta presako bilkura bereziak. Horiek guztiak lehen edo bigarren deialdian egingo dira.
- 2.- Informazio-batzordeen ohiko bilkurek aldez aurretik ezarritako maiztasun bat izango dute, eta haiek eratzera Udaleko Osoko Bilkuraren erabakian ezarritako maiztasunarekin egin beharko dira. Salbuespenezko kasuetan izan ezik, abuztuan ez da bilkurarik egingo.
- 3.- Informazio-batzordeen bilkura bereziak aurreko 2 zenbakian aurrez ezarritako maiztasunetik kanpo egiten dira, eta haien deialdia hurrengo 70. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedaturikoaren arabera egiten da.
- 4.- Presako bilkura bereziak egiten dira, aztertu beharreko gaiaren edo gaien premiazko arrazoiak direla eta, haien deialdia hurrengo 70. artikuluan ezarritako gutxienezko aurrerapenaz ezin egin daitekeenean. Kasu horretan, gai-zerrendako lehen puntua deialdiaren presazko izaerari buruz erabakitzea izango da, eta informazio- batzordeak hori berresten ez badu, bilkura berehala bukatutzat emango da.

70. artikulua.- Deialdia.

- 1.- Informazio-batzordeko buruari dagokio deialdiak egitea, eta gutxienez bi egun baliodun lehenago jakinarazi beharko zaizkie elektronikoki batzordekideei, presako bilkuren deialdiak izan ezik. Betiere, deialdiarekin batera gai-zerrenda helaraziko da, eta, presako bilkuren kasuan, zerrendako lehen puntutzat presakotasun hori berrestea sartu beharko da.
- 2.- Batzordeburuak deituko du informazio- batzordeen bilkura berezietara, bere ekimenez edo batzordea osatzen duen zinegotzi- kopuruaren laurdenak hala eskaturik; gehienez ere bi eskaera egin ditzake udal talde bakoitzak urte berean, tokiko agintea berritzen denean izan ezik, orduan ez baitira zenbatuko beste agintaldi batean egindako eskabideak.
- 3.- Deialdia egiten baldin bada aurreko zenbakian aipatutako zinegotzi-kopuruak eskaturik, informazio-batzordearen bilkura berezia ezingo da atzeratu hamabost egun baliodun baino gehiago, hura egiteko eskatu denetik hasita. Hortaz, epe horretan haren deialdia egiten ez bada, automatikoki deituko da bilkurara epe hori bukatzen den egunaren ondorengo hamargarren egun baliodunerako, 12:00etan, eta hala jakinaraziko die idazkaritzak udal-ordezkariei, arestian aipaturiko epea bukatu eta biharamunean.
- 4.- Bilkura berezira eskabidea idatziz egin beharko da, eta eskatzaile guztiek izenpetu beharko dute; Udaleko erregistroaren bidez izapidetuko da, eta gai-zerrendan sartu beharreko puntuak aditzera eman beharko ditu, bai eta dagokien dokumentazioa ere. Ezingo da gaia sartu ohiko bilkura baten edo bilkura berezi baten gai-zerrendan, izenpetzaile guztiek berariazko baimena eman gabe, salbu eta hura deialdiko gai bakarra bada.

71. artikulua.- Informazio-batzordea eratzea.

- 1.- Informazio-batzordeak balio osoz eratzen dira batzordeburua, idazkaria –edo, bestela, haiek legez ordezkatzen dituztenak– eta batzordekideen erdiak, gutxienez, biltzen direnean, aurrez aurre edo urrutitik. Quorum horri bilkura guztian zehar eutsi beharko zaio. Alkateak izendaturiko funtzionario batek bete ahalko ditu idazkaritza-eginkizunak, hitzarekin baina botorik gabe. Informazio-batzordeak balio osoz eratuta geratuko dira, deialdiaren baldintza guztiak bete ez badira ere, kide guztiak bildurik egon, eta aho batez hala erabakitzen dutenean.



2.- Informazio-batzordeen bilkura berezien deialdia batzordeok osatzen duten kide- kopuruaren laurden batek eskaturik egiten denean, batzordeburua edo hura legez ordezkatzekoa dena falta bada, informazio- batzordea balio osoz eratuta geratuko da, baldin batzordekideen erdiek osaturiko gutxieneko quoruma bertaratzen bada; dena dela, hura inoiz ere ezingo da izan hiru baino gutxiagokoa. Halakoetan, bertaratuen arteko adinez nagusienak jardungo du buru.

72. artikulua.- Erabakiak hartzea.

1.- Informazio-batzordeen erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilez hartuko da, eta batzarburuak berdinketak kalitateko botoaren bidez ebatzi ahalko ditu. Halako organoak osatzen dituzten pertsonak, informazio-batzordearen irizpen edo txostenarekin bat ez datozenean, boto partikularra eman ahalko dute, osoko bilkuran defendatzeko.

2.- Informazio-batzordeek erabakiak hartu ahalko ditu gai-zerrendan ez dauden gaiak buruz, baldin haien presakotasuna onartzen bada, halako organoak osatzen dituztenen gehiengo osoak hala iritzita.

3.- Alkateak ebatziko ditu, gai jakin batez arduratzeko eskumena dela eta, informazio- batzorde batzuen eta besteen artean sortzen diren gatazkak eta desadostasunak, halakorik sortzen baldin bada.

73. artikulua.- Bozketak.

1.- Kideen botoa pertsonala eta besteren esku ezin utzizkoa da, amatasunagatik edo aitatasunagatik atsedenaldia hartzen denean botoa besteren esku uzteko salbuespenarekin, informazio-batzorde iraunkorretarako; salbuespen hori erregelamendu honetako 54. artikuluan osoko bilkuretarako xedaturik dagoenaren arabera aplikatuko da.

2.- Informazio-batzordean boto haztatua erabiltzea erabaki baldin bada, egoera hori jaso beharko da dagokion irizpen edo proposamenean.

74. artikulua.- Bilkuren publizitatea.

1.- Informazio-batzordeen bilkurak publikoak izango dira, eta, horretarako, web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuko dira, 2 egun baliodun lehenago, bilkura egingo den eguna eta dagokion gai-zerrenda adierazita.


2.- Nolanahi ere, batzorde bakoitzeko buruak eskatu ahalko du gai jakin batean bertara daitezela edo parte har dezatela beste pertsona batzuek, banako gisa edo herritarren elkarte edo erakundeen ordezkari gisa, gai horren inguruko erabakia hobeki hartzen lagun dezaketenean.

3.- Artikulu honetan xedaturik ez dagoen guztian, erregelamendu honetan osoko bilkuretarako ezartzen dena izango zaie aplikagarria informazio-batzordeen bilkura publikoei.

75. artikulua.- Informazio-batzordeen aktak.

1.- Informazio-batzordeen bilkura bakoitzaren akta egingo da, honako hauek jasota:

- a) Bilkuraren eguna eta hasieraren eta bukaeraren orduak.
- b) Batzordeburuaren, batzordeko idazkariaren nahiz bertaturiko gainerako pertsonen izen- deiturak.
- c) Aztertu diren gaiak.



d) Emandako botoak eta irizpenak, eta, hala dagokionean, esku-hartzeen edukiaren laburpena.

2.- Informazio-batzordeetako kideek, boto partikularra eman gabe ere, irizpen- proposamenari buruzko beren motibazioa jasota gera dadin nahi dutenean, idatziz aurkeztu beharko dute, 24 orduko epe batean, bilkuratik egiten denetik hasita, aktan gehitzeko.

IV. TITULUA. UDAL POLITIKA PUBLIKOEN EZARTZE TEKNIKOA

I. KAPITULUA.- GOBERNUAREN JARDUN- EREMU EDO -ARLOAK.

76. artikulua.- Zedarritzea.

1.- Udalaren administrazioa gobernuko edo erantzukizun politikoko jarduera-eremu edo - arloetan antolatzen da, eta haietako bakoitzak funtzionalki homogeneousak diren administrazio- jardueraren sektore bat edo batzuk hartzen ditu barnean.

2.- Agintaldi bakoitzaren hasieran, Alkateak, antolamenduaren esparruan arauz dituen ahalak baliatuz, erantzukizun politikoko arloen zein eremu teknikoari eta zuzendaritzari loturiko arloen egitura ezarri edo mantenduko du, erregelamendu organiko honetan ezarrita dagoen moduan.

3.- Estrategia/Politika eta kudeaketa era egokian bateratzeko xedez, saiatu beharko da gobernuko edo erantzukizun politikoko jarduera-arlo horien definizioa funtsean bat etor daitezen eremu teknikoari eta zuzendaritzari loturiko erantzukizuneko arloekin nahiz informazio-batzordeen antolamenduekin.

77. artikulua.- Administrazio-antolamenduaren eta zuzendaritza-egituren arloko eskumenak.

1.- Eskumena uko egin ezinezkoa da, eta berezko eskumentzat esleiturik daukan administrazio-organoak gauzatuko du, eskuordetzan ematen denean edo goragokoak bereganatzen duenean izan ezik.


2.- Eskumena eskuordetzan emateari, goragokoak eskumena bereganatzeari, kudeaketa-gomendioari, izenpea eskuordetzan emateari zein ordezkioak izendatzeari aplikatuko zaion araubide juridikoa izango da sektore publikoaren araubidea arautzen duen legedian nahiz aplikagarria den beste legediren batean xedaturiko dagoena.

3.- Eskuordetzan emateko erabakia orokorrean jarduera-eremu edo -arlo exekutibo bati badagokio, ahalak zehaztu gabe, interpretatuko da eskuordetzan emandako arloari loturiko eskumen, eskubide eta betebeharrak guztiak hartzen dituela barnean, alegia, jatorriz eskudantziak esleiturik dauzkan organoari dagozkionak, eskuordetzan ezin eman daitezkeenak izan ezik.

4.- Alkateari dagokio, dekretu bidez, Udaleko jarduera-eremu edo -arloen kopurua, izena eta eskudantziak ezartzea, eta zinegotzi ordezkariari erantzukizunak eta eskumenak esleitzea.

5.- Alkatearen eta Osoko Bilkua raren eskumena da administrazio-organoak sortzea, aldatzea edo kentzea. Horren ondoretarako, Alkatearen titularrak, udal-administrazioaren zuzendaritzan dituen eskumenak baliatuz, egituren dauden administrazio-organoak ezarriko ditu, bereziki, zuzendaritzakoak, lehen mailako eremu tekniko eta zuzendaritzakoak edo, bestela, zerbitzu-burutzakoak direnak zehazturik, haien guztien eginkizunak ere ezarriko.

6.- Zuzendaritzako zein lehen mailako eremu tekniko eta zuzendaritzako edo, bestela, zerbitziburutzako maila organikoaren eginkizunak ere Alkatearen dekretuz definituko dira, hark antolamendu-arloan dituen ahalak



baliatuz, eta halakoak bete ahalko dira horretarako xedatutako zuzendaritza-kide profesionalak izendatzeko prozeduraren bidez, izendapen askearen bidez edo berariazko lehiaketa baten bidez, lanpostu zerrendan edo hura ordezkatzan duen kudeaketa-tresnan ezarrita dagoenaren arabera.

7.- Zuzendaritzako, eremu tekniko eta zuzendaritzako edo, bestela, zerbitziburutzako postuak egiturazkoak izan ahalko dira, edo agintaldi-tarte jakin baterako berariaz sortu ahalko dira, gobernu-taldeak garatuko dituen politika publikoen arabera. Kasu horretan, zuzendaritzako, eremu tekniko eta zuzendaritzako edo, bestela, zerbitziburutzako postuak nahiz antzeko postuak beteko dira zuzendaritza-kide profesionalak izendatzeko prozeduraren bidez edo izendapen askeko prozeduraren bidez.

78. artikulua.- Zuzendaritza publikoa.

1.- Udalak zuzendaritza publiko profesionaleko sistema bat ezarri ahalko du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko IV. tituluko III. kapituluaren xedaturik dagoen moduan.

2.- Udal-erregelamenduz edo, bestela eta behin-behinean, Udaleko Osoko Bilkuraren erabakiz, egiturazko elementuak ezarriko dira, bai eta zuzendaritza publiko profesionalerako ezarritako izendapen-mota horren bidez bete ahalko diren lanpostuen ezaugarriak zein araubide juridikoa ere.

3.- Nolanahi ere, Alkatetzaren dekretuz, Udaleko Kudeatzailletza edo Koordinazio Orokorra sortu ahalko da, bai eta kudeatzailletza sektorialak edo koordinazio sektorialeko arduradunak ere, Arloko Zuzendaritza izendatzeko aukerarekin. Zuzendaritza-postu horiek betetzeko, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen xedaturik dagoenari jarraituko zaio, bai eta, kasu bakoitzean, lege hori garatzen duen udal-erregelamenduan edo horretarako hartutako erabakian ezarritakoari ere.

4.- Zuzendaritza-kide publiko profesionalen figura arautzeko erregelamenduan xedaturik dagoena gorabehera, salbuespenez, A1 sailkapen-taldeko funtzionarioak ez diren pertsona batzuek bete ditzaten erreserbatu ahalko dira ondoren azaltzen diren baldintzetako bat bederen betetzen duten zuzendaritza-profileko lanpostuak:


a) Lanpostu horien eremu funtzionalak gobernu irekiari, eraldaketa digitalari edo informazioaren teknologia berriei loturik egotea edo udal-administrazioa digitalizatzeko prozesuak ezartzeko xedea izatea, edo segurtasun informatikoa eta datu pertsonalen babes instrumentala gordetzeko xedea, baldin egiaztatzen bada lanpostu horiek ez direla egiturazkoak, ez dutela agintaritza-eginkizunik betetzen, eta antolamenduan zeregin horiek egiteko gaitutako funtzionarioik ez dagoela.

b) Berrikuntzarako, modernizaziorako edo antolamenduaren edo giza baliabideen eraldaketarako programen ingurukoak izatea, eta agintaldi bat baino gehiago irautekoak ez izatea.

c) Tokiko sektore publiko instituzionaleko erakundeetako zuzendaritzaren edo kudeatzailletzaren maila goreneko postuak izatea, haiek betetzeko agintaritza-eginkizunak edo ahal publikoak betetzen jardutea beharrezkoa ez denean.

79. artikulua. Gobernu-plana.

1.- Gobernu-plana agiri estrategiko bat da, agintaldiko jarduera-ildo nagusiak definitu eta dagokien lehentasuna ezartzeko; jarduera-ildo horietatik abiaturik, urteko edo aldian behingo plan operatibo eta sektorialak garatzen dira, haietan udal-jarduneko arlo bakoitzaren helburuak eta kudeaketa-adierazleak ezarririk.



2.- Gobernu Plana funtsezko tresna da udal-esparruan plangintza estrategikoa egiteko, eta helburu estrategikoak, espezifikoak eta jarduerak finkatzen ditu, bai eta jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak ere.

3.- Aurrekontua gobernu-planaren zein urteko ekitaldi bakoitzeko plan operatibo edo sektorialen zenbakizko adierazpena izango da.

80. artikulua.- Udal gobernu-plana prestatzea eta onartzea.

Gobernu-batzarrak, teknikariekin eta zuzendaritza-kideekin lankidetzan, agintaldi bakoitzaren hasieran gobernu-plan bat prestatuko du. Organo honek onarpenari ekingo dio osoko bilkurari jakinaraziz eta gardentasun-atarian iragarritz.

81. artikulua.- Erakunde-eskumenen eta kudeaketaren arloko prestakuntza.

1.- Agintaldi bakoitzaren hasieran, Udalak prestakuntzako programak edo jarduerak sustatuko ditu, erakundeen zein kudeaketaren arloan udal-ordezkarien gaitasunak sendotu eta garatzeko, haien ezagutzak eta trebetasunak indartzeko xedez, erakunde- kultura transmititzeaz eta estrategia eta kudeaketa era egokian bateratzeaz gain.

2.- Gobernu-taldeko kideen erantzukizuna eta betebeharra izango da, jokabide-kodean hala jasorik, Udalak edo beste edozein prestakuntza-erakundek antolatutako programetara joatea eta halakoetan parte hartzeari praktikan onura ateratzea.

3.- Nolanahi ere, Udalak harrera-programa bat egingo du, udal-ordezkarien, aholkularien edo zuzendaritza-kideen eginkizunak aurrenekoz bere gain hartzen dituztenentzat. Harrera- programa horretan, saio bat bederen egingo da zerbitzu publikoaren balioei, udal- antolamenduaren oinarritzko ezaugarriei, eta Udalak eskaintzen duen zerbitzu-zorroari buruz.

82. artikulua.- Zuzendaritza Kontseilua.

1.- Alkatetzaren dekretu bidez, zuzendaritza- kontseilu bat sortu eta arautu ahalko da, eta Agintaldi Planean diseinaturiko lerro estrategikoak burutzeko ardura izango du.


2.- Zuzendaritza Kontseiluak ez du izango berezko edo eskuordetzan emandako erabakitze eskumenik.

3.- Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamenduak malgutasuna, formalismorik eza, interakzioa eta arazo politiko edo administratibo premiazkoenen koordinazioa izango ditu printzipiotzat.

83. artikulua.- Zuzendaritza Kontseiluaren xedeak eta helburuak.

Zuzendaritza Kontseiluak, besteak beste, xede, helburu eta eginkizun hauek izango ditu:

- a) Gidalerro politikoak antolamendu-egiturara era egokian eramatea.
- b) Administrazio-egiturek udal-politika ezartzea hobetzea.
- c) Proposamen politikoak alderdi teknikotik atzeraelikatzea.
- d) Antolamendu-lidergoa sustatzea.
- e) Barne-komunikazioa hobetzea.
- f) Antolamenduaren osoko eta zeharkako ikuspegi bat ematea.



- g) Udal-jarduneko arloen arteko interakziorako bitartekoa izatea.
- h) Zehaztutako helburuak betetzeko beharrezkoak direnak.

84. artikulua.- Zuzendaritza Kontseiluaren osaera.

- 1.- Alkateari dagokio Zuzendaritza Kontseiluko kideak izendatzea.
- 2.- Alkatetzak horretarako deitzen dienean, bilera horietara zinegotzitzen arduradunak, zuzendaritza-kideak edo edozein enplegatu publiko joan ahalko dira.

V. TITULUA . UDALAREN ARAU-SISTEMA ETA XEDAPEN OROKORRAK PRESTATZEA

I. KAPITULUA.- UDALAREN ARAU-SISTEMA.

85. artikulua.- Udalaren arau-sistema.

Erregelamendu honetan xedaturik dagoenaren ondoreetarako, Udalaren arau-sistema da Udaleko gobernu-organo eskudunek onartzen dituzten arau-xedapenen multzoa, oinarritzko legedian, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean nahiz erregelamendu organiko honetan ezarrita dagoen moduan.

86. artikulua.- Udalaren arau-xedapenen tipologia.

1.- Toki-araubideari buruzko oinarritzko legedian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko lehen xedapen gehigarrian ezarrita dagoenaren arabera, EAEko udalen arau-xedapen orokorrak era hauetakoak izango dira:

- a) Erregelamendu organikoak eta izaera organikoko arauak.
- b) Erregelamenduak.
- c) Ordenantzak.
- d) Alkatetzaren dekretuak eta jarraibideak.
- e) Alkatetzaren bandoak, salbuespenezko edo larrialdiko egoerak direla eta.


2.- Alkatetzak, era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko lehen xedapen gehigarriko bigarren zenbakian ordenantzak eta erregelamenduak aldatzeko ezartzen diren ahalmenak baliatu ahalko ditu.

87. artikulua.- Erregelamendu organikoak eta izaera organikoko arauak.

1.- Udal erregelamendu organikoa eta izaera organikoko arauak Udal Osoko Bilkurak onartutako arau-xedapen orokor batzuk dira, eta, haiek onartu, aldatu edo indargabetzeko, aldeko botoa eman behar du osoko bilkuraren organiko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoak.

2.- Arau-xedapen orokor horiek toki-araubideari buruzko oinarritzko legedian halako arauetarako berariaz erreserbatzen diren gaien gainean ematen dira.

3.- Hala ere, erregelamendu organikoan nahiz ordenantza gisa onartzen diren izaera organikoko arauetan, halakoak onartzen direnean, izaera orokor hori ez duten arau batzuk sartu ahalko dira; hori hala dela jaso beharko da, halako izaera ez duten artikulua edo xedapenak esplizituki adieraziz, azken xedapen batean.



88. artikulua.- Erregelamenduak.

1.- Erregelamenduak arau-xedapen orokor batzuk dira, erregelamendu organikoari edo izaera horretako beste arau-xedapenen bati erreserbaturik ez dauden antolamenduaren alderdiak arautzen dituztenak eta, orobat, zerbitzu-publikoak emateari buruz edo arlo horri loturiko beste edozein gairi buruz ematen direnak.

2.- Udaleko Osoko Bilkurak onartu, aldatu edo indargabetuko ditu erregelamenduak, kideen gehiengo soilaren aldeko botoaren bidez. Gehiengo soila gertatzen da aldeko botoak kontrakoak baino gehiago direnean.

89. artikulua.- Ordenantzak.

1.- Ordenantzak arau-xedapen orokor batzuk dira, herritarren eskubide eta betebeharrei loturiko alderdiak arautzen dituztenak, aurreko 88. artikuluan, zerbitzu-publikoak emateari eta erabiltzaileentzako ondorioei dagokienez, xedatzen denaren salbuespenarekin. Ordenantzek gizarte-antolamendua edo espazio-antolamendua dute xedetzat, eremu material horietan hirigintzazko xedapenak eta zergei eta tributuei buruzko antolamendua ere sartzen direla.

2.- Oro har, Udaleko Osoko Bilkurak onartu, aldatu edo indargabetuko ditu ordenantzak, kideen gehiengo soilaren aldeko botoaren bidez. Gehiengo soila gertatzen da aldeko botoak kontrakoak baino gehiago direnean.

3.- Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, eta toki-araubideari buruzko oinarritzko legedian xedaturik dagoenaren ildotik, herritarren parte-hartzea arautzen dituzten ordenantzek izaera organikoa izan ahalko dute eskubide hori erabiltzearen alderdi substantiboak zuzenean arautzen dituzten alderdietan, baldin erregelamendu organiko honetan jaso ez badira. Kasu horretan, hori hala dela jaso beharko da, halako izaera duten artikulua edo xedapenak esplizituki adieraziz, azken xedapen batean.

90. artikulua.- Alkatetzaren arau-izaerako dekretuak eta jarraibideak.

1.- Alkatetzak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko lehen xedapen gehigarriko 1 c) letran ezarritako moduan, xedapen orokorrak eman ahalko ditu bere eskumenen esparruan.

2.- Alkatetzak emandako xedapenak arauzko dekretua, arau-egokitzapeneko dekretua edo arauzko jarraibidea izendatuko dira, administrazio-egintzaren izaera duten dekretu edo jarraibideetatik bereizte aldera.


3.- Alkatetzaren xedapen orokorrak honako arlo hauek uki ditzakete:

a) Antolamenduzko gaiak, egituren zein prozesuen edo pertsonalaren esparrukoak, aldez aurretik erregelamendu organikoak, erregelamenduek edo ordenantzek erreserbatu edo arautu ez dituzten eremu guztietan.

b) Gizarte-antolamendua; dena dela, kasu horretan, Alkatetzaren xedapen orokorrak udal-erregelamendu eta -ordenantzak gauzatzeko edo garatzeko baino ezingo dira eman, aldez aurretik horretarako gaitasuna berariaz emanda, eta inola ere ezingo dira joan Udaleko Osoko Bilkurak onarturiko xedapen orokor horien aurka.

91. artikulua.- Alkatetzaren bandoak.

1.- Oro har, Alkatetzaren bandoak ez dira arau- xedapen orokorrak.



2.- Salbuespenez, Alkatetzak emandako bandoek arau-izaera izan ahalko dute ezohiko edo premiazko beharra dagoenean.

3.- Nolanahi ere, arau-izaerako bando horiek ezingo dira joan arau-xedapen orokorren aurka, azken horiek Udalarenak izan zein beste botere publiko batenak izan.

92. artikulua.- Ordenantza eta erregelamenduetan aldaketa puntualak egiteko gaitasuna ematea.

1.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko lehen xedapen gehigarriko 2. zenbakian xedaturik dagoenaren arabera, ordenantza eta erregelamenduetan gaitasuna eman ahalko zaio alkateari —edo, hala badagokio, gobernu-batzarrari— arau-xedapen horietan edonolako aldaketak sartzeko, baldin udalek nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketek edo legeen maila eta indarra duten arauen aldaketek eragindakoak badira soilik.

2.- Gaitasun hori eman ahalko da, soil-soilik, ordenantza eta erregelamendu horietan eskaturiko baldintzak aldatu edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitu behar direnean, onarturiko legeek edo legeen maila eta indarra duten eskakizun berrietara egokitzeko helburuz, arauketa egokiaren printzipioa bermatzeko horrela, gardentasuna eta segurtasun juridikoa bereziki.

3.- Ordenantza eta erregelamenduak arau- egokitzapeneko dekretu bidez edo arau- egokitzapeneko erabaki bidez egokituko dira, eta berehala haren berri emango zaio Udaleko Osoko Bilkurari, berrets dezan.

4.-Arau-egokitzapeneko dekretuan edo arau- egokitzapeneko erabakian berariaz adieraziko dira egin beharreko aldaketak, bai eta egokitzen diren baldintzak edo zenbateko edo ehunekoaren egokitzapen automatikoa ere. Kasu orotan, gertakari hori idatziz jasoko da aldatutako manamenduetan.

5.- Dagokion aldizkari ofizialean argitaratu eta gero sartuko dira indarrean aldaketak. Eragin osoa izan dezan, ez da aplikagarria izango ordenantzen eta erregelamenduen aldaketak onesteko ezarritako lege-prozedura.

II KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK PRESTATZEA.

93. artikulua.- Xedea.

1.- Kapitulua honen xedea da Udalak arau- xedapen orokorrak prestatzeko prozesua arautzea.


2.- Araugintzako ekimena eta herritarrek gastu publikoko konpromisoak identifikatzen parte- hartzea erregelamendu organiko honetako II. liburuko IV. tituluaren arauturik daude.

94. artikulua. Urteko araugintza-plana.

1.- Gobernu-batzarrak, aurreko ekitaldiko abenduaren 31 baino lehen, urteko araugintza- plana onartuko du. Plan horretan jasoko dira hurrengo urtean zehar Udaleko Osoko Bilkurari, hasierako edo behin betiko onarpena eman dezan, aurreztuko zaizkion araugintzako ekimen guztiak.

2.- Udalaren urteko araugintza-plana, orobat, Alkatetzak prestatuko dituen arau- proposamenak jaso ahalko dira, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko lehen xedapen gehigarrian xedaturik dagoenaren arabera.

3.- Tokiko Gobernu Batzarrak onartu eta gero, Udalaren urteko araugintza-plana gardentasun- atariaren bidez edo, bestela, toki-erakundearen webgunearen bidez zabalduko da.



4.- Urteko araugintza-planean sartu ez diren arren, Alkatetzak eta Tokiko Gobernu Batzarrak urtean zehar araugintzako ekimen zehatzak sustatu ahalko dituzte, plana onartu zen unean ezin aurreikus zitezkeen arazo edo gai ei erantzuteko. Halakoetan, araugintzako ekimen horiek txosten bat izango dute erantsia, ekimenok prestatu eta onartzeko beharra justifikatuko duena.

95. artikulua.- Arauketa egokiaren printzipioak.

1.- Araugintzako ekimena erabiltzerakoan, erakunde aldetik sustatu zein erregelamendu organiko honetan aurreikusitako herritar-ekimenaren bidez sustatu, beharrianaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren zein efizientziaren printzipioei jarraituz erabili behar da.

2.- Udaleko gobernu-organo eskudunek izapidetzekoak diren arau-proiektuetako zioen azalpenean, behar bezala justifikaturik geratuko da abian jarritako araugintza-jarduna bat datorrela artikulua honetan arautzen diren arauketa egokiaren printzipioekin.

3.- Betiere, arauketa egokiaren printzipioak kasuan-kasuan justifikatuko dira, dena delako gaiaren arabera.

4.- Udaleko organo eskudunek onarturiko edozein arau-proiektu edo -proposamenek nahitaez arauketa egokiaren printzipio hauekin bat etorri beharko du:


4.1.- Beharrianaren eta eraginkortasunaren printzipioak. Beharrianaren eta eraginkortasunaren printzipioen arabera, araugintzako ekimenek interes orokorreko arrazoi batekin justifikatuta egon behar dute, lortu nahi diren xedeen identifikazio argi batean oinarritu behar dute, eta halakoak lortzea bermatzeko tresnarik egokiena izan behar dute.

4.2.- Proportzionaltasun-printzipioa. Proportzionaltasun-printzipioaren arabera, proposatzen den ekimenak arauaren bidez estali nahi den beharrianaz arduratzeko ezinbesteko arauketa baino ez du eduki beharko, eskubideak gutxiago murrizten dituen edo helburuko pertson ei betebeh ar gutxiago ezartzen dien beste neurririk ez dagoela egiaztatu eta gero.

4.3.- Segurtasun juridikoaren printzipioa. Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko xedez, araugintzako ekimena era koherentean erabiliko da estatuko, autonomia- erkidegoko, foru-eremuko nahiz Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin, arau-esparru bat sortzeko egonkorra, aurreikusgarria, integratua, argia eta ziurtasunezkoa, bera ezagutzea eta ulertzea errazten duena eta, ondorioz, pertson ek eta enpresek jardutea eta erabakiak hartzea ere bai.

4.4.- Gardentasun-printzipioa. Udal- administrazioak, gardentasun-printzipioa aplikatuz, era erraz, unibertsal eta eguneratu batean jarriko ditu eskuragarri bai indarrean den araudia, bai hura prestatzeko prozesuari dagozkion agiriak, hala estatuko oinarritzko legedian nahiz Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko VI. tituluan nola gardentasuna arautzen duen autonomia-erkidegoko araudi orokorrean ezarrita dagoen moduan. Horretarako, udal-administrazioak argi definituko ditu araugintzako ekimenen helburuak eta haien justifikazioa arau- xedapeneko atarikoan edo zioen azalpenean; eta ahalbidetu egingo dute helburuko balizko pertson ek era aktiboan parte har dezaten arauak prestatzen.

4.5.- Efizientzia-printzipioa. Efizientzia- printzipioa aplikatuz, araugintzako ekimenak behargabeko edo erantsitako administrazio- kargak saihestu behar ditu, eta, bere aplikazioan, baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu.



5.- Araugintzako ekimenak uneko edo etorkizuneko gastu edo sarrera publikoei eragiten dienean, haren ondoreak kuantifikatu eta balioztatu egin beharko dira, eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioen mende jarri.

96. artikulua.- Arauen publizitatea eta gardentasuna.

1.- Udaleko arau-xedapen orokorren publizitate aplikagarria den araudian xedaturik dagoenare bidez eraentzen da.

2.- Udal-organo eskudunak onartu eta ger xedapen orokor guztiei zabalkundea emango zai guztiak jakinaren gainean egon daiteze Udalaren gardentasun-atariaren.

3.- Udal Erregelamendu Organikoa, beste arau organiko batzuk nahiz erregelamenduak eta ordenantzak onartzean edo halakoetan aldaketa substantiboak egitean, Udala irakurketa errazeko agiri bat prestatzen saiatuko da, edo, bestela, azalpenezko bideo bat, arauketa horren alderdi garrantzitsuenak era didaktikoan aditzera emanda, herritar guztiek era ulergarri eta argian ezagutu ahal izan ditzaten. Betebeharra horretatik salbuetsita egongo dira irakurtze soilaz erraz ulertzen diren aldaketak edo arau berriak; hori hala dela justifikatu beharko da onartzeko espedientean.

4.- Aurreko zenbakian xedatutako agiria gardentasun-atariaren bidez zabalduko da, eta paperean ere emango zaio zabalkundea, arrakala digitalak eragindako pertsona edo kolektiboentzat.

97. artikulua.- Araudiaren ebaluazioa eta indarrean den araudia arauketa egokiaren printzipioetara egokitzea.

1.- Arlo guztien proposamenak bateratuz, Gobernu-batzarrak indarrean den araudiari buruzko ebaluazio-plan bat prestatuko du, araudi hori berrikusi, eta arauketa egokiaren printzipioetara egokitzeko xedez, eta indarreko arauak aurreikusitako helburuak lortu dituzten eta haietan ezarritako kostua eta kargak ongi kuantifikaturik dauden egiaztatze aldera.

2.- Indarrean den araudia ebaluatzeko plana, arauketa egokiaren printzipioetara egokitzeko helburuz, zenbait alditan eramango da aurrera. Berrikuspeneko denbora-eskalak, gutxienez, bost urteko erreferentzia hartuko du.

3.- Gobernu-batzarrak era arrazoituan aldatu ahalko du programazio hori.

98. artikulua.- Araudia arauketa egokiaren printzipioetara egokitzeari buruzko ebaluazio- txostena.


1.- Aurreko 97. artikuluan adierazitako ebaluazio bakoitza txosten batean jasoko da; txosten horrek gobernu-batzarraren onarpena izan beharko du, eta honako alderdi hauek azaldu beharko ditu, gutxienez:

a) Indarreko zein arau-xedapen egokitu behar diren arauketa egokiaren printzipioetara.

b) Indarreko zein arau-xedapen diren dagoeneko aurreikusitako helburuak lortutakoak eta, beraz, indargabetu beharrekoak.

c) Indarreko zein arau-xedapen aldatu egin behar diren, karga burokratikoak gutxitzeko edo udal-administrazioari kostuak kentzeko.

d) Indarreko zein arau-xedapen egokitu ahal diren Alkatetzaren arau-egokitzapeneko dekretu baten bidez, arauketa egokiaren printzipioei dagozkien baldintzak soilik gehitu behar direla eta; dekretu hori berehala



berretsi beharko du Udaleko Osoko Bilkurak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko lehen xedapen gehigarrian xedaturik dagoenaren arabera.

e) Indarreko zein arau-xedapeni egin beharko zaien aldaketa substantibo bat. Kasu horretan, osoko bilkuran onartu beharko dira, erregelamendu honetan ezarritako izapideei jarraituz.

2.- Araudia egokitzeko prozesu horien izaeratik eta partzialak direla kontuan harturik, proposatzen diren aldaketa horiek ez dira pasatuko galdeketa publikoaren izapidetik.

3.- Aurreko zenbakietan aipaturiko txostenaren berri emango zaio Udaleko Osoko Bilkurari. Txostenak, eranskin gisa, erregelamendu eta ordenantzetan egiteko proposatzen diren aldaketen testua eduki ahalko du; halakoetan, aldaketok osoko bilkuran bozkatu ahalko dira, eta izapide hori arau-xedapen orokor horien hasierako onarpentzat joko da.

4.- Aurreko zenbakietan jasotako txostena urtero emango da argitara, eta Udalaren gardentasun-atariaren bidez zabalduko da.

5.- Nolanahi ere, Alkatezak, arauzko dekretuan edo –bestela– jarraibidean, artikulua honetan ezarritakoa garatu ahalko du, eta zehatzago definitu ebaluazioaren helburua, ebaluazio hori aurrera eramateko baldintzak, eta prozesuaren ondorioak, bai eta indarreko testuak bateratzeko irizpideak ere. Beste ebaluazio-adierazle batzuk ezarri ahalko dira, orobat, arauen kalitatea hobetzeko eta haien inaktuak zein kostuak gutxitzeko.

6.- Arestian aipaturiko araudian bultzatu egingo da, halaber, arauketa egokiaren printzipioak sar daitezen xedapen orokorrak prestatzeko prozesuetan, herritar-ekimena erabiltzen den kasuetan bereziki, eta prozesuotan azterketa ekonomikoa susta dadin, ekonomia-jarduerarentzat justifikatu gabeko edo neurrigabeko murrizketak sartzea saihesturik.

III. KAPITULUA.- PROZEDURAK.

99. artikulua.- Proiektu prestatu aurreko prozedura.


1.- Ordenantza- edo erregelamendu-proiektua prestatu aurretik, galdeketa publiko bat egingo da Udalaren web-atariaren bidez. Galdeketa horren bidez, etorkizuneko arauak eragin liezaiekeen ordezkagarritasun handieneko banakoen zein erakundeen iritzia bilduko da, honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoei buruz.
- b) Onartzeko beharizanari eta egokitasunari buruz.
- c) Arauaren helburuei buruz.
- d) Arauketa bidezko zein arauketatik kanpoko konponbide alternatibo posibleei buruz.

2.- Galdeketa publikorako epea ireki delako iragarkiarekin batera, webgunean era ordenatu eta bereizian argitaratuko da galdeketa gaiei buruz sailak duen iritzia. Galdeketa epea ezingo da izan 15 egun naturaletik beherakoa, eta iradokizunak edo alegazioak aurkezteko aukera eman beharko da; azken horretarako, beharrezkoa balitz, agiri-ereduren bat gehituko da, elektronikoa batik bat, haren bidez herritarrek beren ekarpenak egin ahal izan ditzaten.

Epe hori bukatu eta gero, hamabost eguneko epean gehienez, proposamena egin duen udal-arloak txosten bat prestatuko du, aurkeztutako ekarpenak bilduz eta aztertuz, prestatzeko den arau-xedapenaren proiektuan sartzeko aukerari lotuta. Txosten hori udalaren webgunean argitaratuko da.

3.- Oinarrizko legediaren ildotik, honako hauek alde aurreko galdeketa izapidetik salbuetsi ahalko dira:



- a) Antolamendu-arauak.
- b) Aurrekontu-arauak, Toki Erakundeei buruzko Legean nahiz erregelamendu organiko honetan ezarritako salbuespenekin.
- c) Nahitaez bete beharreko araudi batera egokitzea soil-soilik dakarten arauak, eta ekonomia-jardueran inpaktu nabarmenik ez duten, helburuko pertsonen garrantzizko betebeharrak ezartzen ez dizkieten edo gai baten alderdi partzialak arautzen dituzten proposamenak, edo hala justifikatzen duten interes publikoko arrazoi larriak gertatzen direnean.
- d) Edozein gairi buruzko ordenantza eta erregelamenduak, haien edukiak ordeztzen dituzten gai beraren gaineko beste ordenantza edo erregelamendu batzuen funtsean aldatzen ez duenean, baldin ordezturiko horiek alde aurreko galdeketa izapidetik pasatu baziren.

4.- Aurreko zenbakian arautzen diren salbuespenetako bat aplikatzen denean, administrazio-espedienteetan bertan justifikatu beharko da haren aplikazioa.

100. artikulua.- Izapidetzeko, proiektuarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.- Proiektuarekin batera, hauek aurkeztu beharko dira:

a) Proposatzen den arauketari buruzko justifikazio-txosten bat. Txosten horretan, zehaztuko egingo dira proposamenarekin lortu nahi den xedea, proposamen horren egokitasuna arauketa egokiaren printzipioen aldetik, eta galdeketa publikoak proiektuan izaniko eragina, izan baldin badu; halaber, aztertu beharko du ea ekimenak uneko edo etorkizuneko gastu edo sarrera publikoei eragingo dien, eta zer ondore ekonomiko ekarriko lituzkeen proiektua onartzeak. Era berean, jaso beharko du helburu sozialagatik edo jardueraren eremuagatik xedapenaren edukian interesaturik egon daitezkeen erakundeen identifikazioa, halakoei prozeduraren berri eman ahal izateko, jendaurrean jartzeko aldia, egoki deritzeten iradokizun eta alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

b) Txosten juridiko bat, honako hauek jasorik: gauzaturiko jardunak, labur-zurrean, eta haien egokitasuna ordenamendu juridikoaren aldetik; proposamenaren egokitasuna legediaren aldetik; osoko bilkuraren organoaren eskumena; erabakia hartzeko behar den gehiengoa; eta alde aurreko galdeketa ez egiteko justifikazioa, hala dagokionean. Halaber, aditzera eman beharko du proiektuaren edukiaren arabera aplikagarria den araudiak eskaturiko baldintzak bete direla izapideetan, hala nola beste administrazio batzuen txostenak, hizkuntza-arloko txostenak, genero-arloko txostenak, eta abar.


2.- Onartu nahi den proiektuak atariko atal bat eta testu artikulatu bat eduki beharko ditu.

3.- Justifikazio-txostenak zein ordenantza- edo erregelamendu-proiektuak dagokien teknikariaren eta zinegotziaren izenpeak izan beharko dituzte.

101. artikulua.- Proiektua izapidetzea.

Dagokion informazio-batzordearen gai-zerrendan sartu aurretik, proposamenaren fiskalizazioa egin beharko da, baldin proposamen horrek Udalarentzat zuzeneko eragin ekonomikoak badakartza, eta gero Idazkaritza Nagusiari helarazi beharko zaio, hark proiektuari buruzko txosten juridiko bat eman dezan, 10 eguneko epean, gehienez. Txosten horretatik salbuetsirik daude zerga-arloko ordenantzei dagokien proposamenak.

Dokumentazio hori guztia osatutakoan, arautzen den gaiaren arabera eskuduna den informazio-batzordearen gai-zerrendan sartu ahal da, irizpena eman dezan, Udaleko Osoko Bilkurari, hasierako edo behin-behineko onarpena emateko, aurkeztu aurretik.



Hasiera batean edo behin-behinean onartuta, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeko 49. artikuluan xedaturik dagoenaren arabera jarraituko da izapidetzen, edo Udalek tributuak ezartzen duten ahalari buruzko xedapen zehatzen arabera edo hirigintzazko araudiaren arabera. Nolanahi ere, jendaurrean jartzeko izapideak 39/2015 Legeko 133.2 artikuluan jasotako argitaratze-betebeharra bete dezan, testua epe horretan bertan gardentasun-atarian edo, bestela, udal-webgunean argitaratu beharko da.

Proposamena egiten duen arloak gauzatu behar ditu izapidetze-egintzei dagozkien argitalpenak, jakinarazpenak eta iragarkiak.

Udaleko Osoko Bilkurak xedapena behin betiko onartu eta gero, Idazkari Nagusiak argitaratu beharko du, eta, argitaratutakoan, espedientea proposamena egin zuen arloari itzuliko zaio. Zerga-arloko xedapenak argitaratzeko izapidea Udaleko Kontu-hartzailetzak gauzatuko du.

102. artikulua.- Alkatetzaren arautze-ahalarekin lotutako galdeketa publikoa.

Alkatetzaren arautze-ahalaren erabilerari loturiko aldez aurreko galdeketa erregelamendu honetako 99. artikuluan xedaturik dagoenaren bidez eraenduko da.

103. artikulua.- Entzunaldia emateko eta jendaurrean jartzeko izapideak.

1.- Alkatetzak onarturiko arau-balioko dekretu eta jarraibideak antolamendu-arlokoak direnean, ez da nahitaezkoa izango entzunaldia emateko eta jendaurrean jartzeko izapidea.

2.- Alkatetzak onarturiko arau-balioko dekretu eta jarraibideek, ordenantzak edo erregelamenduak gauzatuz, ordenamendu sozialeko gaiak arautzen dituztenean, entzunaldia emateko eta jendaurrean jartzeko dagokien izapidea egingo da, hamabost eguneko gehieneko epe batean, erregelamendu organiko honetako 99.3 artikuluan ezarritako salbuespenetako bat gertatu ezean. Proiektua presakotzat jotzen bada, epe hori zortzi egunera labur daiteke.

104. artikulua.- Legez aitortutako erakunde eta elkarteak.


Halaber, aurreko 103. artikuluan ezarritako epean, Alkatetzaren dekretu bidez, zuzenean bildu ahalko da legez aitortutako erakunde edo elkarten iritzia ere, xedapen orokorraren proiektuaren eraginez eskubideak edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak bildu edo ordezkatzeko dituzten edo haien helburuek proiektuaren xedearekin zuzeneko lotura duten kasuetan.

105. artikulua.- Galdeketa publikoa udal-aurrekontuetan.

1.- Udal-aurrekontuak onartzeko, galdeketa publikoaren izapidea ez da nahitaezkoa izango.

2.- Aurreko zenbakian xedaturikoa gorabehera, herritarrek udal-aurrekontuetan gastu publikoko konpromisoak identifikatzen parte hartzea herritarrek parte hartzeko eratzat bideratzen da, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean xedaturikoaren bidez nahiz erregelamendu organiko honetako II. liburuko IV. titulua ezarritakoaren arabera araututa dago.

106. artikulua.- Aurrekontuak prestatzeko eta onartzeko prozedura.



1.- Udal-aurrekontuak prestatzeko eta onartzeko prozedura toki-ogasunen arloko berariazko foru-araudi aplikagarriaren arabera nahiz hurrengo 2. zenbakian ezarrita dagoenaren arabera arauturik dago.

2.- Alkateari edo eskuordetutako zinegotziari dagokio toki-erakundearen aurrekontu-proiektua onartzea; proiektu hori, aurrekontu-araudiak eskatzen duen dokumentazio guztiarekin batera, udal-taldeei helaraziko zaie, irizpidea ematea dagokion informazio-batzordearen bilkura egin baino bi egun lehenago gutxienez.

3.-Udal-taldeek, gutxienez 15 egun naturaleko epea izango dute aurrekontu-proiekturako zuzenketak proposatzeko, dagokion aurrekontu-dokumentu osoa entregatzen denetik zenbatzen hasita. Beraz, aurrekontu-proiektuaosatzen duen azken dokumentua entregatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbaketa.

4.-Zuzenketak osokoak edo partzialak izan daitezke. Osoko zuzenketa da aurrekontuak atzera itzultzeko eskatzen duena, berriz osorik prestatzeko.

Zuzenketa partzialak ezabatzekoak, aldatzekoak edo gehitzekoak izan ahalko dira, aurrekontuetako programa, artikulua, kontzeptu edo gauzatze-oinarri bati dagozkiola. Azken hiru kasu horietan, aldatutakoaren ordezk proposatzen duten testu osoa eman beharko dute.

Aldatzeko edo gehitzeko zuzenketek gastua gehitzea edo sarrerak gutxitzea dakartenean, konpentsazioko sarrerak izateko edo beste gastu bat kentzeko aurreikuspenak jaso beharko dituzte, aurrekontu-orekari eusteko moduan. Ez da onartuko zuzenketarik eztabaida dadin, horrelako aurreikuspenik eduki ezean.

5.-Zuzenketak aurkeztu eta gero, udal-taldeei helaraziko zaizkie, aurrekontu-proiektuari buruzko irizpidea emango duen informazio-batzordearen bilkura egin baino bi egun lehenago gutxienez.

6.-Batzordean, lehenik eta behin, eta bereiz, osoko zuzenketa bakoitza bozkatuko da, aurrena, eta testu alternatibo bat aurkeztzen dutenak, gero.

Horietako edozein onartzen bada, irizpena bukatutzat emango da, Udaleko Osoko Bilkurari aurkezteko. Osoko zuzenketarik onartzen ez bada, zuzenketa partzialak eztabaidatzeari ekingo zaio. Eztabaida aurrekontu-egituraren ordenari jarraituz egingo da, zuzenketa bakoitza banaka edo multzoan bozkatuta.


7.-Batzordearen irizpena osatuko da aurkeztutako proiektuari zuzenketa onartuak egin ondorengoarekin. Batzordea egiten denetik bi eguneko epean, gehienez, udal-taldeek aditzera eman beharko dute onartu gabeko zein zuzenketa mantentzen dituzten, haiek osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Irizpena osoko bilkuran izapidetzen hasteko, irizpena bera azalduko da, eta, hurren, osoko zuzenketak eztabaidatzeari ekingo zaio. Zuzenketok batera eztabaidatuko dira, eta gero banaka bozkatuko dira. Osoko zuzenketaren batek aurrera egiten badu, aurrekontua itzulitzat joko da, edo osorik aldatutzat, nolako zuzenketa onartzen den, eta ez dira zuzenketa partzialak eztabaidatuko.

Ezein osoko zuzenketak aurrera egiten ez badu, zuzenketa partzialak eztabaidatzera ekingo zaio, edo aurrekontu-programen arabera edo kapituluaren arabera multzokatuta, edo esku-hartze bakarrean, zuzenketa-kopuruaren arabera nahiz Alkatetzak horren inguruan ezartzen duenaren arabera.

Zuzenketen eztabaida eta bozketa bukatu ondoren, osoko bilkurako eztabaidan gehitutako zuzenketak dauzkan irizpena bozkatuko da.

Erregelamendu organiko honetako 184. artikuluan aipatzen den parte-hartze prozesuak han finkatutako epean egon beharko du buruturik. Ordurako burutu ez bada, parte-hartze prozesuak eragindako partidei zuzenketak egin ahalko zaizkie osoko bilkura egin baino egun bat lehenago arte.



107. artikulua.- Aldez aurreko galdeketa eta ordenantza fiskalak prestatzeko eta onartzeko prozedura.

- 1.- Ordenantza fiskalak prestatzeko eta onartzeko prozedura toki-ogasunen arloko berariazko foru-araudi aplikagarriaren arabera arauturik dago.
- 2.- Ordenantza fiskalak egiten direnean, ez da nahitaezkoa izango aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea egitea.
- 3.- Entzunaldia emateko eta jendaurrean jartzeko izapidea toki-ogasunei buruzko foru-araudian ezarritako epeetara egokituko da.

108. artikulua.- Hiri-plangintza eta -antolamenduari buruzko araudia prestatzeko eta onartzeko prozedura.

- 1.- Hiri-plangintza eta antolamenduari buruzko araudia prestatzea eta onartzea berariazko araudiaren arabera arauturik egongo da.
- 2.- Plan orokorraren dokumentazioan jasotako udal-ordenantzak berariazko hirigintza-araudian ezarritako prozeduraren bidez onartuko dira. Geroago aldatzea edo osatzea erregelamendu honetan jasotzen den prozedurari loturik egongo da.

109. artikulua.- Plangintza sektorialeko edo giza baliabideen arloko planak edo beste tresna batzuk prestatzeko eta onartzeko prozedura.

- 1.- Plan sektorialak onartzea berariazko araudiaren bidez eraenduko da. Betiere, halakoen behin betiko onarpenari gardentasun-atariaren eta webgunearen bidez emango zaio zabalkundea.
- 2.- Giza baliabideen arloko planak edo beste plangintza-tresna batzuk prestatzea eta onartzea berariazko araudiaren bidez eraenduko da. Nolanahi ere, sindikatuen nahiz enplegatu publikoen artean zabalkundea izatea eta halakoek parte hartzea sustatuko da, bai eta herritarrei bitarteko telematikoen bidez ezagutaraztea ere. Betiere, halakoen behin betiko onarpenari gardentasun-atariaren eta webgunearen bidez emango zaio zabalkundea.


110. artikulua.- Arauak prestatzeko prozedura eta genero-inpaktuari buruzko ebaluazioa.

- 1.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedaturik dagoena aplikatuz, Udalak genero-inpaktua ebaluatu beharko du honako arau-xedapen orokor hauek prestatu eta aplikatzeari dagokionez:

- a) Erregelamendu organikoak eta izaera organikoko arauak.
- b) Erregelamenduak.
- c) Ordenantzak.
- d) Aurrekontu-arauak.
- e) Hirigintza-antolamendurako arau-izaerako planak eta tresnak.

- 2.- Honako xedapen orokor hauek genero-inpaktua ebaluatzeko betebeharretik salbuetsirik daude:

- a) Generoaren ikuspegitik garrantzirik ez dutenak.
- b) Lehendik dauden arauak bateratzeko xedea dutenak.
- c) Indarrean diren lehenago ebaluatutako beste arau batzuk aldatzeko xedea dutenak.



d) Alkatetzaren dekretu eta jarraibide orokorrak.

e) Ezohiko edo premiazko beharragatik Alkatetzak emandako bandoak.

3.- Xedapen orokorra prestatu aurretik, proposamenak emakumeen eta gizonen egoeran, kolektibo gisa, zer inpaktu izan dezakeen ebaluatu beharko du hura sustatzen duen arloak. Horretarako, aztertu beharko du arauan proiektatu den jarduerak ondore positiboak edo kontrakoak izan ditzakeen, emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak ezabatzeko eta haien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.

4.- Inpaktuari buruz eginiko ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen egoeran, kolektibo gisa hartuta, izan dezakeen inpaktu negatiboa –halakorik baldin badu– neutralizatzeko neurriak sartu beharko dira arau-proiektuan, bai eta atzemandako desparekotasunak murriztu edo ezabatzeko eta sexu-berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

5.- Arau-proiektuak txosten bat izango du erantsia, gai horren inguruan aurrera eramandako izapideak xeheki azalduko dituen.

111. artikulua.- Arauak prestatzeko prozedura eta euskararen normalizazioaren gaineko inpaktuari buruzko ebaluazioa.

Euskadiko Toki Erakundearen buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeko 7.7 artikuluan xedaturik dagoena aplikatuz eta hura garatzeko ematen den erregelamenduzko araudiaren arabera, udalerriko egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo planak onartzeko prozeduran, euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan dezaketen inpaktua ebaluatu beharko du Udalak, eta ebaluazio horren ondoriozko neurriak proposatu, hala dagokionean.

VI. TITULUA. UDAL-ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETA, EKIMEN EKONOMIKOA ETA ZERBITZU- KARTAK

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.

112. artikulua.- Araubide juridikoa.


Udal honen eta bere sektore publiko instituzionalaren zerbitzu publikoen kudeaketa eta ekimen ekonomikoa arautuko dute Estatuko oinarritzko legediak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak, aplikatu beharreko gainerako legeria autonomikoak, foru-araudiak eta erregelamendu organiko honek, bai eta udal-araudiak eta hura garatzeko ematen diren erabaki eta ebazpenek ere.

113. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Titulu honetan xedaturikoa Udalari eta beraren sektore publiko instituzionalari izango zaie aplikagarria; erregelamendu honetako I. eranskinean aipatzen diren erakundeei osatzen dute sektore publiko instituzional hori.

II. KAPITULUA.- UDAL-ZERBITZU PUBLIKOAK.

114. artikulua.-Printzipio orokorrak.



1.- Udal-zerbitzu publikoak ematean betiere bermatu behar da auzotarrek duten eskubidea zerbitzu horiek benetan eta berdintasun- baldintzetan erabiltzeko; bereziki sustatuko da desabantaila sozialean edo objektiboki hala behar duten pertsona, kolektibo edo taldeek erabil ditzaten.

2.- Udal-zerbitzu publikoak udalerriak eman ditzan lehenetsiko da. Hori bideragarria ez denean edo eraginkortasunari edo efizientziari loturiko arrazoiak daudenean, kudeaketa partekatua baliatuz emango dira zerbitzuok, udalerria kide den elkarte-oinarriko toki- erakundeen bidez –mankomunitateen bidez kasu– edo partzuergoen bidez.

3.- Kudeaketa eraginkorra aukeratuko da beti, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-nahikotasunaren printzipioen arabera, eta ez da bikoiztasunik sortuko beste gobernu-maila batzuen eskumenei dagokienez, eta baztertu egingo da finantzaketa-berme galdagarria betetzen ez duen eskumen-eskuordetza edo administrazio-hitzarmen oro.

Kostu handiena dakarten zerbitzuen aldizkako kontrola egingo da printzipio horiek betetzen direla egiaztatze aldera.

4.- Baldin foru-aldundiak gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuen kudeaketa koordinatua proposatzen badu, benetako kostuak eta kalitate-estandarrak optimoak izan daitezten lortze aldera, kudeaketa hori Udaleko Osoko Bilkuraren erabakiz onartu beharko da. Erabaki horretan, kudeaketa-formularik egokiena hautatu beharko da kontuan hartuz lehentasuna izango dutela, horretarako, beste udalerri batzuekin partekaturiko kudeaketak, lehenik, partzuergoen formulak, bigarrenik, eta foru-aldundiak egindako kudeaketak, azkenik.

115. artikulua.- Kudeaketa-erak.

Udal-zerbitzu publikoen kudeaketa-erak hauek izan daitezke:

a) Zuzeneko kudeaketa:

- 1) Toki-erakundeak berak kudeatuta.
- 2) Udal-erakunde autonomo batek kudeatuta.
- 3) Tokiko enpresa-erakunde publiko batek kudeatuta.
- 4) Kapital soziala titulartasun publikokoa daukan merkataritza-sozietate batek kudeatuta.

b) Zeharkako kudeaketa, aplikagarria den sektore publikoko kontratuei buruzko legedian xedaturiko eratan.


116. artikulua.- Kudeaketa-era hautatzea.

1.- Udalak askatasun osoa izango du zerbitzua emateko erarik egokiena aukeratzeko, justificando debidamente en el expediente los principios recogidos en el artículo 114 eta hurrengo artikuluetan xedatzen dena kontuan harturik.

2.- Zuzeneko kudeaketa tokiko enpresa- erakunde baten bidez edo kapital soziala titulartasun publikokoa daukan merkataritza- sozietate baten bidez egiteari dagokionez, hori hala egin ahalko da soilik Udalak berak kudeatzea edo udal-erakunde autonomo batek kudeatzea baino jasagarriagoa eta efizienteagoa denean.

Horretarako, dagokion espedientean hauek jaso beharko dira:

a) Egoera hori egiaztatzen duen justifikazio- txosten bat, errentagarritasun ekonomikoari eta inbertsioa berreskuratzeari loturiko irizpideak kontuan hartuz.



- b) Hartutako aholkularitzari buruzko justifikazio-txosten bat, zerbitzuaren kostuari buruzko txostenak jasota, bai eta hartutako laguntza tekniko ere.
- c) Kontu-hartzailetzaren txosten bat, eginiko proposamenen finantza-jasangarritasuna aztertuta.

Espediente hori Udaleko Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio, dagozkion erabakiak har ditzan, halakoak hartu behar izanez gero.

3.- Kudeaketa-era hautatzean, kontuan hartu beharko da ahal publikoak betetzen edo tokiko interes orokorrak zaintzen zuzenean edo zeharka parte hartzea dakarten eginkizunak bete beharra. Nolanahi ere, sektore publikoaren kontratazioa arautzen duen oinarritzko legedian gai horri buruz xedaturik dagoenari jarraitu beharko zaio.

117. artikulua.- Baliabide propioa eta zerbitzu teknikoak.

Sektore publiko instituzionala osatzen duten erakundeak baliabide propioetat eta zerbitzu teknikotzat hartu ahalko dira, sektore publikoaren kontratuak arautzen dituen legedian ezarritako baldintzak betetzen dituztenean.

118. artikulua.- Administrazio-barneko hitzarmenak.

1.- Toki-erakundeak hitzarmenak izenpetu ahalko ditu berari lotutako edo bere mendeko erakunde publikoekin eta zuzenbide publikoko erakundeekin, kudeaketa publikoaren efizientzia hobetzeko, baliabide eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea bideratzeko, eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko legedia zein foru- araudia betetzeko xedez.

2.- Izenpeturiko hitzarmenaren indarraldia lau urtetik gorakoa izan ahalko da, hala justifikatzen denean, hitzarmenean bertan, hitzarmenaren xedea nahiz hura betetzeko alderdietako bakoitzak aurrera eraman beharreko jarduerak aintzat hartuta.


119. artikulua.- Zeharkako kudeaketa eta hizkuntza-eskubideak.

1.- Zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketak ez ditu kaltetu beharko herritarren hizkuntza- eskubideak, ez eta hizkuntzen ofizialtasunari buruzko araudia bete dadin galarazi ere.

2.- Aurreko zenbakian ezarritakoaren ondoretarako, egiten diren kontratuek kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak eduki beharko dituzte, hirugarren batzuek gauzatzen dituzten zerbitzu publikoetan kontratuaren xedeak aplikagarria zaion hizkuntza-araudia bete dezan, herritarrei beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean kasu egin dakien, eta zerbitzua eman dadin zerbitzuaren titularra den administrazioari galdagarriak zaizkion hizkuntza-baldintzen pareko baldintzetan.

120. artikulua.- monopolio-araubidea.

1.- Neurria komenigarria eta egokia dela egiaztatzeko espedientea onartzen duen Udaleko Osoko Bilkuraren erabaki baten bidez, erabaki hori oinarritzko legedian eskatzen den gehiengoaren bidez onarturik, udal honek monopolio-araubidean eman ahalko ditu estatuko eta autonomia-erkidegoko legediak toki-erakundeei erreserbatzen dizkien oinarritzko jarduerak edo zerbitzuak.



2.- Jarduera eta zerbitzu horiek praktikan gauzatzeko, autonomia-erkidegoko organo eskudunak onarpena eman beharko dio gero; onarpen hori hiru hilabeteko epean eman beharko da. Epe hori igarotakoan, aipatutako organoak ez badu hartu dagokion erabakia, interpretatuko da jarduera edo zerbitzua monopolio-araubidean gauza dezakeela.

121. artikulua.- Nahitaez jasotzea edo erabiltzea.

Ordenantza bidez, toki-erakundeentzat erreserbatutako zerbitzu publikoen artean, horretarako egoki iritzitakoak jasotzea eta erabiltzea herritarrentzat nahitaezkotzat jo ahalko da, segurtasunak, osasungarritasunak edo interes orokorreko bestelako egoera batzuek hala eskatzen dutenean.

122. artikulua.- Sozietate interlokalak.

1.- Neurria komenigarria eta egokia dela egiaztatzeko espedientea onartzen duen Udaleko Osoko Bilkuraren erabaki baten bidez, Udalak merkatukoak ez diren zerbitzuak emateko edo jarduerak egiteko sozietate interlokalak sortu ahalko dituzte, edo lehendik sortutakoetan parte hartu, sozietateen kapitala oso-osorik toki-erakundeena dela betiere.

III KAPITULUA.- UDALAREN EKIMEN EKONOMIKOA.

123. artikulua. Kontzeptua eta mugak.

1.- Toki-erakunde honek gauzatzen dituen ekonomia-jarduera guztiek, zerbitzu publiko ekonomikoak kenduta, osatzen dute Udalaren ekimen ekonomikoa, eta lehia askeko araubidea eramango da aurrera.

2.- Udalak erabaki ahalko du ekimen publikoa ekonomia-jarduerak gauzatzeko erabiltzea, beti ere, osoko bilkurak hala erabakitzen duenean eta dagokion espedientea aldeztu aurretik izapidetu bada eta aurrekontu-egonkortasun eta finantza-sostengarritasuna printzipioak aintzat hartuta.


124. artikulua.- Espedientea.

Udaleko Osoko Bilkurari dagokio neurria komenigarria eta egokia dela egiaztatzeko espedientea onartzea, eta espediente horretan honako hauek jaso beharko dira, gutxienez:

- a) Udalaren ekimen ekonomikoaren arrazoi eta beharraren justifikazioa, beti ere herritarrei zerbitzu publikorik egokiena emateko beharrari lotua.
- b) Ekimenak udal-ogasun osoaren finantza-jasangarritasunerako arriskurik sortzen ez duelako justifikazioa.
- c) Merkatu-azterketa, uneko eskaintzari eta eskariari buruz, errentagarritasunari buruz nahiz jarduerak enpresen arteko lehia izan ditzakeen ondoreei buruz.
- d) Udal-jarduera kudeatzeko era zehatza.

IV KAPITULUA.- KUDEAKETA PARTEKATUA: BITARTEKO ERAKUNDEAK ETA LANKIDETZA-TRESNAK.

125. artikulua.- Mankomunitateak eta beste elkarte-formula batzuk.



1.- Udaleko Osoko Bilkurak, gehiengo osoz, hartutako erabaki bidez, udalerriak mankomunitateak nahiz toki-erakundeen beste elkarte-formula batzuk sortu ahalko ditu, edo lehendik sortutakoei atxiki ahalko zaizkio, udal-zerbitzu publikoak emateko eta udal-obrak egiteko kudeaketa partekatua aurrera eramateko xedez.

2.- Lurralde historiko bateko mankomunitateei dagokien araubide juridikoa dagokion foru- arauan ezarritakoa izango da, hori eragozpena izan gabe aplikagarriak diren oinarritzko legediko eta Tokiko Erakundeei buruzko Legeko manuak aplika daitezzen.

3.- Lurralde historiko edo autonomia-erkidego bateko baino gehiagoko hainbat udalerriren mankomunitateen araubide juridikoa Toki Erakundeei buruzko Legean ezarritakoa izango da, hori eragozpena izan gabe aplikagarriak diren oinarritzko legediko manuak aplika daitezzen.

126. artikulua.- Partzuergoak.

1.- Udaleko Osoko Bilkurak gehiengo osoz hartutako erabaki bidez, udalerrri honek partzuergoak sortu ahalko ditu beste administrazio publiko eta/edo erakunde pribatu batzuekin, guztien intereseko helburuak lortzeko, edo lehendik sortutakoetan parte hartu; partzuergoak tokiko zerbitzu publikoak emateko lan-kidetzak politikoa, ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa izan beharko dute xedetzat.

2.- Partzuergo bakoitzaren estatutuak ezarriko da hura zein administrazio publikori atxikitzen zaion, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legeko 120. artikuluan adierazitako irizpideen arabera.

3.- Partzuergo bat udal-administrazio honi atxikitzen bazaio, honako hau kontuan hartu beharko da:

a) Partzuergoa eraenduko da aintzat hartuz toki-araubideari buruzko oinarritzko legedian eta sektore publikoaren araubide juridikoa arautzen duen legedian xedaturikoa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean xedaturikoa, eta aplikagarria den foru-araudian, erregelamendu honetan nahiz partzuergoaren beraren estatutuak xedaturikoa.


b) Aurrekontuen, kontabilitatearen eta kontrolaren aldetik partzuergoari aplikagarria izango zaion araubidea Udal honena izango da, honi atxikita dagoen bitartean.

c) Partzuergoak egindako kontratazioak sektore publikoaren kontratazioari buruzko legedian xedatuta dagoenari jarraituko dio.

d) Partzuergoko pertsonalari aplikagarria izango zaion araubide juridikoa Udal honena izango da, honi atxikita dagoen bitartean. Udal honetako organo eskudunari dagokio, udal-zerbitzu teknikoek aldeztu aurretik txostena emanik, atxikitako partzuergoak pertsonala kontrata dezan baimentzea, partzuergoan parte hartzen duten administrazioetako pertsonalaren beraren zerbitzua ezin erabil daitekeen salbuespenezko kasuetan.

e) Urtero berrikusi beharko da partzuergoa administrazio honi atxikita egotea, sektore publikoaren araubide juridikoa arautzen duen legedian, aurrekontu-ekitaldiaren lehen eguneko egoerari dagokionez, ezarritako irizpideak kontuan harturik.

f) Partzuergoaren atxikimendua aldatzean, kausa edozein izanik ere, haren estatutuak aldatu beharko dira, sei hilabeteko epe batean gehienez, atxikimendu-aldaketa gertatu zen aurrekontu-ekitaldiaren hurrengo ekitaldia hasten denetik hasita.



127. artikulua.- Lankidetza-hitzaumenak.

1.- Udalak eta beraren sektore publiko instituzionalak administrazio arteko lankidetza- hitzaumenak egin ahalko dituzte, beste toki- erakunde batzuekin edo gainerako administrazio publikoekin, kudeaketa publikoaren efizientzia hobetzeko xedez, eta, hala dagokionean, bikoiztasun administratiboak saihestu edo kentzeko.

2.- Lankidetza-hitzaumeneen xedea eta helburuak Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko 100.2 artikuluan aurreikusitako edozein izan ahalko dira.

3.- Kontratuen berezko prestazioak ezingo dira izan lankidetza-hitzaumeneen xedea. Halakoetan, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoaren kontratuei buruzko legedian xedaturikoarekin bat etorriko dira.

4.- Finantza-konpromisoak jasotzen dituzten lankidetza-hitzaumeneak jasagarriak izan beharko dute finantzen aldetik; horretarako, justifikatu egin beharko dute haiek izenpetzen dituztenek badutela gaitasuna hitzaumeneen indarraldian finantzatzeko. Halaber, konprometitutako finantza-ekarpenak ezingo dira izan hitzaumena gauzatzearen ondoriozko gastuak baino handiagoak.

5.- Lankidetza-hitzaumenak diru-laguntza bat bideratzen duenean, legedian nahiz diru- laguntzak arautzen dituen udal-ordenantzan xedaturikoa bete beharko du.

6.- Lankidetza-hitzaumenak formalizatzeko tresnek, gutxienez, gai hauek zehaztu beharko dituzte:


- a) Hitzaumena izenpetzen duten alderdiak eta jarduteko baliatzen duten gaitasun juridikoa.
- b) Hitzaumeneen xedea eta helburuak.
- c) Administrazio bakoitzak gauzatzen duen eskumena.
- d) Alderdi bakoitzak bere gain hartzen dituen betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, halakorik baldin badago; adierazi egingo dira bai denboran izango duten banaketa, urteka, bai dagokion aurrekontuan egingo den egozpen zehatza.
- e) Alderdien eskubideak eta betebeharrak, eta, haietako bakoitzak hartutako betebeharrak betetzeagatik, aplikagarriak izango diren ondoreak; hala dagokionean, ez betetzeagatik ezarriko den kalte-ordaina zehazteko irizpideak ere adieraziko dira.
- f) Hitzaumena nahiz hura izenpetzen dutenek hartutako konpromisoak gauzatzeari dagokionez, jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoen definizioa.
- g) Hitzaumena aldatzeko araubidea.
- h) Indarraldia, hori eragozpena izan gabe luzatzeko aukera egoteko, hitzaumena izenpetzen duten alderdiek hala adostuz gero, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko legedian, horretarako, ezarritako arauak aintzat harturik.

7.- Hitzaumen bakoitzak txosten bat izango du erantsia, honako hauek aztertuta: hitzaumeneen beharrezakia eta egokitasuna; inpaktu ekonomikoa; dena delako jarduerak kontratu-izaera ez izatea; eta aplikagarria den legedian xedaturikoa betetzea.

8.- Hitzaumenean, hala behar badu, aurreikusi ahalko da, dagozkion zerbitzuak eta baliabide material eta ekonomikoak eskualdatzeaz gain, halakoei atxikitako pertsonala ere aldatzea, horrek berekin inola ere ekarri gabe inor berea ez den beste administrazio publiko bateko funtzio publikoan sartzea.

9.- Hitzaumenak burutzen dira alderdiek adostasuna emanez, hori eragozpena izan gabe Bizkaiko aldiakari ofizialean edo, gardentasun-atarian argitaratzeko.

10.- Hitzaumenean hartutako konpromiso ekonomikoek Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legean ezarritako zenbatekoa gainditzen dutenean, halakoak elektronikoki helaraziko zaizkio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.



11.- Halaber, aurreko zenbakian jasotako hitzarmenei dagokienez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari jakinarazi egingo zaizkio haietan eginiko aldaketak, haien luzapenak edo epe- aldaketak, hartutako konpromiso ekonomikoen zenbatekoetan eginiko aldaketak, eta haien azkentzea.

128. artikulua.- Lurralde-lankidetzako sareak.

1.- Udal honek, organo eskudunak horretarako hartutako erabakiaren bidez eta dagokion hitzarmena onartuz, lankidetzak-sareak sortu ahalko ditu beste toki-erakunde batzuekin, udal-eskumen batzuk gauzatzea bermatzeko edo udal-zerbitzu publiko batzuk era partekatuan kudeatzeko.
Era berean, lehendik eraturako horrelako sareei atxiki ahalko zaie, halakoen estatutueta edo funtzionamendu-arauetan eskatzen diren prozedura eta baldintzak betez.

2.- Halaber, udal hau atxiki ahalko zaie, organo eskudunak hartutako erabakiaren bidez, Euskadiko Udalen Elkarrekin (EUE) sustatuta edo bestela eratu diren toki-erakunde publikoen sareei.

3.- Alkatetzari edo berak eskuordetutako zinegotzitzari dagokio Udalaren ordezkari politiko eta teknikoak izendatzea, lankidetzak- sareetako organoetan parte har dezaten eta haien bilera eta lantaldeetara joan daitezen.

4.- Udalak eta bere sektore publikoak erakunde komunek eta foru-aldundiek sustaturiko mugaz gaindiko lankidetzak-programetan parte hartu ahal izango dute Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoako beste toki-erakunde batzuekin hizkuntza-, kultura-, ekonomia- eta gizarte-izaerako loturak ezartzeko eta sendotzeko, betiere horrek politika publikoak eta toki-eskumeneko zerbitzuen kudeaketa hobetzen baditu. Era berean, lankidetzak-hitzarmenak adostu ahal izango dituzte lurralde horietako toki-erakundeekin, helburu berberekin.

Era berean, estatuko edo nazioarteko antzeko beste lurralde-erakunde batzuekin lankidetzan aritu ahal izango dira, bai nazioarteko elkarrekin edo federazioen sorrera-, garapen- edo atxikipen-kasuetan, bai lotura ekonomiko edo sozialak ezartzeko edo indartzeko.

V. KAPITULUA: ZERBITZU-KARTAK.

129. artikulua.- Zerbitzu-kartak.


1.- Zerbitzu-kartak herritarrek nahiz erabiltzaileak informatzeko helburua duten agiri batzuk dira, Udalak edo haren sektore publiko instituzionaleko erakundeek ematen dituzten zerbitzu publikoei buruz, zerbitzu horiek emateko baldintzei buruz, herritar eta erabiltzaileek, zerbitzu horiek direla eta, dituzten eskubide eta erantzukizunei buruz, eta kalitate konpromisoei nahiz, zerbitzuok ematearen inguruan, neurgarriak diren beste helburu batzuei buruz.

2.- Zerbitzu-karten helburua da zerbitzu- publikoen kudeaketa etengabe hobetzea, herritarrek adierazitako iritzi eta irizpideak bereziki aintzat hartuz.

130. artikulua.- Zerbitzu-kartak onartzea.

1.- Udalak zerbitzu-kartak edo agiri baliokideak ematen dituen udal-zerbitzu publikoetako bakoitzerako onartuko ditu.

2.- Zerbitzu-kartak Alkatetzaren dekretuz onartuko dira, edo gobernu batzarraren erabakiz, eta berehala onartu izanaren berri emango zaio Udaleko Osoko Bilkurari.



131. artikulua.- Zerbitzu-kartak eta adierazle objektiboak.

Zerbitzu-kartek edo agiri baliokideek adierazle objektiboak ezarriko dituzte, sexuaren, adinaren, lanbide edo jarduera profesionalaren, titulu akademikoaren, errenta-mailaren edo beste batzuen arabera bereizita hala dagokionean, haien bidez ebaluatu ahal izateko udal-zerbitzu publikoen errendimendua eta, orobat, erabiltzaileen gogobetetzea, zerbitzu horiek emateari dagokionez.

132. artikulua.- Tokiko zerbitzu publikoen kalitatea.

Udalak, zerbitzu-karten esparruan, zerbitzu publikoen kalitatea sustatuko du ziurtatzeko, egiaztatzeko edo ebaluatzeko sistemen bidez, eta halakoak erregelamendu organiko honetako titulu honetan arauturiko zerbitzu- gutunetan bilduko dira.

133. artikulua.- Zerbitzu-karten edukia.

Zerbitzu-kartek, dena delako zerbitzuaren izaeraren arabera, honako eduki hau izango dute:


- Zerbitzua ematen duen erakundea.
- Zerrenda xehakatu bat, kasu bakoitzean ematen diren zerbitzuak nahiz dena delako erakundeak herritar eta erabiltzaileekin bere gain hartzen dituen konpromisoak jasota.
- Herritarren edo zerbitzu publikoen erabiltzaileen eskubideak.
- Herritarren edo zerbitzu publikoen erabiltzaileen erantzukizunak edo bete behar dituzten oinarrizko betebeharrak.
- Erabiltzaileek zerbitzu publikoen kudeaketan parte hartzeko erak.
- Kalitateari buruzko konpromisoak eta adierazleak.
- Dena delako erakundean dauden zuzentasun-sistemak eta jokabide-kodeak, halakorik baldin badago.
- Zerbitzu publikoen kalitatea bermatzeko sistemak.
- Ingurumen-babesa eta laneko segurtasuna eta osasuna egiaztatzeko sistemak.
- Genero-berdintasuna bermatzeko nahiz beste edozein arrazoirengatik bereizkeria gertatzea saihesteko neurriak.
- Diskriminazio positiboa sustatzeko neurriak, hala dagokionean, kolektibo jakin batzuen alde, desgaitasuna duten pertsonen alde, bereziki.
- Konpromiso orokor edo zehatzak ez betetzea, hala gertatuz gero, zuzentzeko formulak.
- Erabiltzaileen iradokizunak, kexak eta erreklamazioak kudeatzeko sistemak.
- Erakundeari nahiz haren zerbitzuei buruzko beste xehetasun interesgarri batzuk.

134. artikulua.- Zerbitzu-karten publizitatea.

1.- Zerbitzu-kartak gardentasun-atariaren bidez argitaratuko dira.

2.- Aurrekoa hala izanik ere, herritarrek halako alderdiak hobeki uler ditzaten eta gardentasuna sendotzeko helburuz, zerbitzu- karta guztiek liburuxka sinplifikatuak izango dituzte, haien edukia laburtuta, bai eta zerbitzu- karta horien irakurketa erraz eta didaktikoko formatuak ere.

3.- Aurreko zenbakian xedaturiko agiriak beti egongo dira herritarrek edo zerbitzu publiko horien erabiltzaileek erraz eskuratzeko moduan.



II. LIBURUA. UDAL-GOBERNANTZA. ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ETA KONTU EMATEKO SISTEMA, ADMINISTRAZIO DIGITAL EDO ELEKTRONIKOA, GARDENTASUNA, ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA.

I. TITULUA. ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ETA KONTU EMATEKO SISTEMA


135. artikulua.- Udal-jardunaren balioak eta printzipioak.

1.- Ondorengo balio eta printzipioak, gutxienez, hartuko dira gidatzat gobernu- organoen eta udal-administrazioaren jardueran, ordezkaritza, zuzendaritza, eta aholkularitza bereziko eginkizunetan zein enplegu publikoko harreman baten ondoriozkoetan edo sektore publiko instituzionaleko erakundeetan gauzatutakoetan:

- a) Herritarrei zerbitzua emateko bokazioa.
- b) Erabiltzaile guztientzako tratu-berdintasuna.
- c) Interes orokorrarekiko leialtasuna.
- d) Jasagarritasun ekonomiko, sozial eta ingurumenekoa.
- e) Desabantailan dauden sektoreekiko sentsibilitate aktiboa.
- f) Errespetu pertsonala eta instituzionala.
- g) Eredugarritasuna.
- h) Efizientzia.
- i) Gardentasuna.
- j) Erantzukizuna.
- k) Euskara.
- l) Emakumeen eta gizonen berdintasuna.
- m) Irisgarritasuna

2.- Hau izango dira aipatutako balio eta printzipioen nondik norakoak:

- Herritarren zerbitzua: Udal-jarduerak nahiz prozesu horietan parte hartzen duten erakundeko pertsona guztien jarduerak helburutzat izango du erantzukizunez eta efizientziaz arreta ematea haren ekintza publikoaren hartzaile diren pertsona guztiei, herritarrei kalitateko zerbitzuak emanez eta hobekuntzan parte hartzeko bideak ezarri.
- Zuzentasuna: Zuzentasunaren balioak bide ematen die arduradun eta zerbitzari publikoei egunerokoan koherentziaz jarduteko, bai zerbitzu publikoaren printzipioarekin, bai printzipio horrekin batera datozen beste printzipioekin: objektibotasuna, inpartzialtasuna, eraginkortasuna, gardentasuna, legezkitasuna, etab. Zuzentasuna loturik dago, halaber, balio- edo interes-gatazka saihestearekin eta, halakoa gertatzen denean, erdibide egokia edo balio nahigarrien arteko konpromiso zuhurra hautatzearekin.
- Onestasuna eta desinteres objektiboa: Ordezkaritza-kargudunek edo udal- administrazioaren zerbitzura diharduen pertsonalak, haien izaera edozein izanik ere, dagozkien jarduerak egiaztatutako onestasunez eta desinteres objektiboz gauzatu beharko dituzte. Haien jokabideak —publikoa izan zein pribatua izan— ideia hori izango du gidatzat. Udaleko kargudun eta enplegatu publiko guztiek interes-gatazka nabariak zein latenteak saihestuz jardun beharko dute.
- Objektibotasuna: Jardun objektiboa erakunde osoari dagokio, oro har, eta, enplegu publikoaren kasuan, inpartzialtasun-balioari elkartzen zaio, nork bere eginkizunak betetzean. Kasu batean zein bestean, udal-botere publikoak hartutako erabakiak edo emandako ebazpenak legeak objektiboki betetzearekin bat ez etortzea saihestu nahi da, eta halakoek berekin izaera partziala duten edo ustez izan dezaketen burubideak ekartzea.
- Errespetu pertsonala eta instituzionala: Udal-esparru instituzionalean diharduten pertsona guztiek herritarrak, administrazioaren zerbitzura diharduen pertsonala, eta gainerako ordezkariak tratatu beharko



dituzte pertsona orok merezi duen jendetasunarekin, errespetuarekin eta duintasunarekin. Hartara, ez dute izango horrela jokatzearen aurka doan eta mespretxuzko hitzak edo bazterkeriazko jardunbideak berekin dakarren jokabiderik, bazterkeria-mota orori dagokionez (generoa, sinesmenak, ideologia, sexu-orientazioa, arraza, desgaitasuna edo beste edozein arrazoi oinarritzat hartzen duena). Bereziki, genero- arloko berdintasun erreala sustatuko eta errespetatuko dute.

- **Eredugarritasuna:** Zerbitzari publikoak, haien izaera edozein izanik ere (kargudunak, zuzendaritza-kideak edo enplegatu publikoak), erakundearen ispilua dira, non herritar guztiek begiratzen duten. Haien jokabideak – publikoa izan zein pribatua izan- ideia hori izango du gidatzat.

- **Efizientzia:** Kargu publikodunek eta udal- administrazioaren zerbitzura diharduen pertsonalak aurrera eramaten duten baliabide-kudeaketan zein kudeaketa ekonomiko-finantzarioan efizientzia izango da nagusi, inolako xahubiderik egin gabe ondasun eta baliabide publikoak erabiltzean eta halakoen erabilera optimizatuz. Efizientziako helburu hau berrikuntza- prozesuen bidez sustatuko da, edo etengabe hobetzeko prozesuen bidez, politika publikoen ebaluazioa funtsezko oinarritzat harturik.

- **Gardentasuna:** Udaleko edozein kargu publikodunek, zuzendaritza-kidek edo enplegatu publikok erabakiak hartzeak edo haiek hartzen parte-hartzeak gardentasun- printzipioa izango du gidatzat, herritarrei beharrezkoa informazioa emanez, erabaki jakin batzuk zergatik hartzen diren edo boto edo proposamen baten zentzua zein den azaltzeko. Gardentasun-printzipioa hedatuko da, halaber, kargu publikodun bakoitzak dituen jarduerak eta interesak aitortzeko eskakizunak zehatz-mehatz betetzera, bai eta ordezkaritza-kargudunen, zuzendaritza-kideen edo udal- administrazioaren zerbitzura diharduen pertsonalaren bateraezintasun-araubidea betetzera ere.


- **Erantzukizuna:** Ordezkaritza-kargu publikodunek edo zuzendaritza-lanetan dihardutenek bere eginkizunak gauzatu beharko dituzte halakoak betetzeko gaitasun politikoa edo kudeatze-gaitasuna dutela egiaztatuz, beren prestakuntza osatu eta beren gaitasunak garatu beharko dituztela onartuz, postua betetzean herritarrentzat emaitza hobea lortzeko. Horretarako, aldi behin kontu emango dute. Udal-administrazioaren zein haren sektore publikoaren zerbitzura diharduen pertsonalak, bestalde, egiaztatutako profesionaltasunez, leialtasunez, konfidentzialtasunez nahiz zerbitzuak ematen dizkieten administrazioarekiko fede onez beteko dituzte beren eginkizunak, eta, era berean, beren ezagutzak eta trebetasunak uneko eskakizunetara egokituko dituzte, jardunaren arabera ebaluatu beharko dela haien jarduera profesionala.

- **Euskara:** Zuzentasun instituzionala sustatzeko helburua duten autoarauketako tresnek oinarrizko jardun-printzipiotzat izango dute euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza dela gobernu-organismoetan zein udal-administrazioan, bai eta halakoek herritarrekin dituzten harremanetan ere, bereziki kontratazio publikoaren arloan eta diru-laguntzen politikan; halako esparruetan, hain zuzen, eratzen diren zuzentasun instituzionaleko sistemek puntu hori nabarmenduko dute halabeharrez.

- **Emakumeen eta gizonen berdintasuna:** Jokabide-kodeak jaso egin beharko dute, balioetan edota gobernu oneko printzipioetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa sustatu beharra. Berdintasunaren sustapen hori praktikan bultzatu beharko dute ordezkari politikoek eta zuzendaritza-lanetan edo aholkularitza bereziko lanetan dihardutenek, bai eta udal-enplegu publikoaren arloan ere, eta islatu beharko da, halaber, kontratazio publikoari eta diru- laguntzei buruz ezartzen diren zuzentasun instituzionaleko esparruetan.

- **Irisgarritasuna:** 145.2 artikuluan jasotzen denarekin bat etorritz.

3.- Aurreko ataletan aipaturiko balio eta printzipioez gan, aplikagarriak izango dira oinarrizko legedian eta Euskal Sektore Publikoaren, maiatzaren 12ko, 3/2022 Legean jasotzen direnak.



136. artikulua.- Zuzentasun instituzionaleko sistema.

1.- Udalak, Osoko Bilkuraren erabaki bidez tokiko erakundearen eta haren sektore publikoaren zuzentasun-sistema bat onartuko du, honako oinarri nagusi hauek izango dituen:

a) Jokabide-kode bat edo, bestela, kode- multzo bat, erakundea osatzen duten edo udal- administrazioarekin harremanetan dauden kolektiboei aplikatzekoak zaizkion kodeak jasota. Kode horren egiturak, batetik, balio etikoak eta, bestetik, jokabide-arauak jasoko ditu.

b) Kodean ezarritako balio eta jokabide-arauen aurka doazen jardunbide desagokiak edo jokabideak prebenitzeko sistema bat eratzea; xedetzat izango du haren edukia ezagutaraztea, prestakuntza-politikak aurrera eramatea, antolamenduan azpiegitura etikoa sortzea, eta arrisku-esparruak eratzea, jardunbide desagoki edo ez-efizienteen aurrean suebakiarena egin dezaten eta, areago, ustelkeriaren aurkako disuasio-elementuak izan daitezen.

c) Prozedura, bitarteko edo bideak ezartzea, ahal dela elektronikoak (leiho etikoa), arazo edo dilema etikoak, kexak edo kontsultak aurkezteko; kasu jakin batzuetan, konfidentzialtasuna gordetzea aurreikusi ahalko dute.

d) Etika-batzorde edo etika-mandataritza bat sortzea; organo horrek autonomia funtzionala izango du, eta haren eskudantzia nagusia izango da kodearen interpretazioari eta norainokoari buruz planteaturiko zalantzak, kontsultak, dilemak, arazoak edo kexak ebaztea, bai eta kodearen aplikazioaren jarraipena egitea, aplikazio-gidak prestatzea eta koderako hobekuntzak proposatzea ere, kodea etengabeko berrikuspena jasaten ari den tresna bizi bat izanik. Etika-batzorde bat eratzen bada, betiere bermatuko da erakundetik kanpoko kide bat edo gehiago egotea, beren irizpidearen bidez inpartzialtasuna eta objektibotasuna sendo ditzaten organoaren funtzionamenduan. Halaber, kide anitzeko organoa bada, haren osieran genero-parekidetasuna bermatzeko joera egongo da.

e) Kodearen aplikazioaren emaitzei buruz aldiari behin ebaluazioa egiteko jarraipen- sistema bat ezartzea; ebaluazio hori, oztopo izan gabe kanpoko erakundeek gauza dezaten, etika-batzordeak edo mandatariak egingo du.

2.- Udalak, halaber, zuzentasun-sistema kontratazio publikora eta diru-laguntzak emateko prozesuetara hedatu ahalko du.


3.- Nolanahi ere, oztopoa izan gabe aurreko zenbakietan xedaturikorako, kodeak sistema gehigarriak ezarri ahalko ditu, edo kanpo- ikuskapeneko sistemak, egiaztatutako erakunderen baten edo batzuen eskutik, kodearen aplikazioaren jarraipena, kontrola eta ebaluazioa egiteari dagokionez.

137. artikulua.- Jokabide-kodea.

1.- Udaleko Osoko Bilkurak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 35. artikuluan xedaturik dagoenaren arabera jokabide-kode bat onartuko du, gobernu-taldeko kideei zein gainerako udal-ordezkariei aplikagarria izango zaiena.

2.- Jokabide-kodearen aplikagarritasuna gobernu-taldeko kideengana soilik hedatzen bada, gobernu-batzarrak onartu ahalko du.

3.- Jokabide-kodeak arlo bakoitzari lotzen zaizkion balioak eta jokabide-arauak zehaztuko ditu, kargu publikodun horiek jarraitu beharrekoak.



4.- Jokabide-kodearen aplikagarritasuna hedatuko da, bai Udaleko bertako barne- harremanetara, bai beren jardura enplegu publikoan edo beste erakunde batzuetan gauzatzen duten pertsonekin nahiz herritarrekin, oro har, ezarritako harremanetara.

138. artikulua.- Gobernu ona.

1.- Aurreko artikuluan arauturiko jokabide-kodeak jaso ahalko ditu, orobat, gobernu oneko printzipioak eta jardute-arauak, autoarauketa-tresna horri lotutako kargu publikodunen jardunean kudeaketa publikoa hobetzeko helburuz.

2.- Gobernu onaren printzipioak hurrengoak dira, 135.2. artikuluan ezarritako definizioei jarraituz:

- a) Herritarren zerbitzua.
- b) Efizientzia.
- c) Gardentasuna.
- d) Benetako Erantzukizuna kontu ematearen bidez.

3.- Kodeak gobernu oneko printzipioak eta jardute-arauak jasotzen baditu, «jokabideari eta gobernu onari buruzko kodea» izendatuko da.

4.- Jokabideari eta gobernu onari buruzko kodeak –edo jokabideari eta jardunbide egokiei buruzko kodeak– beste printzipio batzuk ere jaso ahalko ditu, artikulua honetako aurreko 2. zenbakian ezarritakoez gain.

139. artikulua.- Beste Jokabide-Kode batzuei atxikipena.

Udala beste erakunde batzuek onartutako beste jokabide-kode batzuei osoki, zati batean edo aldaketekin atxiki ahalko zaie, baldin haien edukia udal-jarduerarekin bateragarria bada.

140. artikulua.- Kodeari banaka atxikitzea.


1.- Banakako konpromisoa burutzeko helburuz, dagokien gobernu-organoek jokabide-kodea onartu eta gero, Udaleko ordezkari politikoak halako balio eta jokabide- arauak berariaz, banaka eta borondatez atxiki beharko zaizkio, eskuratzen zaien agiria izenpetuz horretarako.

2.- Atxikitzeko konpromiso hori Udaleko Idazkaritzaren aurrean formalizatu beharko da, hamabost eguneko epe batean, gehienez, gobernu-organo eskudunek kodea onartzen dutenetik hasita.

141. artikulua.- Jokabide-kodea zuzendaritza- kideengana, Udaleko goi-kargudunengana eta behin-behineko langileengana hedatzea.

1.- Udaleko eta beraren sektore publikoko erakundeetako zuzendaritza-kideek eta behin- behineko pertsonalak ere jokabide-kode bat izango dute, edo, bestela, aurreko artikuluetan udal-ordezkariei dagokienez araututako jokabide-kodea haiengana hedatu ahalko da.

2.- Aurreko zenbakian ezarritako ondoreetarako, udal-administrazioiko zuzendaritza-kideak hauek izango dira:



- a) Indarrean den araudian ezarritakoaren arabera eta, bereziki, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen IV. tituluko III. kapituluaren eta bat datozen xedapenetan xedaturikoaren arabera izendatu diren zuzendaritza-kide publiko profesionalak.
- b) Estaturako gaikuntza duen funtzionario den pertsonala.
- c) Udaleko zuzendaritza-kideak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko Legeko hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian (3. paragrafoa) xedaturik dagoenaren arabera.

142. artikulua.- Etika- eta jokabide-kodea: udal-enplegu publikoa eta sektore publiko instituzionalaosatzen duten Udalaren mendeko edo hari lotutako edo atxikitako erakundeen enplegua.

- 1.- Udalak sustatuko egingo du udal-enplegu publikoaren eta sektore publiko instituzionalaren etika- eta jokabide-kode bat onar dadin, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzeko urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan (52. Artikulutik 54. artikulura bitarte) eta gai horren inguruan ematen den autonomia-erkidegoko legedian, halakorik ematen baldin bada, xedaturik dagoena garatzeko.
- 2.- Betiere, etika- eta jokabide-arau hori erregelamendu organiko honetako 135. artikuluan ezarritako balioetan inspiratuko da, erakunde osoaren baliotzat hartzen diren heinean.
- 3.- Udal enplegu publikoarentzat etika- eta jokabide-kode bat onartzearen helburua da antolamenduaren azpiegitura etikoa hobetzea, herritarrei kalitate handiagoko zerbitzu publikoak ematea, jardun eredugarria aurrera eramatea, erakundearen nahiz haren enplegatuen irudi publikoa sendotze aldera, eta enplegu publikoaren profesionalizazioa indartzea, eginkizunak betetzean baliatutako zuzentasunaren bidez.
- 4.- Udal-enplegu publikoaren etika- eta jokabide-kodea Udaleko Osoko Bilkuraren erabaki bidez onartuko da.
- 5.- Nolanahi ere, Udala beste erakunde batzuek onartutako beste jokabide-kode batzuei osoki, zati batean edo aldaketekin atxiki ahalko zaie, baldin haien edukia udal- jarduerarekin bateragarria bada.


143. artikulua.- Legeetan ezarritako jarduera- eta jokabide-printzipioak.

- 1.- Betiere, gobernu-taldeko kideei nahiz gainerako udal-ordezkariei aplikatu egingo zaizkio Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzeko ekainaren 26ko 1/2014 Euskal Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritako jarduera- eta jokabide-printzipioak.
- 2.- Halaber, Udaleko goi-kargudunei aplikatu egingo zaizkie Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko 19/2013 Legeko II. tituluaren jasoriko printzipio eta arauak.
- 3.- Aurreko zenbakietan xedaturik dagoena, dena dela, ez da oztopo izango gai horren inguruan ematen den eta aplikagarria den autonomia-erkidegoko legedirako.

II. TITULUA. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA

144. artikulua.- Xedapen orokorrak.

- 1.- Titulu honetan xedaturikoa udal- administrazioa izango zaio aplikagarria. Alabaina, haren mendeko merkataritza- sozietateei eta zuzenbide pribatuko beste erakunde batzuei aplikagarria izango zaie administrazio-ahalak betetzen dituztenean eta titulu honetan haiek berariaz aipatzen dituzten edukien kasuan.



2.- Udal-administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoak erabiltzeari buruz titulu honetan xedatzen dena ordenantza bidez edo, bestela, erregelamendu bidez garatu ahalko da, herritarrek bitarteko elektronikoz harremanetan jartzeko eskubidea benetan gauzatu ahal izateko, kolektibo edo lanbide- jarduera jakin batzuentzat udal- administrazioarekin bitarteko elektronikoz harremanetan jartzeko betebeharra ezartzeko, hala dagokionean, administrazioaren funtzionamenduan eraginkortasun handiagoa lortzeko, eta gardentasunaren, parte- hartzearen, hurbiltasunaren eta herritarren zerbitzuaren printzipioak gauzatzeko.

3.- Erregelamendu organiko honetan, udal- gardentasunari buruzko ordenantzan edo onartzen diren erregelamenduetan, halakoak onartzen baldin badira, xedaturik ez dagoen guztian, administrazio publikoen administrazio- prozedura erkideari buruzko estatuko oinarritzko legedia eta sektore publikoaren araubide juridikoa arautzen duena nahiz aplikagarria den autonomia-erkidegoko araudia aplikatuko dira.


Bereziki, bitarteko elektronikoen bidezko administrazio-kontratazioaren arloan, sektore publikoko kontratuei buruzko estatuko legedia aplikatuko da, zehazki Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko hamabosgarren, hamaseigarren, hamazazpigarren eta hemezortzigarren xedapen gehigarrietan xedaturik dagoena.

145. artikulua.- Printzipioak.

1.- Udal-administrazioak errespetatu egin beharko ditu, bere antolamenduan, jardunean eta sektore publikoko gainerako erakundeekin zein herritarrekin dituen harremanetan, sektore publikoaren araudi juridikoa arautzen duen legedian ezarritako printzipio orokorrak, bai eta autonomia-erkidegoko legedian ezarritakoak, hala egiten denean.

2.- Gainera, udal-administrazioaren administrazio elektronikoaren antolamendua eta prozedura honako printzipio hauek aintzat hartuz eraentzen dira:

- a) Herritarren zerbitzua, hurbiltasunaren, gardentasunaren eta parte-hartzearen printzipioak benetan gauzatzeko aldera.
- b) Izapideak eta prozedurak sinplifikatzea eta herritarrentzako kargak kentzea, administrazio elektronikoko teknikak erabiltzeak ondorioz dakarren efizientzia baliaturik.
- c) Bere jardueran, oro har, bitarteko elektronikoak bultzatu eta sustatzea Udal honen, beraren mendeko erakundeen eta sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeen artean gertatzen diren harremanetan, bai eta herritarrekiko harremanetan ere, herritarrek bitarteko horiek erabiltzeko sustapen- nahiz prestakuntza-neurriak ezarritik, helburu berekin elkar- erakundeekin lankidetzan aritzeko neurriak ezartzeaz gain.
- d) Neutraltasun teknologikoa; bereziki, administrazio elektronikoan kode irekiko softwarearen erabilera sustatzea.
- e) Elkarreragingarritasuna, erabiltzen diren informazio-sistemak herritarren nahiz beste administrazio batzuen sistemekin bateragarriak izateko eta elkar ezagutzeko moduan.
- f) Herritarren datuen konfidentzialtasuna, segurtasuna eta babesa, arlo horiek arautzen dituen araudiaren arabera. Horrek behartzen du une bakoitzean datu pertsonalen babesa bermatzeko eskuragarri dagoen teknologia erabiltzera, helburuak edo baimenak onartzen ez duen trazabilitate pertsonal oro eragozteko segurtasun-neurriak ezarritik.
- g) Administrazio arteko lankidetzak eta elkarlaguntza, gainerako administrazio publikoekin hitzarmenak eta akordioak izenpetzea sustatuz, erregelamendu honetan jasotako aurreikuspenak garatzeko xedez, bereziki eta besteak beste, estandar teknikoak finkatzea eta informazioa, datuak, prozesuak eta aplikazioak trukatzeko eta partekatze mekanismoak ezartzea helburutzat dutenak, elkarreragingarritasunez betiere.
- h) Erabilerraztasuna eta erabilgarritasuna, herritarrek informazioa eskuratzeko sistema errazak erabiliz, hizkuntza erraz, argi eta ulergarria baliatuz eta, bereziki, desgaitasunak edo zailtasun bereziak dituzten herritarren eskura beharrezko baliabideak jarritik, bitarteko elektronikoen bidez informazioa eskura dezaten.



- i) Ekintza eta politika publiko egokiak bultzatu eta sustatzea, kolektibo guztien inklusio digital osoa lortzeko, eta sarbideari, erabilerari eta erabileraren kalitateari lotutako arrakala digitala ezabatzeko.
- j) Zehaztasuna eta eguneratzea. Lehenak bermatzen du formatu elektronikoko informazioaren edukia paperezko euskarrian ematen den berbera dela, eta bigarrenak bermatzen du formatu elektronikoko informazioa eguneratu egiten dela; hori dagozkion argitalpenetan jaso behar da.
- k) Bitarteko elektronikozko harremanetan, hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko, euskara zein gaztelania, herritarrek duten eskubidea bermatzeko.

146. artikulua.- Organo eskudunak.


- 1.- Udaleko Udalbatzari dagokio administrazio digital edo elektronikolari buruzko ordenantza eta haren aldaketak onartzea.
- 2.- Alkateari dagozkio administrazio elektronikoen arloko gainerako eskumenak; bereziki:
 - a) Prozedura elektronikoen prozesuen planifikazioa, ezarpena bultzatzea eta zuzentzea.
 - b) Udal-administrazioaren antolamendua eta funtzionamendua egokitzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.
 - c) Segurtasunari eta elkarreragingarritasunari buruzko arauditik eratorritako agiriak onartzea eta, hala dagokionean, datuak babesteko ordezkariaren figura, Udaleko Segurtasun Batzordea edo zeregin horiek koordinatzeaz arduratzen diren organoak sortzea.
 - d) Identifikazioko eta izenpe elektronikoko sistemen inguruko neurri zehatzak hartzea.
 - e) Agiri-kudeaketarako eta artxibo elektronikorako politikaren arauak onartzea.
 - f) Dagozkion ebazpenak ematea, titulu honetan berariaz esleituriko beste arlo batzuetan.

147. artikulua.- Izapide eta prozedurei buruzko eskuliburua.

- 1.- Udalak bere eskumeneko izapide eta prozedurei buruzko eskuliburu bat prestatuko eta eguneratuko du, hizkuntza errazean eta modu argi eta zehatzean idatzia, ebazteko gehieneko epeak eta dakartzan ondoreak adierazirik. Agiri hori oinarria izango da izapide eta prozeduren katalogorako; hura Alkatetzaren ebazpenez onartuko eta aldatuko da, eta web-atarian argitaratuko da, informatzeko helburuarekin.
- 2.- Aurretik, parte hartzeko eta berrikuntzak egiteko barne-prozesu bat egingo da, izapideak sinplifikatzeko eta herritarrei kargak murrizteko xedez, beharrezkoak ez diren agiriak kenduz, dena delako araudiak aurkakoa ezarri ezean. Horren ondoretarako, hauek ez dira beharrezkotzat joko: Eragin osoa izan dezan, kontuan izan behar da interesdunak eskubidea daukala dagoeneko administrazioaren beraren esku dauden agiriak ez aurkezteko edo beste edozein administrazio egindako agiriak ez aurkezteko.

Edozein kasutan, hauek ez dira beharrezkotzat joko:

- a) NANaren edo agiri baliokidearen kopia.
- b) Baldintza batzuk betetzea egiaztatzeko, udal-administrazioak berak eman beharreko edozein ziurtagiri edo agiri.
- c) Beste administrazio publiko batek prestatu edo emandako edozein agiri, datu- bitartekotzako plataformen bidez edo horretarako gaituriko beste sistema elektronikoko batzuen bidez eskuragarri dagoenean.
- d) Dena delako araudiak eskatzen ez duen edozein agiri.
- e) Interesdunak beste administrazio publiko bati lehendik aurkezturiko datu edo agiriak, baldin administrazio horrek datu- bitartekotzako plataformen bidez eskuragarri jartzen baditu eta interesdunak adierazten badu noiz eta zein organoren aurrean aurkeztu zituen datu edo agiri horiek, interesduna horren aurka agertu ezean.



Interesduna ezingo da horren aurka agertu, baldin eta datua edo agiria aurkeztea nahitaezkoa bada, zehapen- edo ikuskapen-eskumenak gauzatzeko orduan.

f) Beharrezko informazioa eman arren, interesdunaren eskabidean datu edo metadatu gisa gehi daitekeen informazio bat ematen duen edozein agiri edo kopia.

3.- Katalogoan jasotako izapide eta prozedura administratiboek aditzera emango dute haien izapidetzea bide telematikoz egin ahalko denentz eta Udalaren egoitza elektronikotik eskaintzen direnentz. Agiri hori Alkatetzaren ebazpenez onartuko eta aldatuko da, eta egoitza elektronikoan jarriko da.

148. artikulua.- Bitarteko elektronikoen erabilerarako laguntza.

1.- Alkatetzari dagokio antolamendu-arloko beharrezko neurriak hartzea, beharrezko bitarteko elektronikoen erabilerarako laguntza bermatzeko, hura eskatzen duten interesdun guztientzat. Laguntza horren helburuen artean sartuko dira, betiere, identifikazioari eta izenpe elektronikoari dagozkion zerbitzuak, erregistro elektronikoko orokorraren bidez eskabideak aurkeztea, eta kopia kautoak lortzea.

2.- Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondoreetarako, Alkatetzaren ebazpenez, gainerako administrazioen erregistroekin elkarrengarria den eta interkonektatua dagoen erregistro bat sortuko da, eta han egon beharko dute, gutxienez, erregistro-arloan laguntza-zerbitzuak ematen dituzten identifikaziorako eta izenpe elektronikorako gaitutako funtzionarioek.

149. artikulua.- Enplegatu publikoen komunikazioak eta prestakuntza.

1.- Udal-administrazioari enplegatu publikoek bitarteko elektronikokoak erabiltzera behartuta daude, hala izapideak egitean nola beraiek parte hartzen duten barneko zein kanpoko komunikazioen arloan.


2.- Udal-administrazioa beraren zerbitzura diharduen pertsonalaren prestakuntza sustatuko du, bitarteko elektronikoen erabilerarako, dena delako zerbitzu horri dagozkion jarduerak aurrera eraman ditzaten. Berezi, berariazko prestakuntza sustatuko du ezagutza eguneratuak bermatzeko udal- jardueran bitarteko elektronikoen erabiltzeari lotutako segurtasun-baldintzei buruz, datu pertsonalak babesteari buruz, jabetza intelektual eta industrialak errespetatzeari buruz, eta informazioaren kudeaketari buruz.

150. artikulua.- Egoitza elektronikoa.

1.- Egoitza elektronikoa da telekomunikazio-sareen bidez herritarrentzat eskuragarri dagoen helbide elektronikoa –Udal honen titulartasuneko edo, bestela, beraren mendeko erakunde baten titulartasuneko–, sarbide-puntua dena udal-administrazio honekin harreman elektronikokoak ezartzeko eta beraren administrazio elektronikoko sistemaren funtzionamenduari buruz informazioa eskuratzeko.

2.- Egoitza elektronikoa Alkatetzaren ebazpenez sortuko da, eta egoitza horretan bermatu beharko dira, betiere, haren titularra den organoaren identifikazioa nahiz iradokizunak eta kexak egiteko dauden bideak. Era berean, bermatu beharko da, bai egoitza elektronikoen erabateko segurtasuna, bai haren bidez gauzaturiko komunikazioena.

151. artikulua.- Erregistro elektronikoa.



1.- Udal-administrazioak Erregistro Elektronikoko Orokor bat izango du, eta erregistro horretan egingo dira administrazioari aurkezten zaion agiri guztien sarrera-idazpenak nahiz beste organo batzuei edo partikularrei zuzenduriko agiri ofizialen irteera-idazpenak.

2.- Erregistro Elektronikoko Orokorra Alkatetzaren ebazpenez sortuko da, eta ebazpen horretan zehaztu beharko dira haren kudeaketaren ardura duen organoa edo unitatea, data eta ordu ofizialak, eta baliogabetzat jotako egunak. Ebazpena Bizkaiko Aldizkari ofizialean argitaratuko da, eta haren testu osoak kontsultarako eskuragarri egon beharko du egoitza elektronikoa.

3.- Erregistro Elektronikoko Orokorra administrazio publiko guztien artean erregistroko idazpen elektronikoa trukatzeko sistemekin interkonektatua egongo da, eta haiekin elkarreragingarria izango da.

152. artikulua.- Udal-administrazioaren identifikazioa eta izenpe elektronikoa.

1.- Udal-administrazioa identifikatu ahalko da zigilu elektronikoko sistemak erabiliz, aplikagarria den araudian xedaturikoaren arabera aitortua edo kalifikatua den ziurtagiri elektronikoa batean oinarriturikoa.

2.- Zigilu elektronikoen ziurtagiri kalifikatuak udal-administrazioaren organoei eman beharko zaizkie batik bat, hori eragozpena izan gabe udal-administrazioak bere izenean ziurtagiri kalifikatu bat izateko.

3.- Alkatetzaren dekretu bidez, egiaztapen- kode seguruko sistemak sortu ahalko dira, udal-administrazioak era automatizatuan izenpetu ahal izateko. Alkatetzaren dekretua Bizkaiko aldikari ofizialean argitaratu beharko da.

4.- Udal-administrazioak administrazio-organoen titularrei eta pertsonalei identifikazio eta izenpe elektronikoa aurreratuko sistemak eskuratuko dizkie, ziurtagiri elektronikoa edo kalifikatu batean oinarriturikoa, gauzatu behar dituzten jardunek eskatzen duten segurtasun-mailaren arabera.

153. artikulua.- Herritarren identifikazioa eta izenpe elektronikoa.

1.- Herritarrek udal-administrazio honen aurrean beren burua elektronikoki identifikatu eta izenpetu ahalko dute, aldez aurretik erabiltzailetzat erregistratzea, identitatea bermatzeko, eskatzen duen sistema bat erabiliz. Sistema hori egoitza elektronikoa argitaratuko da.


2.- Identifikaziorako eta izenpe elektronikorako sistemen erabilera eraenduko da halakoak eman eta kudeatzen dituen organo titularrak ezarritakoaren bidez, bai eta, arlo horretan, Alkatetzaren ebazpenez onartzen den politikan xedaturikoaren bidez, halakorik onartzen baldin bada.

154. artikulua.- Agirien artxibo elektronikoa.

1.- Udal-administrazioak prozedura bukatuei dagozkien agiri elektronikoen artxibo bakarra mantendu beharko du.

2.- Administrazio-jardunetan erabilitako agiri guztiak bitarteko elektronikoen bidez biltegiatuko dira, salbu eta hori posible ez bada eta hala egiaztatzen bada.

3.- Alkatetzari dagokio agiri-kudeaketarako eta artxibo elektronikorako politikari buruzko arauak onartzea.



155. artikulua.- Administrazio-prozedura elektronikoa.

1.- Udal-administrazioak ahalorde-erregistro orokor bat izango du, gainerako administrazio publikoen erregistroekin elkarreragingarria izango dena, eta erregistro horretan inskribatu beharko dira, gutxienez, aurrez aurre edo elektronikoki administrazio-prozedura batean interesdun denak ordezkari bati, administrazio publikoen artean jarduteko, *apud acta* emandako ahalorde orokorrak, bai eta ahalordearen askiestea ere.

2.- Ebazpenen eta administrazio-egintzen jakinarazpenak bitarteko elektronikoak erabiliz egin daitezzen lehenetsiko da, eta, betiere, interesdunak bide horretatik jasotzera behartuta daudenean.

156. artikulua.- Kontratazio elektronikoa.

1.- Titulu honen aplikazio-esparruan sartzen diren erakundeek egindako kontratuak esleitzeko prozeduren izapidetzeak betiere elektronikoa soil-soilik izan beharko du. Udal- administrazioaren eta lizitatzailen arteko komunikazio oro, baita kontsultei dagokienez ere, komunikazio elektronikoa batean jaso beharko da.

2.- Kontratazio-organoak ez dira beharturik egongo bitarteko elektronikoak erabil daitezela eskatzera eskaintzak eta parte hartzeko eskabideak aurkezteko prozesuan, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko hamabosgarren xedapen gehigarrian arauturik dauden kasuetan.

3.- Kontratazio-organoek bermatu egingo dute datuen osotasuna eta eskaintzen nahiz parte hartzeko eskabideen konfidentzialtasuna gorde daitezzen, informazioa komunikatu, trukatu, biltegitatu eta zaintzean. Halaber, bermatu egin beharko dute eskaintzen eta parte hartzeko eskabideen edukia ez dadin ezaguna izan, halakoak aurkezteko epea bukatu artean eta irekitzeko finkatutako unera arte.

4.- Kontratazio-prozeduretan erabil daitezkeen bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoek Sektore Publikoko Kontratuen Legeko hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarrita dauden baldintzak bete beharko dituzte.

5.- Kontratazio-organoek bermatu egingo dute Sektore Publikoko Kontratuen Legeko hamazazpigarren xedapen gehigarrian jasotako baldintza bereziak bete ditzatela eskaintzak, parte hartzeko eskabideak, planoak eta proiektuak –proiektu lehiaketetan– nahiz aurkeztu beharreko beste agiri batzuk elektronikoki jasotzeko tresna eta gailuek.

6.- Udalak eta berari lotutako edo beraren mendeko erakundeek beren kontratatzaile- profilen argitalpena Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataforman ostatatuko dute.


III. TITULUA. UDAL-JARDUERA PUBLIKOAREN GARDENTASUNA.

157. artikulua.- Gardentasun-printzipioa.

1.- Gardentasun-printzipioa gobernu-organoen eta udal-administrazioaren jardunaren oinarria eta gida da.

2.- Gardentasun-printzipioa jaso egingo da, halaber, tokiko ordezkarien zein toki- administrazioaren zerbitzura diharduen pertsonalaren jokabideari eta gobernu onari buruzko kodean.

158. artikulua.- Gardentasunaren xedea.



Gardentasunaren xedea Udalaren jarduera politiko-administratiboa da, herritarrek erabat jakitun izan daitezen zein diren antolamendu- egiturak, nork osatzen dituen halakoak, zer eginkizun dituzten, nola hartzen diren erabakiak, eta zertan erabiltzen diren baliabide publikoak, gobernu-eta administrazio- organoen zein tokiko sektore publiko instituzionalaren funtzionamenduari buruz kontrol demokratiko bat egin ahal izateko.

159. artikulua.- Gardentasunaren arauketa.

Erregelamendu organiko honetan eta udal- gardentasunari buruzko ordenantzan, halakorik onartzen baldin bada, xedaturik ez dagoen guztian, aplikagarriak izango dira gardentasunari buruzko eta kontratazio publikoari buruzko estatuko oinarritzko legedia eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko VI. tituluan (I., II. eta III. kapituluak) xedaturik dagoena, hori guztia, datuak babesteari buruzko legedia erabat errespetatuta.

160. artikulua.- Udal-gardentasunaren alderdiak.

Udal-gardentasunak eremu hauek hartzen ditu barnean:

- a) Gardentasuna-Publizitate aktiboa.
- b) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.
- c) Datu irekiak.
- d) Elkarlaneko gardentasuna.
- e) Antolamendu barneko gardentasuna.

161. artikulua.- Gardentasuna-publizitate aktiboa.

1.- Gardentasuna-publizitate aktiboa da Udalak era proaktiboan bete behar dituen informazio publikoko betebeharren multzoa, arloan aplikagarria den legedia nahia hura garatzeko araudia aplikatzearen ondorioz.

2.- Gobernu-organoen eta udal- administrazioaren betebeharra da, hura abian jartzeko erantzukizuna duten pertsona, bereziki, publizitate aktiboaren arloan xedaturiko lege-eskakizunak betetzea, aplikagarria den legedian ezarritako moduan eta baldintzetan.


3.- Udalak onartzen duen gardentasunari buruzko ordenantzan, halakoa onartzen duenean, egun indarrean den legediak publizitate aktiboaren inguruan jasotako eskakizun-mugak zabaldu ahalko dira, alde formalek zein materialetik.

162. artikulua.- Informazioa publikoa eskuratzeko eskubidea.

1.- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea da pertsona edo erakunde orok duen jakiteko eskubidea, gobernu-organoei, udal- administrazioak edo sektore publiko instituzionaleko erakundeek gauzatutako jarduera publikoaren inguruan.

2.- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gutxienez ere formalizatuko da oinarritzko legedian ezarritakoaren arabera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko VI. tituluko III. kapituluak xedaturik dagoenaren arabera, eta autonomia-erkidegoko legedian gai horren inguruan ezartzen denaren arabera.

3.- Udalak onartzen duen gardentasunari buruzko ordenantzan zehaztuko dira, halakoa onartzen duenean, eskubide hori erabiltzeko bideak, aurkezturiko eskabideei epean erantzuteko barne-prozedurak eta, orobat, eskabide horiek, xedearen arabera, kudeatzeko eskumena duten organoak.



4.- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea tazituki edo espresuki ukatzen bada, errekurso bat aurkeztu ahalko da Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen aurrean edo Eusko Legebiltzarraren legedian azken hori ordeztzeko ezartzen den berme- organoaren aurrean, edo, bestela, bidea irekiko da administrazioarekiko auzi-errekurso bat aurkezteko justizia-auzitegien aurrean.

163. artikulua.- Datu irekiak.

Udalak bultzatzen duen gobernu irekiko politikaren barruan, datu-irekitasuna pixkanaka ezartzea sustatuko da, bai eta, bereziki, datuen berrerabilpena ere.

164. artikulua.- Elkarlaneko gardentasuna.

Udalaren gardentasun-atarian edo, bestela, webgunean, beharrezko bide eta tresnak ezarriko dira, erregelamendu organiko honetan jasotako herritar parte-hartzea benetan gauza dadin, bereziki eztabaida-prozesuetan parte hartzeari dagokionez, herritar-galdeketa telematikoei dagokienez zein udal-zerbitzu publikoen kudeaketa eta funtzionamenduari buruzko iradokizun, proposamen, kexa edo salaketak formulatzeari dagokionez.

165. artikulua.- Antolamendu barneko gardentasuna.

1.- Gardentasuna udal administrazio- antolamenduaren jardun-printzipio bat da, haren sektore publiko instituzionalaren aldetik eta, bereziki, Udalean zerbitzua ematen duten kargudun eta enplegatu publikoen aldetik.

2.- Udal-administrazioak administrazio elektronikoaren ezarpena sustatu du, administrazio-antolamenduan nahiz aurrera eramaten diren prozeduretan gardentasun handiagoa eta hobe egoteko beharrezko baldintza gisa.

3.- Udal-administrazioak, era berean, prestakuntza-programak egin daitezzen sustatuko du, egitura politiko-administratiboetara zein haietan lan egiten duten pertsonengana gardentasunaren kultura eta kudeaketa helarazteko xedez.


166. artikulua.- Gardentasun-arloko erantzukizun politikoak.

1.- Funtzionarioen erantzukizun zuzenaz aparte, Alkatetzaren titularra izango du azken erantzukizuna gardentasun-arloan; alabaina, erantzukizun hori Udaleko beste kide bati eman ahalko dio eskuordetzan.

2.- Arlo honetako erantzukizunak hartzeak, arloaren zuzendaritza politikoa ez ezik, arloan aplikagarria den araudia ez betetzeagatik –hala gertatuz gero– etor daitezkeen ondoreak norbere gain hartzea ere badakar berekin,

167. artikulua.- Gardentasunaren antolamendua Udalean.

1.- Antolatzeko ahalak baliatuz, Udalak zehaztu egingo du, Alkatetzaren dekretu bidez, zein arlok eta organok du eskumena garatzeko erregelamendu organiko honetan ezarritako gardentasun-alderdi guztiak nahiz Udalaren gardentasunari buruzko ordenantzan ezarritakoak, halakorik ezarri gero.



2.- Organo eskudunak, halaber, arloan aplikagarria den indarreko araudia ongi kudeatzeko eta aplikatzeko erantzukizuna izango du, Udaleko beste organo edo egitura batzuen aldetik etor daitezkeen erantzukizunak gorabehera, informazioa ez emateagatik, espedienteak helarazten berandutzeagatik edo, bestela, txostenetan gertatutako balorazio-okerrak batengatik.

3.- Alkatetzaren dekretu bidez, Udaleko arlo eta organo guztiek gardentasunaren politika eta kudeaketa koordinatzeko mekanismoak ezarriko dira.

4.- Baldin ez bazaio berariaz esleitu Udaleko arlo edo organo bati gardentasun-arloko eskumena, eginkizun eta erantzukizun horiek Udaleko Idazkaritzak beteko du.

168. artikulua.- Erantzukizuna sektore publiko instituzionalean.

Udalaren sektore publiko instituzionaleko erakundeek arloan gardentasunari buruzko araudia aplikatzeari lotutako erantzukizunak zuzendaritza-organismoetako arduradun nagusienak izango dira, erakunde horietako funtzionario, enplegatu publiko edo langileen jardunagatik edo omisioagatik etor daitezkeen erantzukizunak gorabehera.

169. artikulua.- Udal-gardentasunaren jarraipena.

1.- Gardentasun-arloko organo eskudunek, urte bakoitzeko lehen seihilekoan, txosten bat osatuko dute, publikitate aktiboaren eta informazio publikoa eskuratzearen inguruko betebeharren gauzatze-mailari buruz, aurreko ekitaldiari dagokionez.

2.- Txosten horrek alderdi hauek aztertu eta azalduko ditu:

1) Ordenamendu juridikoan ezarritako publikitate aktiboko betebeharren gauzatze-maila, udal-administrazioaren aldetik nahiz betetzera behartuta dauden gainerako subjektuen aldetik, arloka sailkatuta.

2) Web-atari edo webgunean gehien kontsultaturiko edukiak, ehunekoak berariaz adierazirik, arloaren eta sektorearen arabera.


3) Hau jasoko da informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen inguruan:

- Ebatzitako eskabideen kopurua.
- Eskabideak ebazteko batez besteko epea.
- Osoki, zati batean edo hirugarren batzuek aurka eginda baietsitako eskabideen kopurua.
- Ezetsitako eta ez onartutako eskabideen kopurua.
- Zati batean edo hirugarren batzuek aurka eginda baiesteko, ezesteko eta ez onartzeko arrazoiak.
- Gehien eskatzen den informazioa.
- Eskatzailearen profila (adin-tartea, sexua, eta eskabidean erabilitako hizkuntza).

4) Datu irekiei dagokienez, aurreko ekitaldian irekitze horrek izaniko bilakaera eta aurrerapena adieraziko da, eta datu horietatik, ehunekoetan, zenbat diren berrerabilgarriak.

5) Gardentasun atariaren edo webgunearen bidez herritarrek parte hartzeko egin diren ekintzak.

6) Udal-administrazioari eta haren enplegatu publikoei nahiz ordezkartzeko edo eremu exekutiboko kargu publikodunei zuzendutako prestakuntza-programak eta sentsibilizazio-ekintzak.



7) Gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen inguruko betebeharrak betetzeko estandarren balorazioa eta, beharrezkoak izanez gero, udal- gardentasunaren funtzionamendua hobetzeko gomendioak eta proposamenak.

3- Aurreko ataletan jasotako txostena gardentasun-atariaren bidez argitaratuko da, edo, bestela, web-orriaren bidez.

170. artikulua.- Gardentasun-ataria.

1.- Udalak gutxienez espazio berezi bat izango du udal-webgunean bertan, eta haren bidez herritarrei zein erakundeei sarbidea emango zaie aplikagarria den legedi edo araudian ezarritako gardentasun-betebeharren arabera informazio publiko guztian, bai eta, gobernu-organoen edo udal-administrazioaren jardura ezagutarazteko xedez, Udalak berak borondatez gehitu nahi duen beste edozein informaziotan ere.

2- Nolanahi ere, atarian dela zein webgunean dela, espazio berezi bat gaituko da herritarrek edo udal-zerbitzu publikoen erabiltzaileek iradokizunak eta proposamenak egin ahal izan ditzaten, gardentasunari nahiz udal-administrazioak hura gauzatzeko moduari loturiko edozein alderdiri buruz, bai eta datuak irekitzeari eta berrerabiltzeari lotutako informazio publikoari buruz.

IV TITULUA. HERRITARREN PARTE-HARTZEA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.

171. artikulua.- Xedea.

1.- Titulu honen xedea da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeko VI. tituluko IV. kapitulan jasotako xedapenak garatzea, herritarren eta Udalaren arteko harremanetarako bideak ezartzea, eta herritarren parte hartzeko eskubidea arautzea, bai eta, pertsonen eta erakunde edo elkarteetako dagokien guztian, eskubide hori benetan gauzatzea bermatzeko baldintzak ere, bereziki politika publikoen ekimenerako eta halakoak bultzatu, gauzatu eta ebaluatzeko prozesuetan, xedapen orokorren edo planen prestakuntzan, eta erabakiak hartzeko prozesuetan, udalerriaren ikuspegitik garrantzi berezia duten gaiei dagokienez.


2.- Udalak, titulu honetan xedaturikoaren arabera, beharrezko baliabide eta bitarteko guztiak jarriko ditu herritarren esku, herritarren parte hartzeko eskubidea benetan erabil dadin bermatzeko.

3.- Herritarren parte hartzeko eskubidea banaka edo kolektiboki erabili ahal da, erregelamendu honetan aurreikusitako bide eta tresnen arabera, bai eta udal-ordenantzetan nahiz Udaleko Osoko Bilkurak horretarako hartutako erabakietan ezarritakoen arabera, halakorik ezartzen bada.

172. artikulua.- Aplikazio-eremua.

1.- Titulu hau Udalak bete beharrekoa da, bai eta haren sektore publikoko erakundeek ere, baina azken erakunde-eremu horietan herritarrek parte hartzeko erregelamendu organiko honetan arauturiko prozesuetakoren bat sustatzen denean soilik.

2.- Halaber, titulu honen aplikazioa, artikuluko hauetan xedatzen den moduan, hedatu egiten da berariaz eraturiko pertsona fisiko, erakunde edo elkarte, eta sare, plataforma edo foroetara, erregelamendu organiko honetan ezarritako moduan.



3.- Zehazki, honako eragile hauek izango dira Toki Erakundeei buruzko Legean, indarrean den legedian nahiz titulu honetan ezarritako modalitate, tresna eta bideetan parte hartu ahalko dutenak:

- a) Durangon erroldaturik dauden pertsonak, salbu eta, galdeketaren batean parte hartzeko, legeak euskal herritar izaera politikoa izateko eskatzen duen kasuetan; orduan, hautesle- erroldan inskribatuta egon behar da.
- b) Udalerrian behin-behinean edo behin betiko bizi diren pertsonak, titulu honetan edo berau garatzeko ordenantzetan edo erabakietan ezarritako moduan.
- c) 18 urtetik beherako eta 16 urtetik beherako pertsonak, titulu honetan ezarritako moduan.
- d) Durangoko Udalaren herritarren parte- hartzerako erakundeen erregistroan inskribaturik dauden erakunde, elkarte, gizarte- erakunde edo taldeak, edo, bestela, EAEko beste udal batzuen, dagokion foru-aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren erregistroetan inskribaturikoak, eta irabazi asmorik ez izatea.
- e) Elkarateak, profesionalen elkargoak, sindikatuak, enpresaburu-elkarateak, zuzenbide publikoko korporazioak edo nortasun juridikoa duten erakundeak, erabaki publiko, programa, proiektu, plan edo Udalaren arau-xedapenen proiektuek haien interes legitimoei eragin diezaieketenean, kasu bakoitzean komeni diren ekarpenak edo iradokizunak egin ditzaten.
- f) Herritarren plataforma, foro o sareak, egoera jakin baterako eratuak eta haien xedea parte hartzeko prozesuaren xedearekin bat baldin badator, titulu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenean. Herritarren plataforma, foro edo sareak birtualak izan ahalko dira, orobat.


173. artikulua.- Helburuak.

1.- Titulu honetan arautzen den herritarren parte-hartzearekin arau-esparru bat ezarri nahi da, bitartekoa izan dadin, herritarrak eta haien erakunde edo elkarateak udal-politikan erabakiak hartu eta -kudeaketa xedetzat duten prozesu horietan guztietan engaiatzeko.

2.- Herritarren parte-hartzearen helburua da, batetik, herritarrak ahalduntzea arazo publikoetan erabakiak definitu eta hartzeko arloan, eta, bestetik, gobernu-jardunari ikuspegi zabaldua ematea, egokitasun eta eraginkortasun handiagoak lortzeko udal- politika publikoak bultzatu, diseinatu, abian jarri, gauzatu eta ebaluatzerakoan, tokiko garrantzi bereziko gaietan erabakiak hartzerakoan, eta udal-zerbitzu publikoak kudeatzeko eta hobetzeko prozesuetan.

3.- Era berean, hauek ere arauketa honen helburuak dira:

- a) Herritarren parte-hartzea eta elkarlana bultzatzea arazo publikoetan, bereziki, edozein xedapen-proiektuk, planek, programak, zerbitzuek edo erabaki publikoko prozesuek eragin diezaieken pertsona, kolektibo edo erakundeenak.
- b) Herritarrak dituzten beharrianak hobeki asetzeko modua bideratzea, Udalak edo beraren sektore publiko instituzionaleko erakundeek esku hartu behar duten kasuetan, jokoan dauden interesak era egokian neurtuz.
- c) Bermatzea, politika publikoak identifikatu, bultzatu, diseinatu, gauzatu edo ebaluatzeko prozesuetannahiz politika horiei buruz erabakiak hartzerakoan, Udalak eta beraren sektore publiko instituzionaleko erakundeek beharrezko eta baliozko datuak izan ditzaten, beren eginkizunak egoki betetzeko eta agertutako arazoan konponketan asmatzeko, herritarren interesak zainduta horrela.
- d) Errazago egitea herritar, erakunde edo elkarteen eta Udalaren arteko interakzioa edo harremana, bai eta Udalak herritarren beharrianen berri jaso dezan eta haietaz ardura dadin ere.



- e) Herritarren erantzukizun partekatua kultura demokratikoa garatu eta sustatzea, udalerriko arazo publikoetan erabakiak hartzeko prozesuei dagokienez, batez ere garrantzi bereziko arazoetan eta udal-zerbitzu publikoen kudeaketan.
- f) Kontzientzia zibikoa eragitea gobernuko eta kudeaketa publikoko gaien inguruan, herritarrek eztabaida-prozesuetan, prestakuntza-lantegietan eta herritarren parte-hartzea sustatzeko neurrien hartzaile izaten parte hartuz.
- g) Erakundearen kalitatea hobetzea, gardentasuna, herritarren parte-hartzea, eta ebaluazioa eta kontu-ematea era konbinatuan gauzatuz.
- h) Betebeharra ezartzea, botere publikoek politika publikoetarako prozesu bakoitzean jokoan dauden interesak neur ditzaten eta era egokian arrazoi dezaten herritarrek nahiz haien erakunde edo elkarteek formulaturiko ekimenak edo proposamenak onartzea edo ez onartzea.
- i) Herritarrek udal-zerbitzu publikoen kudeaketaren ebaluazioan eta hobekuntzan engaiatzea.
- j) Herritarrek bitarteko telematikoen bidez parte har dezaten bultzatzea.
- k) Laguntzea genero-berdintasuna, aniztasunaren babesa eta inklusio sozialaren sustapena, kolektibo behartsuenak barne, benetan gauza daitezen.

174. artikulua.- Parte hartzeko erak aukeratzeko askatasuna.

1.- Herritarrek eta haien erakunde edo elkarteek, erregelamendu honetan eta ordenantzetan edo Udaleko Osoko Bilkuraren erabakietan ezarritako moduan, herritarren parte-hartzea, dauden modalitateetatik edozeinetan, bideratzeko ezarrita dauden harreman-bideak eta tresnak abian jartzeko ekimena erabili ahalko dute.

2.- Nolanahi ere, Udalak eta, hala dagokienez, beraren sektore publikoko erakundeek, organo eskudunen bidez eta indarrean den legedian nahiz erregelamendu honetan xedaturik dagoenaren arabera, askatasun osoz erabakiko dute kasu zehatz bakoitzerako herritarrek parte hartzeko bultzatu beharreko modalitatea edo bidea, entzute aktiboa aurrera eramateko eta, hala dagokionean, herritarrek, erakundeak edo elkarteak udal-erabakiak hartzeko prozesuetan eta zerbitzu publikoen kudeaketan edo hobekuntzan engaiatzeko.

175. artikulua.- Arrazoitze bide beharra.

Udaleko organo eskudunek titulu honetan ezarritako moduan arrazoitu beharko dute ekimenetan, parte hartzeko prozesuetan edo galdeketatan jatorria duen edo halakoetatik eratortzen den erabaki oro, bereziki azkenean erabakitzen den konponbidea bide eta prozedura horien bidez aurkeztutako ekimen eta proposamenetatik osoki edo zati batean aldentzen denean.


176. artikulua.- Herritarren proposamenak eta ekimenak.

1.- Herritarrek eta titulu honetan arauturiko erakunde edo elkarteek bai herritar-proposamenak, bai herritar-ekimenak planteatu ahalko dituzte, batetik, zerbitzu publikoak ematean aldaketak edo hobekuntzak bultzatu eta sustatzeko eta, bestetik, interes orokorrekoa eta Udalaren udal-ekimenekoa den jardun jakin bat sustatzeko.

2.- 16 urtetik gorako pertsona guztiek egin ahalko dituzte herritar-proposamenak eta -ekimenak.

3.- Proposamenak eta ekimenen xedea puntu hauek izan ahalko dira:

- a) Osoko Bilkuraren gai-zerrenda puntu jakin bat sartzea.
- b) Parte hartzeko prozesu jakin baten deialdia egitea.



- c) Aurrez aurreko formatuetan edo formatu digitaletan, herritarren entzunaldiak, inkestak edo forumak egitea.
- d) Udalaren erabaki, ordenantzak eta erregelamenduak sustatu, prestatu eta onartzeko ekimenak, titulu honetan ezarritako moduan.
- e) Herritar-galdeketa bat egitea.
- f) Udal-eskumeneko zenbait alderdiri buruz programa, plan, azterlan edo txosten bat egitea, eskatzeko arrazoa justifikaturik, betiere.
- g) Udal-zerbitzu publikoen kudeaketa hobetzeko proposamenak.

4.- Herritarren proposamenak eta ekimenak erabiltzea eraenduko da, titulu honetan xedaturik ez dagoen guztian, udal- erregelamendu organiko hau arlo horretan garatzeko ordenantza batean ezarritakoaren bidez edo, bestela, Udaleko Osoko Bilkuraren erabaki bidez.


5.- Udaleko Osoko Bilkuraren erabakien bidez, kasu bakoitzean, honako alderdi hauek ezarriko dira: eskabidea aurkezteko behar diren izenpeak; ekimen horien inguruan ondoren egin beharreko izapideak; eta ekimenok izango dituzten ondoreak, inoiz ere lotesleak izan gabe. Dena dela, organo eskudunak arrazoitu egin beharko du zati batean edo osoki onartu ez izana.

177. artikulua.- Herritarrek parte hartzeko prozesuen programazioa, jarraipena eta ebaluazioa.

- 1.- Herritarren esku-hartzea sustatzera bideraturiko jardunak, bai eta haietarako esleituriko baliabideak ere, halakorik esleituz gero, urteko plan edo programa batean jasoko dira.
- 2.- Herritarrek parte hartzeko prozesu guztien jarraipena dagokion informazio-batzordearen bidez egingo da.
- 3.- Batzorde horretara gehitu ahalko dira parte hartzeko prozesuari dagokion alorrean ezagutzak dituzten udal-teknikari batzuk.
- 4.- Herritarrek parte hartzeko prozesuetan, azken txosten bat prestatuko da, lortu diren emaitzak ebaluatuz, eta halakoak prestatzen diren herritarren parte-hartzerako plan edo programetan sartuko dira.

178. artikulua.- Parte hartzeko bide, tresna eta prozesuak.

- 1.- Herritarrek parte hartzeko eskubideak, parte hartzeko prozesuetako informazioa, eta parte hartzeko tresnak eta bideak, bai eta eztabaida-prozesuak ere, herritarren parte- hartzeari buruzko ordenantzaren bidez eta/edo Udaleko Osoko Bilkuraren erabaki bidez arautuko dira.
- 2.- Herritarren interes kolektiboak ordezkatzen dituzten auzotar, elkarte, entitate edo udal- erakunde guztiek dute beren intereseko udal- gaiei buruzko mozioak aurkezteko eskubidea.
- 3.- Mozioak idatziz aurkeztuko dira Udaleko Erregistro Orokorrean, gutxienez, bost (5) egun baliodun lehenago, eta azalpen-zatia edo justifikazioa eta hartu beharreko erabaki- proposamena jasoko dituzte. Mozio horren kopia bidaliko zaie talde politiko guztietako bozeramaileei erregistroa eman eta gero.
- 4.- Alkatetzak mozioen tramitazioa atzera bota ahal izango du, arrazoituta, eta aurkeztu duenari jakinaraziko dio.
- 5.- Mozioa atzera botatzen ez bada, Alkatetzak erabakiko du, dagokion txostena egin ondoren, gaiaren arabera eskumena duen Batzordeko idazkariari bidaliko zaion ala zuzenean Osoko Bilkurara bidaliko den.



6. Mozioa izapidetu ondoren, Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sartuko da, dagokion Informazio Batzordearen irizpenarekin batera. Mozioa gai-zerrendan sartu bada, entzunaldia emango zaio mozioa proposatzen duenari, alkatetzari eskatu ondoren, alkateak mozioaren edukiari eta jatorriari buruz adierazten duen denboran ahoz azal dezan bere iritzia, gai-zerrendan jasotako proposamena eztatidatu eta bozkatu aurretik. Ondorengo eztatida eta bozketa Udalbatzako kideei bakarrik dagokie, eta bertaratutako publikoak eta mozioa proposatzen duenak ezin izango dute mozioan parte hartu, eta Osoko Bilkuraren funtzionamendu-arau orokorrak aplikatuko dira.

Hala ere, bozketa egin aurretik eta esku-hartze politikoen ondoren, hitza emango zaio proposamena egin duen pertsonari.

7.- Udal-elkarte edo -erakundeek, halaber, eskaerak eta galderak egin ahal izango dizkiete Udaleko gobernu-organoei.

8.- Auzo-ekimeneko eskaerak eta galderak idatziz aurkeztuko dira Udalbatzako Erregistro Orokorrean, nori zuzenduta dauden zehaztuz. Udalbatzari jakinaraziko balitzaizkio, udaleko talde guztiei jakinaraziko zaizkie.

9.- Osoko bilkurari zuzendutako eta bilkura egin baino bost (5) egun baliodun lehenago gutxienez jasotako eskaerak eta galderak bilkuran bertan irakurri eta erantzungo dira.

Alderdi politiko guztiei igorriko zaizkie, erregistratu ondoren.

II KAPITULUA.- UDALAREN ERABAKI ETA ARAU-XEDAPENAK PRESTATZEKO PROZESUETAN PARTE-HARTZEA.

179. artikulua.- Udalaren arau-xedapenak prestatzeko prozesuan parte hartzeko sustapen-ekimena.

1.- Herritarrek, erakundeek eta elkarteek, bai eta foro, plataforma edo sareek ere, sustapen- ekimena erabili ahalgo dute erabaki, ordenantza edo toki-erregelamenduak prestatzeko, erregelamendu orokor honetan ezarritako moduan, edo ordenantzetan edo Udaleko Osoko Bilkuraren erabakietan xedaturikoaren arabera, bestela.


2.- Sustapen-ekimenaren helburua da gobernu- batzordeak proposamenaren bideragarritasuna azter dezan, gero ekimena izapidetzeko, hala badagokio, artikulua honetan ezarritakoaren arabera.

3.- Gobernu-batzordearen balorazioak bereziki kontuan hartuko du ekimen hori agintaldiko planera eta, hala badagokio, bere garaian onartu zen urteko araugintza-planera egoki dadin. Agintaldiko planik ez dagoenean, baina udal-jarduneko ardatzak argitara eman direnean, azken horiek hartuko dira kontuan. Aipatu diren bi tresna horietatik ez badago, gobernu-batzarrak erabakiko du sustapen- ekimen hori bateragarria den Udalak aurrera eramaten duen udal-politikaren orientazio orokorrarekin.

4.- Gobernu-batzarrak sustapen-ekimena ez onartzea erabakitzen baldin badu, erabaki horrek arrazoitua izan beharko du, eta ekimen hori erabili duten sustatzaileei berariaz eta banaka jakinarazi beharko zaie, pertsonak izan zein erakundeak izan.

5.- Gobernu-batzarrak sustapen-ekimen hori izapidetzea erabakitzen badu, Udalak lehen zenbakian aurreikusitako testuak idatzi baino lehen, ekimen hori osoko bilkuran eztatidatuko da, eta alde aurretik legezketasunari buruzko txostenak eskatuko zaizkio Udaleko Idazkaritzari eta/edo Kontu- hartzailezari, gaiaren arabera. Nolanahi ere, Alkatetzat egoki irizten dionean, aipatutako bi organoei eskatu ahalgo zaie txostena eman dezatela.

6.- Sustapen-ekimena osoko bilkuran eztatidatu, eta, Udaleko Udalbatzaren eskumenekoa bada, izapidetzea onartu eta gero, gaiarengatik eskumena duen arloak edo administrazio-unitateak erabaki, administrazio edo ordenantzaren proiektua idatziko du, eta aplikagarria den legedian nahiz erregelamendu organiko honetan



ezarritako gainerako izapideak beteko dira, Udaleko Osoko Bilkurak behin betiko onartu arte, onartzen baldin bada.

180. artikulua.- Erabaki, ordenantza eta erregelamenduen proiektuak aurkezteko herri- ekimena.

1.- Auzotarrek herri-ekimena erabili ahaliko dute ordenantzen eta erregelamenduen proiektuak aurkezteko. Ekimen hori erabili ahaliko dute, orobat, Udaleko Osoko Bilkuraren erabaki-proiektuak aurkezteko, erregelamendu organiko honetan ezarritako arloen gainean, betiere.

2.- Aurreko zenbakian ezarritako herri- ekimena, gutxienez, udalerriko auzotarren ehuneko hamarrek izenpetu beharko du.

3.- Aurrekoa gorabehera, erregelamendu edo ordenantza bidez, edo osoko bilkuran gehiengo soilez harturiko erabakiz, izenpe-kopuru txikiago bat ezarri ahaliko da, baina ez da inoiz ere izango %5 baino gutxiago, berariaz hala ezartzen baldin bada.

181. artikulua.- Herritarrek Udalaren arau- xedapenak prestatzen parte hartzeko beste era batzuk.

1.- Herritarrek aldeztu aurreko galdeketa eta entzunaldiaren izapideetan parte hartzea erregelamendu organiko honetako I. liburuko V. tituluko II. kapituluaren arabera da.

2.- Halaber, herritarrek udal-aurrekontuetan gastu publikoko konpromisoak identifikatzen parte hartzea erregelamendu organiko honetako hurrengo artikuluan ezarritako moduan gauzatuko da.

182. artikulua.- Herritarrek udal- aurrekontuetan gastu publikoko konpromisoak identifikatzen parte hartzea.

1.- Udal-aurrekontuak prestatzen hasten den unean, Udalak urtero galdeketa edo eztabaida publikoko prozesu bat egingo du, gastuari buruzko erabaki edo alderdi puntualak zehazteko helburuz, gobernu-batzarrak une bakoitzean ezarritako arlo materialetan eta udal-aurrekontu osoaren ehunekoan.


2.- Galdeketa-prozesua egin ahaliko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133 artikuluan ezarritako modu, bitarteko eta epeak aintzat hartuta, beronen helburua delarik arau-xedapen orokorrak egiteko prozesuetan aurretiazko kontsulta egitea. Galdeketa- prozesu hori gardentasun-atariaren edo udal- webgunearen eta beste baliabide batzuen bidez egingo da.

3.- Herritarrek gastu publikoko konpromisoak identifikatzen parte hartzeko prozesuek buruturik egon beharko dute zuzenketak aurkezteko epea bukatu baino hogeita hamar egun lehenago, gutxienez.

4.- Diru-sarrera publikoei buruzko erabakiak ezingo dira izan eztabaida-prozesuen xede.

5.- Herritarrek udal-aurrekontuetan gastu publikoko konpromisoak identifikatzen parte hartzeko ez galdeketa, ez eztabaida- prozesuek ezingo diote eragin, kasu bakoitzean indarrean den legediaren arabera, toki-erakundeak defiziteko, zor publikoko eta gastu-arauko helburuak betetzeari, ez eta hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari ere.

6.- Herritarrek udal-aurrekontuetan gastu publikoko konpromisoak identifikatzen parte hartzeko galdeketa- edo eztabaida-prozesuek, betiere, Udaleko Kontu-hartzailetzaren aldeztu aurreko txostena beharko dute, aurreko zenbakian ezarritako helburuak betetzeari ez eragiteari buruz.



7.- Ordenantza, erregelamendu, edo udal- erabaki bidez, artikulua honetan arauturikoa garatuko da, eta, era berean, parte hartzeko modalitate honen forma, prozedura eta edukia ezarriko dira.

III KAPITULUA.- PARTE HARTZEKO EZTABAIDA-PROZESUAK.

183. artikulua.- Herritarrek parte hartzeko eztabaida-prozesuak.

1.- Herritarrek parte hartzeko eztabaida-prozesua denboran mugatutako zenbait egintzen segida bat da, herritarren, adituen eta erantzule publikoen arteko eztabaida eta argudio-kontrastea sustatzeko helburuz, politika publikoak formulatzean, erabakiak hartzean, edo zerbitzu publikoak edo garrantzi bereziko gai publikoak kudeatzean zein iritzi, proposamen edo ikuspuntu hartu behar diren kontuan identifikatze eta azalera aldera.

2.- Parte hartzeko eztabaida-prozesuen xedea da, orobat, udal-administrazioak –edo, bestela, beraren sektore publikoko erakundeek– entzute aktiboa eta ikuspegi zabaldia aurrera eramatea, eztabaida publiko integratua errazteko eta, horrela, Udaleko gobernu-organismoek gauzatu beharreko erabakiak hartzeko eta garrantzi bereziko gai publikoak kudeatzeko prozesuak hobetze aldera, herritarren sentsibilitateak gehituz.

3.- Herritarrek parte hartzeko eztabaida- prozesuak erabili ahalko dira politika publikoen garapenaren edozein unetan, erabakiak hartzean edo gai publikoen kudeaketaren edozein aldetan, baldin kasu horietan guztietan garrantzi bereziko gaiak ebazten ari badira, halako prozesuek aurrekontuen aldetik dakartzaten kostuak bereziki aintzat hartuz.

4.- Herritarrek parte hartzeko eztabaida- prozesuek, besteak beste, helburu hauek izango dituzte:


- a) Diagnostiko bat egitea udal-eremuan edo haren lurralde-eremuaren zati batean garrantzi berezia duen egoera jakin bati buruz.
- b) Berrikuntzazko edo sormenezko proposamenak egitea garrantzi bereziko udal- jarduera publiko jakin bati buruz.
- c) Proposamen zehatzak iradoki edo aztertzea udal-administrazioarentzat edo beraren sektore publikoko erakundeentzat inpaktu edo garrantzia berezia duten gaietan.
- d) Konponbideak proposatzea garrantzi publiko bereziko arazoetarako.

5.- Erregelamendu organiko honetan ezarritakoaren ondoretarako, gai bat garrantzi berezikotzat jotzeko, beharrezkoa izango da gai horrek antolamendu sektorialerako, lurralde-antolamendurako, bizikidetzarako, pertsonen arretarako, ingurumenaren edo zergen arloko alderdietarako dakartzan ondorek udal-politika publikoei eragitea eta herritar-kopuru handi baten gainean inpaktua izatea. Osoko Bilkuraren eskumena izango da gai publiko bat edo gai-multzo bat garrantzi berezikotzat jotzea; erabaki horren berri emango zaio Udaleko Osoko Bilkurari. Gai bat garrantzi berezikotzat jotzea, halaber, aurrekontuen gaineko inpaktuari edo udal-inbertsio osoari lotutako faktoreek baldintzatuta egongo da, baldin, kasu batean zein bestean, gutxienez guztizkoaren ehuneko %5ari eragiten badiu.

6.- Parte hartzeko eztabaida-prozesu bat abian jartzea ezingo da eragozpena izan abian diren administrazio-prozedurek formaren eta edukia aldetik ebazteko dituzten eskakizunak betetzeko.

184. artikulua.- Herritarrek parte hartzeko eztabaida-prozesuen deialdia eta sustapena.

1.- Herritarrek parte hartzeko eztabaida- prozesuen deialdia Alkatetzaren dekretuz egingo da kasuan-kasuan, eta dekretu horren edukian honako hauek jaso beharko dira:



- a) Eztabaida-prozesuaren mota eta izaera.
- b) Eztabaidaren gaia edo gaiak.
- c) Parte-hartzaile kopurua.
- d) Prozesuko parte-hartzaileen izaera eta banako gisa ala ordezkari gisa parte hartzen duten.
- e) Prozesuaren gehieneko iraupena.
- f) Ondorioak ateratzeko formatua.
- g) Kasuan kasuko gobernu-mailen izenean prozesua zuzentzeko ardura izango duten pertsonak.
- h) Interesa duela iritzitako beste edozer.

2.- Herritarrek parte hartzeko eztabaida- prozesuek, kasuan-kasuan, forma eta ezaugarri egokienak hartuko dituzte, eztabaida, gogoeta eta proposamenak egiteko prozesua irekitzeko gaitzat hartu nahi diren politika publikoen, hartu beharreko erabakien edo garrantzi bereziko gai publikoen izaeraren eta berezitasunen arabera.

3.- Herritarrek parte hartzeko eztabaida- prozesuan parte hartuko duten pertsonak ezartzerakoan, baita zozketa egiten denean ere, bereziki kontuan hartuko dira generoa, adina, aniztasuna nahiz udalerriaren ikuspegi plural bat gordetzeko beste edozein irizpide, aldagai horien guztien ordezkaritza proportzionatu bat egon dadin saiatuta.

Halaber, dena delako politika publikoaren xedean adituak diren zenbait pertsonak ere parte hartu ahalko dute, eta halakoak hautatuko dira espezialistek aldeztu dituzten jarreraren arteko oreka-irizpide bat aintzat hartuz, aldezturik agerturiko sentsibilitate edo iritzien arabera.

4.- Herritarrek parte hartzeko eztabaida- prozesuetara erakunde edo elkarte erregistratuak gonbidatu ahalko dira, haien arlo tematikoa dela eta, eztabaidatuko diren politiko publikoek, erabakiek edo garrantzi bereziko gaiek bereziki eragiten dietenean. Parte hartuko duten erakundeak hautatzeko, ordezkagarritasun-irizpidea baliatuko da, zozketaren metodoarekin konbinaturik, beharrezkoa izanez gero.

5.- Erakunde edo elkarteek nahiz herritarrek sustatu ahalko dituzte herritarrek parte hartzeko eztabaida-prozesuak, erregelamendu honetako 183. artikuluko 5. zenbakiaren arabera definituriko garrantzi bereziko gaietarako. Nolanahi ere, udal-organo eskudunek parte hartzeko prozesu horiek onartzeari uko egin ahalko diote, ez onartzeko arrazoiak emanez betiere.

IV. KAPITULUA.- HERRITAR-GALDEKETAK.

1. ATALA.- ARAU OROKORRAK.


185. artikulua.- Herritar-galdeketa.

Erregelamendu honetan xedaturikoaren ondoreetarako, herritar-galdeketa da herritarrek parte hartzeko tresna bat, Udalak bultzatutakoa edo arau-xedapen honetan ezarritako mekanismoaren bidez sustatutakoa, herritarren iritzia ezagutzeko xedea duena eta bozketa-sistema baten bidez gauzatzen dena, eragin diezaieketen eta, halaber, udal- eskumenekoak diren garrantzi orokorreko eta toki-izaerako interes publikoko gaiei buruz.

186. artikulua.- Herritar-galdeketa motak.

1.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen arabera, herritar-galdeketa hiru mota bereizten dira:

- a) Herri-galdeketa.



- b) Sektoreko edo lurralde-eremu mugatuetako galdeketak.
- c) Garrantzi bereziko politika publikoei edo erabakiei buruzko toki-mailako galdeketa irekiak.

2.- Aurreko zenbakian zehazturiko galdeketa horietako bakoitzak badu bere xedea eta helburua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko 80., 81. eta 82. artikuluetan xedaturik dagoenaren arabera.

187. artikulua.- Herritar-galdeketen modalitateen eremua eta izaera.

1.- Herri-galdeketak: herritar guztiei –alegia, galdeketa deitzen den unean udalerrian erroldaturik dauden auzotarrei– eragiteko moduko emaitzak eta ondoreak izango dituzten galdeketa-modalitateak. Horrelako galdeketak Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko 80. artikuluan xedaturik daude.

2.- Sektoreko edo lurralde-eremu mugatuetako galdeketak. Modalitate honetako herritar- galdeketek izaera berezia dute eta herritarren zati bati eragiten diote, haien gaiari dagokion sektorearen arabera, edo, bestela, udal- mugarte osoarekin bat ez datorren lurralde- eremu mugatu baten gainekoak dira. Horrelako herritar-galdeketak Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko 81. artikuluan xedaturik daude.

3.- Politika edo erabaki publikoei buruzko toki- mailako herritar-galdeketa irekiak: galdeketa- modalitate hauek politika edo erabaki publiko orokor edo sektorialeiei buruz egiten dira, toki- mailako eskumeneko gaiak soilik direla eta, galdeketa publikoa egiteko beharrezana sortzeko besteko inpaktu orokor bat ez dutenean. Gainera, prozedurazko berezitasun batzuk dituzte; hain zuzen, bozketa gehienez hamabost eguneko epe batean egin daiteke, segidako edo txandakako egunetan, eta, beraz, izaera irekia dute. Horrelako herritar- galdeketak Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko 82. artikuluan xedaturik daude.

188. artikulua.- Herritar-galdeketen araubide juridikoa.

1.- Herritar-galdeketen araubide juridikoa bere garaian onartzen den herritarren parte- hartzeari buruzko ordenantzan ezarriko da, edo, bestela, Udaleko Osoko Bilkuraren erabakien bidez.

2.- Herritar-galdeketen eremua eta izaera, haien garapena zuzendu behar duten printzipioak, galdeketa xedea, prozesu horietan parte hartzeko legitimatuta dauden pertsonak, eta haien araubide juridikoaren beste alderdi batzuk ere bere garaian onartzen den herritarren parte-hartzeari buruzko ordenantzan ezarriko dira, edo, bestela, Udaleko Osoko Bilkuraren erabakien bidez.


189. artikulua.- Galdeketa deitzeko eta galdeketa egiteko aldi baliogabeak.

1.- Galdeketa deitzeko aldia ez da bat etorriko hauteskundealdiekin.

2.- Ezingo da herritar-galdeketa batera deitu eta ezingo da halakorik gauzatu, udalerrian eragiten dioten edozein mailako hauteskunde batzuen deialdia egiten denetik hauteskundeak egiteko egunera bitarteko aldian.

3.- Hala eta guztiz ere, udal-hauteskundearen kasuan, aldi baliogabea udal-hauteskundeak egin aurreko 90 egun naturaletara aurreratuko da, eta udal-gobernu berriak agintea hartu ondoren 90 egun natural bete diren arte luzatuko da.

190. artikulua.- Herritar-galdeketen deialdia.



- 1.- Alkatetzak ezarriko du, Udaleko Osoko Bilkurari berri emanda, zein egunetan egingo dira hurrengo urteko ekitaldiko herritar- galdeketak, erregelamendu organiko honetan edo, bestela, berau garatzeko onartzen diren ordenantza edo erabakietan ezarritako epeen arabera.
- 2.- Aurreko zenbakian ezarritako egutegia gardentasun-atariaren bidez edo udal- webgunearen bidez zabalduko da.

191. artikulua.- Mugapenak.


- 1.- Herritar-galdeketen urteko kopurua ezingo da izan bi baino gehiago, sektoreko edo lurralde-eremu mugatuko galdeketak egin ezean, halakoen gehieneko kopurua urtean lau izango baita, aurrekoak barne, halakorik baldin badago. Salbuespen gisa kontsulta gehiago gaitu ahalko dira, beti ere, Udalbatzak gehiengo sinplez hala erabakitzen badu.
- 2.- Alkatetzak galdeketa-ekimenak multzokatuko ditu, baliabide publikoen kudeaketa efizientea egite aldera.
- 3.- Organo eskudunak galdeketa-prozesua irekitzea onartu eta gero, ezingo da sustatu izaera bera edo antzeko xedea duen beste galdeketarik, lau urte igaro arte, hura egiten denetik hasita.

2. ATALA.- GALDEKETA-MODALITATE BAKOITZAREN ARAUBIDE JURIDIKO OROKORRA.

192. artikulua.- Herri-galdeketak.

- 1.- Toki-araubideari buruzko oinarritzko legediaren arabera, alkateek, aldezturik Udaleko Osoko Bilkurak gehiengo osoz hala erabakita eta Estatuko Gobernuaren baimenarekin, auzo-erkidegoaren interesentzat garrantzi berezia duten gaiak herri-galdeketa eraman ahalko dituzte, baldin eta gaiok udal- eskumenekoak eta toki-izaerakoak badira, toki- araubideari buruzko legediaren arabera debeku diren eremuetako gaiak salbuetsirik.
- 2.- Prozedurari, baldintzei eta bermeei dagokienez, gaiak herri-galdeketa eramango dira Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean nahiz erregelamendu organiko honetan xedaturikoaren arabera, bai eta, halakorik badago, erregelamenduz ezarritakoaren arabera ere.
- 3.- Alkateari dagokio horrelako galdeketen deialdia egitea, aldezturik Udaleko Osoko Bilkurak erabakia hartuta, eta deialdi horretan, gutxienez, honako hauek jasoko dira: galdeketa gaia den xedapenaren edo politikaren edo erabaki publikoaren testu osoa; galdeketa galdera edo galderak; eta galdeketa egin beharreko eguna, erregelamendu organiko honetan ezarritako epeetan, eta deialdia dagokion Bizkaiko aldizkari ofizialean argitaratu ondoren.
- 4.- Udal-talde politikoen ekimenak ekimen, jatorria herritar-ekimenean duten herri- galdeketa egiteko eskabideak, lehen zenbakian aipaturikoak, osoko bilkuran aztertu beharko dira. Halako ekimenak erregelamendu organiko honetan ezarritako auzotar-ehunekoak izenpetu beharko ditu, gutxienez.
- 5.- Eraitza ez da juridikoki loteslea izango. Hala ere, Udal-taldeek aipaturiko galdeketa onartzeko erabakian, horretarako egingo den azken bozketan, halakorik egiten bada, eraitza horiek onartzeko edo ez onartzeko borondatea adierazi ahalko dute.


193. artikulua.- Sektoreko edo lurralde-eremu mugatuetako galdeketak.



- 1.- Herritarren zati bati soilik bideratutako galdeketa bereziak egin ahalko dira, gai sektorialaren edota xede duten lurralde- eremuaren arabera.
- 2.- Sektoreko galdeketatzat jotzen da arazo jakin bati buruz egiten dena eta herritarren zati bati soilik edo udalerriko biztanleen zati bati soilik eragiten diona.
- 3.- Lurralde-eremu bateko galdeketatzat jotzen da udalerriaren zati batean bakarrik egiten dena, dela auzo batean, dela udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakunde batean, dela udal-barruti batean.
- 4.- Herritar-galdeketa modalitate berezi horiek eraenduko dira Toki-erakundeei buruzko Legean eta erregelamendu organiko honetan ezarritakoaren bidez soil-soilik.
- 5.- Alkatearen eskumena izango da halako galdeketa deialdia egitea, osoko bilkuran gehiengo osoz onartua izan eta gero.
- 6.- Galdeketa horietan, gaiaren arabera eta erregelamendu organiko honetan xedaturikoaren arabera, udalerrian erroldaturiko atzerritarrek eta 16 urtetik gorako pertsonak parte hartu ahalko dute. Kasu horretan, boto-emileen errolda udal- erroldarekin osatuko da, eta Udaleko Idazkaritzaren eskumena izango da egokitzapen hori egitea.
- 7.- Betiere bermatu beharko da, erregelamendu honetan ezarritako moduan, orobat, prozesu horietan pluralismo politikoaren eta inpartzialtasunaren printzipioak errespetatzen direla, eta boto- eskubidea berdintasun-baldintzetan gauzatzea erabat gordetzen dela. Alkatetzaren titularraren eskumena izango da printzipio horiek erabat bete daitezen zaintzea, eta beharrezko baliabide guztiak jartzea prozesu horiek era egokian gauzatzen direla bermatzeko.
- 8.- Alkatetzak erabakiko du prozesu horietan zein boto-sistema erabiliko den (papera edo sistema elektronikoa); horretarako, erabakiko du prozesuari dagozkion biztanleen eta eremuaren ezaugarriak kontuan hartuz, parte hartzeko eskubidea duen pertsona orok eskubidea behar besteko bermeekin betetzea errazteko behararekin.
- 9.- Halako galdeketa –ordenantzak eta erregelamenduak onartzeko prozesuen barruan– jendaurrean jartzeko aldietan planteatu ahalko dira.
- 10.- Bozketa, zenbaketa eta prozesuaren kontrola, bai eta beste alderdi tekniko batzuk ere, erregelamendu organiko honetan ezarritakoaren bidez eraenduko dira.
- 11.- Galdeketa emaitzak ez dira lotesleak izango toki-gobernuarentzat. Nolanahi ere, azken erabakia galdeketa irekiaren emaitzetatik aldentzen bada, erabaki hori justifikatzen duten arrazoiak berariaz eman beharko dira. Dena dela, udal-taldeek, aipatutako galdeketa onartzeko erabakian, horretarako egingo den azken bozketan, halakorik egiten bada, emaitza horiek onartzeko edo ez onartzeko borondatea adierazi ahalko dute.
- 12.- Udaleko Idazkaritza izango da, erregelamendu organiko honetan xedaturik dagoenaren arabera, prozesu horiek taxutzeko organo eskuduna, eta, betiere, ateratako emaitzen fede emango du.

194. artikulua.- Politika edo erabaki publikoei buruzko galdeketa irekiak.

- 1.- Politika edo erabaki publikoei buruzko toki- mailako herritar-galdeketa irekiak politika edo erabaki publiko orokor edo sektoriale buruz egiten dira, toki-mailako eskumeneko gaiak soilik direla eta, galdeketa publikoa egiteko beharrezana sortzeko besteko inaktu orokor bat ez dutenean. Gainera, prozedurazko berezitasun



batzuk dituzte; hain zuzen, bozketa gehienez hamabost eguneko epe batean egin daiteke, segidako edo txandakako egunetan, eta, beraz, izaera irekia dute. Horrelako herritar-galdeketak Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko 82. artikuluan xedaturik daude.

2.- Galdeketa-modalitate horren botoak hamabost eguneko epe batean, gehienez, jasoko ahalko dira, segidako edo txandakako egunetan, Udaleko Osoko Bilkuraren erabaki arrazoitu baten arabera.

3.- Alkatearen eskumena izango da halako galdeketen deialdia egitea, osoko bilkuran onartua izan eta gero. Alkatetzaren dekretu bidez, dagozkion biztanleen eta lurraldearen ezaugarriak kontuan hartuz, bozketa paperean edo sistema telematikoaren bidez, edo bi eratarata, egitea xedatu ahalko da, eta eskura dauden baliabide guztiak jarriko dira parte hartzeko eskubidea duen pertsona orok bere ikuspuntua beharrezko bermekin adierazi ahal izateko, erregelamendu orokor honetan ezarritako moduan.

4.- Galdeketa horietan, gaiaren arabera eta erregelamendu organiko honetan xedaturikoaren arabera, udalerrian erroldaturiko atzerritarrek eta 16 urtetik gorako pertsonen parte hartu ahalko dute. Kasu horretan, boto-emileen errolda udal-erroldarekin osatuko da, eta Udaleko Idazkaritza Nagusiaren eskumena izango da egokitzapen hori egitea.

5.- Galdeketa xedea udalen eskumeneko politika publiko, erabaki edo gaitara mugatuko da. Ezingo da galdeketa egin diru- sarrera publikoei loturiko gaiei buruz, tokiko tributuen inguruko udal-eskumeneko alderdiak izan ezean.

6.- Halako galdeketak –ordenantzak eta erregelamenduak onartzeko prozesuen barruan– jendaurrean jartzeko aldietan planteatu ahalko dira.

7.- Bozketa, zenbaketa eta prozesuaren kontrola, bai eta beste alderdi tekniko batzuk ere, erregelamendu organiko honetan ezarritakoaren bidez eraenduko dira.

8.- Galdeketa emaitzak ez dira inola ere lotesleak izango toki-gobernuarentzat. Nolanahi ere, azken erabakia galdeketa irekiaren emaitzetatik aldentzen bada, erabaki hori justifikatzen duten arrazoiak berariaz eman beharko dira. Dena dela, udal-taldeek, aipaturiko galdeketa onartzeko erabakian, horretarako egingo den azken bozketan, halakorik egiten bada, emaitza horiek onartzeko edo ez onartzeko borondatea adierazi ahalko dute.

195. artikulua.- Galdeketa sustatzeko ekimen instituzionala.

1.- Herritar-galdeketa sustatzeko ekimen instituzionala Alkatetzari edo udal-talde politikoei dagokie.


2.- Herritar-galdeketa sustatzeko ekimenek udalerrarentzat, pertsona-kolektibo jakin batentzat edo lurralde mugatu batentzat garrantzi berezia duten gaiak izango dute berezko xedetzat.

3.- Aurreko 2 zenbakian xedaturikoaren ondoreetarako, gai bat garrantzi berezikotzat jotzeko, erregelamendu honetako 183. artikuluko 5 zenbakian ezarrita dagoenari jarraituko zaio.

196. artikulua.- Galdeketa-ekimen instituzionala erabiltzeko baldintza formalak.

1.- Alkatetzaren edo gobernu-batzarraren galdeketa-ekimenak galdeketa-proposamenak izendatuko dira.

2.- Udal-talde politikoen galdeketa-ekimenak galdeketa-proposamenduak izendatuko dira.



3.- Galdeketa-proposamenarekin edo galdeketa-proposamendurekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Galderaren edo galderen testu zehatza, bai eta, halakorik aurkezten bada, formulatzen diren alternatiben edo proposamenena ere.
- b) Azalpen-txosten bat, galdeketa-egokitasun, komenigarritasun eta garrantzi bereziaren arrazoiak azalduta.
- c) Eskumenen, pertsonen edo, hala badagokio, lurraldearen aldetik, galdeketa egiteak hartuko duen eremua.

4.- Azaldutako dokumentazio hori aurkeztu eta gero, Udaleko Idazkaritzak herritar-galdeketa dagokion modalitatean sailkatuko du, hari lotutako araubide juridikoa aplikatze aldera.

197. artikulua.- Ekimen instituzionala onartzea.

Udaleko Osoko Bilkuraren eskumena izango da galdeketa-ekimen instituzionalari dagokion proposamena edo proposamendua onartzea, hori oztopoa izan gabe gai bat garrantzi berezikotzat jotzeko erregelamendu organiko honetan jasotako Alkatetzaren eskumenerako.

198. artikulua.- Galdeketa sustatzeko herritar-ekimena.

1.- Erregelamendu honetako 192. artikuluan araututako herri-galdeketa, gutxienez, udalerrian erroldatutako auzotarren ehuneko hamarrek izenpetu beharko dute. Hala gertatzen bada, Udalak izapidetzeko prozedura irekiko du, eta erregelamendu honetan ezarritako moduan gauzatuko du, edo udal bakoitzean erregelamenduz xedatzen den moduan.

2.- Erregelamendu honetako 185. artikuluan araututako herritar-galdeketa, izenpe-kopurua izango da galdeketa-eremuak edo sektore-eremuak eragindako pertsonen ehuneko hamar, gutxienez, udalerrian bizi diren atzerritarrek eta 16 urtetik gorakoak kontuan hartuta, parte hartzea baldin badagokie.

3.- Udaleko Osoko Bilkurak emango du galdeketa egiteko onarpena, aplikagarria den legedian nahiz erregelamendu organiko honetan ezarritako moduan.

199. artikulua.- Prozedurazko beste arau batzuk herritar-galdeketa ekimenak izapidetzeko.

Herritarren parte-hartzeari buruzko ordenantzen bidez edo Udaleko Osoko Bilkuraren erabaki bidez ezarriko da zein baldintza formal bete beharko diren herritar-galdeketa baten ekimena sustatzeko, nola baliozkotuko diren izenpe-orriak, zein prozeduraren bidez eta zein organoren eskutik, eta zein izango den izenpeak egiaztatze sistema edo zein organoren bidez eramango den aurrera fiskalizazio-prozedura hori.


3. ATALA.- GALDEKETA-PROZESUA ETA BOZKETA-SISTEMA.

200. artikulua.- Galdeketa deialdia.

1.- Herritar-galdeketa deialdiak Alkatetzaren eskumenekoak dira, aplikagarria den legedian nahiz erregelamendu organiko honetan ezarritako eskakizunen arabera.

2.- Deialdiari buruzko ebazpenean, gutxienez, honako baldintza hauek jaso beharko dira:

- a) Deialdiko galdeketa-modalitatea.



- b) Galdeketaren gaia edo gaiak.
- c) Bozketa-sistema.
- d) Informazio-kanpaina eta informatzeko bitartekoak.
- e) Botoa emateko epea.
- f) Bozkalekuak.
- g) Galdeketa-mahai edo bozketa-mahien sistemak eta prozedurak, mahai elektronikoak bereziki aipaturik, halakoak daudenean.
- h) Kontrol-batzordearen hasierako osaera, arlo hori arautzeko Udaleko Osoko Bilkuraren erabakian ezarritakoaren arabera.
- i) Gaitutako udal-pertsonala.

3.- Deialdiak gardentasun-atarian edo udal- webgunean argitaratuko dira.

4. ATALA.- BOTO-SISTEMA ETA BERMEAK.

201. artikulua.- Informazio-kanpaina, espazioak eta baliabide materialak. Bozkatzeko sistemak eta erak.


- 1.- Galdeketen informazio-kanpaina, espazioak, eta baliabide materialak herritarren parte-hartzeari buruzko ordenantzaren bidez arautuko dira, edo, bestela, Udaleko Osoko Bilkuraren erabakiz ezarriko dira.
- 2.- Bozkatzeko sistemak eta erak, boto-mota eta herritar-kontsultako prozesuen mahaiaren arauketa galdeketa-mota bakoitzerako arautuko dira herritarren parte-hartzeari buruzko ordenantzaren bidez, edo, bestela, Udaleko Osoko Bilkuraren erabakiz ezarriko dira.

202. artikulua.- Berme-sistemaren kontzeptua.

- 1.- Berme-sistema baten helburua da herritar- galdeketo prozesuen fidagarritasuna, gardentasuna, neutraltasuna, pluralismoa eta objektibotasuna gordetzea, eta kasu bakoitzean indarrean den araubide juridikoa bete dadin errespetatzea.
- 2.- Herritar-galdeketo prozesu bakoitzaren berme gisa, kontrol-batzorde bat egongo da, edo Osoko Bilkuraren Erabakiz ezarritako beste edozein organo.

203. artikulua.- Kontrol-batzordea.

- 1.- Kontrol-batzordea organo bat da, bere gain duena prozesua ongi gauza dadin zaintzea eta aplikagarria den legedian nahiz erregelamendu organiko honetan jasotako printzipioak eta arauak behar bezala errespetatzea.
- 2.- Batzordeak autonomiaz, inpartzialtasunez eta independentziaz jokatu du.
- 3.- Kontrol-batzordearen funtzionamendua eraenduko da kide anitzeko organoei buruz oinarritzko legedian edo, bestela, hura garatzeko legedian ezarritakoaren bidez.
- 4.- Batzordeak, gutxienez, kide hauek izango ditu:
 - a) Idazkaritzaren titularra edo berak eskuordetutako enplegatu publikoa; bera izango da batzordeburua.
 - b) Galdeketa kudeatu duen udal-arloaren ordezkari bat.
 - c) Udal-talde politikoen ordezkari bana.



d) Batzorde sustatzailearen ordezkari bat, halakorik baldin badago.

5.- Kide-kopurua bakoitia izango da beti.

6.- Kontrol-batzordearen osaeran Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako irizpideak errespetatuko dira.

204. artikulua.- Kontrol-batzordearen eginkizunak.

Kontrol-batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Herritar-galdeketen prozesuaren aldiak ongi gauza daitezen zaintzea.
- b) Erregelamendu organiko honetan xedaturikoaren arabera, udal-administrazioak egin behar dituen jardunen jarraipena egitea.
- c) Gomendioak egitea galdeketa-prozesua ongi gauza dadin, eta aholku ematea nahiz egokiak diren proposamenak egitea.
- d) Boto-zenbaketa eta emaitzak gainbegiratzea, eta azken akta betetzea.
- e) Erregelamendu organiko honetan, Udalaren erregelamendu eta ordenantzetan nahiz Udaleko Osoko Bilkuraren erabakietan edo deialdiaren ebazpenean esleitzen zaion beste edozein eginkizun.

V. KAPITULUA- HERRITARREN PARTE- HARTZEAREN ARLOKO BESTE XEDAPEN BATZUK.

205. artikulua.- Parte-hartze organoak.

Sektoreko legedian ezarritako nahitaezko parte-hartze organoez gain, udal- administrazioak beste parte-hartze organo batzuk sortu ahalko ditu, sektorialak, zeharkakoak edo lurraldekoak. Parte-hartze organo horiek kontuan hartu beharko dira eta entzun egin beharko zaie, halakorik badago, parte hartzeko eztabaida-prozesu guztietan.


206. artikulua.- Gardentasun-ataria edo webgunea eta herritarren parte-hartzea.

Gardentasun-atarian edo webgunean espazio nagusi eta iraunkor bat antolatuko da, udal administrazioaren eta beraren sektore publikoko erakundeen –batetik– eta herritarren–bestetik– arteko interakziorako. Haren xedea izango da parte-hartzea errazteko informazioa ematea, politika publikoei buruzko prozesuak irekitzea, erabakiak hartzea, eta ekintza publikoaren gaineko erantzukizun partekatuko premisetan oinarrituriko parte-hartzezko kudeaketa, tokiko gobernantza gauzatze aldera, zehazki, gardentasunaren, parte- hartzearen eta kontu-ematearen printzipioak.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Gobernu Batzarrerri eskumena ematen zaio Araudira Egokitzeko Erabakiaren bidez Erregelamendu honetan txertatu ditzan nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketei soilik erantzuten dieten aldaketak; egoera horren berri jaso beharko da dagokion lege- aldaketan. Aldaketa horien berri emango zaio berehala Udalbatzari, berretsi ditzan, eta Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren sartuko dira indarrean. Eragin osoa izan dezan, ez da aplikagarria izango Ordenantzaren aldaketa onesteko ezarritako lege-prozedura.

AZKEN XEDAPENA



Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun balioduneko epea igaro ondoren sartuko da indarrean.

Hala ere, arauen ebaluazioari eta administrazio onaren printzipioetara egokitzeari buruzko xedapenek, izapideen eta prozeduren eskuliburua eguneratu eta sinplifikatzeari buruzkoek eta zerbitzu-kartek 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Erregelamendu hau indarrean sartzearekin batera, indargabetuta geratzen da 2023ko urriaren 3ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (190. zk.) argitaratutako gardentasunari, gobernu irekiari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Erregelamendua.

I. ERANSKINA

Erakunde Autonomoak:

- "Bartolome Ertzilla" Musika Eskola eta Kontserbatorio Profesionala
- Durangoko Udal Euskaltegia
- Astarloa Kulturgintza
- Durango Kirolak

Enpresa publikoa:

- Durango Eraikitzen